

Xabier Etxeberria, Marije Goikoetxea, Natxo Martínez,  
Tania Pereda, Asun Jauregi, Jimmy Brosa, Gerardo Posada,  
Valeria García-Landarte

# Adimen eta garapen urritasuna duten pertsonei eragindako tratu txarren ikuspegi etikoa

# Giza eskuibideak



**Deusto**Digital

Pedro Arrupe Giza  
Eskubideen Institutua



# **Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak**



# Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak

72 zenb.

Adimen eta garapen urritasuna duten  
pertsonei eragindako tratu txarren  
ikuspegi etikoa

**Xabier Etxeberria**, Deustuko Unibertsitatea  
**Marije Goikoetxea**, Deustuko Unibertsitatea  
**Natxo Martínez**, Deustuko Unibertsitatea  
**Tania Pereda**, Gorabide  
**Asun Jauregi**, Fundación Goyeneche  
**Jimmy Brosa**, Gautena  
**Gerardo Posada**, ANFAS  
**Valeria García-Landarte**, FEVAS

Bilbao  
Deustuko Unibertsitatea  
2013

#### **ERREDAKZIO BATZORDEA**

Felipe Gómez Isa, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Susana Ardanz, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Trinidad L. Vicente, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Xabier Etxebarria, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

#### **ARGITATZE BATZORDEA**

Anja Mihr, Utrechteko Unibertsitateko Human Rights Centereko ikertzailea, Herbehereak.

Antoni Blanc Altemir, Lleidako Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasle titularra.

Bartolomé Clavero, Sevillako Unibertsitateko Zuzenbidearen Historiako katedraduna eta Indigenen Gaietarako Nazio Batuen Foroko kidea.

Carlos Villán Durán, **Presidente de la Asociación Española para la Promoción del Derecho Internacional de los Derechos Humanos.**

Carmen Márquez, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasle titularra, Sevillako Unibertsitatea.

Cristina Churruga, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Eduardo J. Ruiz Vieytes, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Fernando Fantova, gizarte zerbitzuekin lotutako gaietako aholkularia, Bilbao.

Francisco López Bárcenas, Giza Eskubideen Mexikar Akademia, Mexiko.

Gaby Oré Aguilar, giza eskubideetako eta genero gaietako nazioarteko aholkularia eta Human Rights Aheadeko kidea, Madril.

Gloria Ramírez, Mexikoko Unibertsitate Autonomo Nazionaleko Politika Zientziako katedraduna, UNAM, Mexiko.

Gorka Urrutia, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Jaume Saura, Kataluniako Giza Eskubideen Institutuko presidentea, Bartzelona.

Joana Abrisketa, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Jordi Bonet, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna, Bartzelonako Unibertsitatea.

José Aylwin, Giza Eskubideen behatokiko zuzendaria, Temuco, Txile.

José Luis Gómez del Prado, **miembro del Grupo de Trabajo de las Naciones Unidas sobre la utilización de Mercenarios, Ginebra, Suiza.**

José Manuel Pureza, Ikasketa Sozialen Zentroa, Coimbrako Unibertsitatea, Portugal.

Judith Salgado, Giza Eskubideetako Andeetako Programa, Simón Bolívar Andeetako Unibertsitatea, Quito, Ekuador.

Koen de Feyter, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna, Anbereseko Unibertsitatea, Belgika.

Mónica Goded, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Manuela Mesa, Bakerako Hezkuntza eta Ikerketa Zentroko (CEIPAZ) zuzendaria, Madril.

Noé Cornago, Nazioarteko Harremanetako irakasle titularra, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.

Pablo de Greiff, International Center on Transnational Justice, New York.

Víctor Toledo Llancaqueo, Politika Publikoetako Zentroa, ARCIS Unibertsitatea, Santiago, Txile.

Vidal Martín, Nazioarteko Harremanetarako eta Kanpoko Elkarriketarako Fundazioko (FRIDE) ikertzailea, Madril.

Lau honen berregintza, banaketa, komunikazio publiko edo moldaketaren bat egiteko, ezinbestekoa da egileen baimena izatea, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik. Lan honen atalen bat fotokopiatu edo eskaneatu behar izanez gero, jo ezazu CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

## Aurkibidea

---

Sarrera . . . . .	9
<b>1. kapitulua. Tratu txarren eta horien bariazioen inguruko konzeptualizazio orokorra . . . . .</b>	<b>13</b>
1. Tratu txarraren definizioaren ikuspegi etikoa . . . . .	13
2. Tratu ez duinaren erreferente etikoak . . . . .	14
3. Tratu txarraren bariazioak, tratu txarrak jasan dituen pertsonari eragindako kaltearen arabera . . . . .	17
4. Tratu txarraren bariazioak, tratu txarrak eragin dituen pertsonaren jokaeraren arabera . . . . .	18
5. Tratu ez duinaren eta tratu txarren bariazioak, intentzionaltasunaren eta erantzukizunaren arabera . . . . .	25
6. Tratu txarrak ematen diren tokiak . . . . .	27
7. Tratu txarraren agenteak . . . . .	31
8. Ondorio gisa . . . . .	32
<b>2. kapitulua. Tratu txarren inguruko gogoeta eta eztabaida praktikoa. Kasuen azterketa . . . . .</b>	<b>33</b>
<b>3. kapitulua. Tratu txarraren inguruko kasu prototipoa . . . . .</b>	<b>57</b>
1. Sarrera . . . . .	57
2. Kasuaren deskribapena . . . . .	58
3. Atzemandako arazo etikoak . . . . .	61
4. I. fasea. Profesionalek osatutako taldea. Kasuan ematen diren tratu txar moten azterketa eta zehaztapena . . . . .	62
5. II. fasea. Urritasuna duten pertsona talde batek burututako lana . . . . .	74
<b>4. kapitulua. Ondorioak eta aholkuak . . . . .</b>	<b>75</b>
1. Ondorioak . . . . .	75
2. Aholku orokorrak . . . . .	75
3. Agenteen araberrako aholkuak . . . . .	78

<b>Eranskina: zigorra eta tratu ez duina . . . . .</b>	<b>81</b>
1. Sarrerako oharrak . . . . .	81
2. Zigorra eta zigor motak, edukiaren arabera . . . . .	82
3. Zigorra eta zigor motak, justifikazio helburuaren arabera . . . . .	83
4. Zigorra justifikatuta egoteko baldintza etikoak . . . . .	84
<b>Bibliografia . . . . .</b>	<b>91</b>



# Sarrera

Urritasun egoeren aurreko ulermenak eta erantzunak azken hamarkadatan aurrerapen nabarmenak izan dituen arren, ikuspegi anitsetatik onartzen da urritasuna duten pertsonen zaurgarritasun berezia dutela tratu txarren, gehiegikerien edo indarkeriaren aurrean, beraiek partaide diren bizi ingurune guztietan. Ikertzeak zailtasunak dituen urritasuna duten pertsonengan tratu txarrek duten eragina zehaztasunez hitz egiten diguten azterlanak aurkitzea zaila da (Horner-Johnson, 2006), baina hala ere, baditugu pertsona horiek tratu txarrak jasateko aukera gehiago dituztela erakusten duten ebidentziak (Verdugo & G. Bermejo, 1999; Sullivan & Knuston, 2000).

Urritasuna duten pertsonen eskubideen aurrean dagoen sentsibilizazio gero eta handiagoari esker (FEAPS, 2004; NBE, 2006), eskubideak bermatuko dituzten jardunbideak beti indarrean jartzen ez diren arren, «iceberg» itxura duen errealitatea ari da azaleratzen, eta sarritan zaila da arazo hori hautematea eta lantzea, baina galdera sakonak egiten dizkigute, erakunde, familia, profesional eta hiritar gisa.

Tratu txar izendatzen duguna, ikuspegi batetik baino gehiagotik landu daitekeen fenomeno konplexua da. Batzuetan bata zein bestea erabiltzen diren hitz desberdinen existentziak berak, tratu txarrak, gehiegikeria, bazterketa, indarkeria... zertaz ari garen zehaztasun osoz adieraztearen zailtasuna erakusten digu. Halaber, ikuspuntu, tratu txar mota eta maila desberdinak daudenez, tratu txar hori gertatzen den hainbat testuinguru —familia, erakundeak...—, edo faktore eta erantzukizun anitzak daudenez, beharrezkoa ikusten dugu tratu txarra bere ikuspegi, kontsiderazio eta inplikazio guztietatik lantzeko aukera emango digun argiketa egitea.

Dena den, beharrezkoa da onartzea tratu txarra erlazonaturik dagoela gizarte testuinguruek aniztasunari eta ezintasunari buruz egiten duten balorazio partikularrekin. Gure gizarteetan ezintasuna orain-

dik ere desbalio edo «balio ez» gisa (Etxeberria, 2010) hartzeak, urritasuna duten pertsonen erabateko garapena eta partaidetza ezinezko bilakatzeaz gain, tratu txar egoerak emateko aukera gehiago dituen giroa sortzen du.

Horrela, hemen tratu txarraren hurbilketa etikoa proposatzen dugu. Beste ikuspegi batzuk baztertzeko ez badira ere, erreferentzia gisa duintasuna hartzen da balio unibertsal gisa, eta urritasuna, gizakiaren fenomeno gisa ulertzeko dugun moduari buruzko galdera egiten da. Horrela ikusita, tratu txarra, gizakiaren duintasuna zapaltzearen adierazpen dramatikoenetakoa da.

Hori dela eta, garrantzitsua da urritasuna duten pertsonen balioa eta erabateko gizatasuna zehaztea, pertsona horiekin erlasionaturiko edozein gai lantzeko ezinbesteko abiapuntu gisa. Horrez gain, gogoratu behar da urritasuna, pertsonen eta pertsona horien medioaren artean ezartzen den erlaziotik definitzen dela eta, ondorioz, medio hori dela urritasuna duten pertsonen erabateko errespetua eta garapena sustatzeko aurrera eraman behar diren neurrien eta ekintzen jasotzailea.

Ikuspegi etikoa da tratu txarraren gaia zorrotzasunez lantzeko behar dugun oinarria, gogoetan eta gizarte alorreko esku hartzean, eta oinarri sendoa izango duen adostasuna lortzeko aukera eman diezaguke. Ikuspegi horrek tratu txar egoerak oinarritzeko eta identifikatzeko aukera emango digu, pertsonaren duintasunaren erreferentzia gisa, eta berezko balio gisa ulertzeari dagokionez. Beste alde batetik, pertsonen eta erakundeek tratu txarraren gainean dituzten erantzukizunei buruzko gogoeta egiten ere lagunduko digu eta, ondorioz, tratu txar horiek prebenitzeko ekimenak eta ekintzak aurrera eramateko baldintza hobek izango ditugu.

Beraz, lan horren helburuak hauek dira:

- Tratu txarrari buruzko kontzeptua eta terminologia argitzea.
- Tratu txar motak eta mailak identifikatzea, bizitzako testuinguruetan inplikaturiko aldagaiak aztertuz.
- Gogoetaren eta gizarte esku hartzearen alorrean ezartzen diren proposamenak eta ekimenak diseinatzea.

Argitalpen honetatik sortzen den ikerketa lana aurrera eramateko eratu den ikerketa taldea osatzen duten pertsonak, alde batetik, urritasuna duten pertsonen bideratutako zerbitzuetan lan egiten duten profesionalak dira, bakoitza bere erantzukizun mailan (gerentzia, arreta zuzeneko zerbitzuetako arduradunak, familia zerbitzuetako arduradunak) eta bestetik, diziplina batetik baino gehiagotik urritasunaren alorrean esperientzia duten unibertsitateko irakasleak: etika, psikolo-

gia eta gizarte esku hartzea. Azkenik, lana FEVASetik (Adimen Urritasuna duten Pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa) bultzatu eta koordinatu da.

Talde lanaren metodologia elkarrizketan eta eztabaida praktikoa oinarritzen da. Tratu txarrari buruzko oinarritzko bereizketei buruzko proposamena hartzen da abiapuntu gisa —tratu txar eta kalte motak, intentzionaltasuna, subjektuak, guneak...— eta hori, urritasuna duten pertsonen ematen zaien tratu ez duinarekin zerikusia duten kasuen eta egoeren azterketarekin kontrastatzen da. Bereizketei eta egoera praktikoetan aplikatzeari dagokien eztabaida horrek bi helburu ditu: bereizketa horien ulermena eta definizioa hobetzea eta, batez ere, bereizketa horiek, tratu txar egoeren prebentzioa, hautematea eta esku hartzea gidatzera bideratzea. Hori dela eta, lanari amaiera emateko, adimen eta garapen urritasuna duten pertsonenganako tratu txarra identifikatzen eta lantzen lagunduko duten aholku azken faseari ekingo zaio.

Metodologia horrekin bat etorritik, testua lau kapitulutan egituraturik dago. Lehenengoan, tratu txarra, inplikaturiko elementuak identifikatzeko oinarri gisa hartzen den ikuspegi etikotik kontzeptualizatzen da:

- Pertsonari egiten zaien kalte mota.
- Kalte horrek eragiten duen portaera mota.
- Tratu txarrak eragiten dituen pertsonaren erantzukizun mota.
- Tratu txarra gerta daitekeen guneak.
- Tratu txarraren agenteak.

Bigarren kapitulua, zenbait tratu txar kasuri buruz gogoeta egiten eta eztabaidatzen zentratuko da, erreferentzia gisa aurreko kapituluan proposatutako bereizketak eta sailkapenak kontuan izanik. Kapitulu horren helburua, tratu txar egoera posibleak aztertzeko jarrai daitekeen deliberazio praktikoa erakustea da.

Hirugarren kapituluak, FEVAS osatzen duten erakundeetako profesional talde batek, tratu txarraren inguruko kasu prototipo batean oinarrituz, egindako lana biltzen du, adosturiko aholkuak lortzeko azterketa etiko eta esku hartze tresna indarrean jarriz. Landutako kasua, burmuin paralisia eta ahozko hizkuntza falta duen 49 urteko emakume bati buruzkoa da. Emakume horrek bertan behera uzte eta arduragabekeria egoera jasaten du, bere bizitzaren amaieran arreta eskaini behar dioten profesionalen aldetik, osasun gunean eta gaztetik bere bizilekua izan den egoitzan.

Laugarren eta azken kapituluak ikerketa prozesutik sortzen diren aholku eta iradokizun nagusiak biltzen ditu.

Azkenik, gaiaren garrantzia kontuan izanik, zigorrari eskainitako eranskina sartzea beharrezkotzat hartu da.

Gure helburua, eskaintzen ari garen eta esku hartzera bideratuta dagoen gogoeta prozesu hau familien, erakundeetako profesionalen eta boluntarioen eta hiritar guztien jardunbideak hobetzeko erabilgarri izatea da, urritasuna duten pertsoneri eragindako tratu txar egoera onartezinak erabat bazter daitezzen. Pertsona horiek, beraien erabateko duintasunarekin, izan dira lana inspiratu dutenak, eta beraiek dira, baita ere, lanaren azken hartzaileak.

# 1. kapitulua. Tratu txarren eta horien bariazioen inguruko kontzeptualizazio orokorra

## 1. Tratu txarraren definizioaren ikuspegi etikoa

Esanahi zorrotzari lotuta, pertsona bati egoera jakin batzuetan (zein egoeratan argitu beharko da) kalteak eragiten dizkion jarrera hartzen dugu tratu txartzat. Jarrera hori moralik gabeko jarrera gisa hartu beharko da, kaltetutako pertsonaren duintasunarekiko errespetu falta erakusten duelako, berariaz tresna soiltzat<sup>1</sup> hartzea delako. Tratu txarra beste pertsona bati eragindako duintasunik gabeko tratua da. Beraz, moralik gabeko alderdi hori erabakigarria da tratu txarraren definizioa emateko orduan.

Dena den, mugak beti argiak ez direnez, eta tratu txarrari aurre egiteko orduan inguruan dagoen ikuspegi osoa erreferentziazat hartzea komenigarria denez, esanahi zabalagoan baldintza subjektiborik ez duen tratu txar mota objektiboak izango ditugu kontuan tratu txarrak eragiten dituen pertsonaren moral gabetasunaz hitz egin ahal izateko. Horren inguruan aritzerakoan *duintasunik gabeko tratuz* edo tratu txar objektiboaz arituko gara.

---

<sup>1</sup> Pertsonak, moralik gabeak izan gabe ere, batak bestea tresna soiltzat har dezakegu. Adibidez, sendagilea gaixotasuna osatzeko erabiltzen den tresna soila da. Hori moralitasunarekin bat dator, helburua lortzeko tresna soiltzat hartzeaz gain, eriantzat sendagilea helburua ere badelako, duintasuna duen pertsona da, sendagilea den neurrian errespetatu eta bere autonomia onartzen zaio. Moralik gabe aritzea, ordea, norbait, errespeturik eta aitormenik gabe erabiltzeko tresna soiltzat hartzea da. Gogoeta horiek Kanti sor dizkiogu, jakina.

Bereizketa hori garrantzitsua da, ez soilik tratu txarrak eragiten dituen pertsona auzipetu ahal izateko eta kasu bakoitzean dagokion erantzukizuna eskatu ahal izateko. Tratu txarrari aurre egiteko ekimenak era egokian planifikatzeko ere garrantzitsua da. Dena den, kontuan hartu behar da, alde batetik, horrek ez duela inondik inora tratu txarrak jasan dituen biktimari eskaini beharreko harrera indargabetu behar, kasu batean zein bestean; eta bestetik, sarritan tratu txarrak eragiten dituen pertsonarengan erantzukizun moral argirik ez dagoenean, erakundeek beren erantzukizunak alde batera uztean gertatutako akatsek bidea eman die tratu txarrei. Horiei aurre egiteak, utzikeriak aurkitzea eta utzikeria horiei kemen osoz aurre egitea eskatzen du.

Tratu txarren inguruko hausnarketa egiterakoan, azken gogoeta horiek agerian uzten dituzte oinarritzat hartu behar diren oinarri edo pibote biak: tratu txarrak nozitu dituen pertsonak jasandako kaltea eta eragin dituen pertsonaren erantzukizuna, hain zuzen ere. Bakarka zein loturik ulertuta, oso kontuan hartu beharko dira, egin beharreko argitze lanak egiteko orduan.

Gai horiek guztiak aurrera eramateko lanean sartu aurretik, kasuen erabilpenaren inguruko behaketa metodologiko laburra egingo dugu. Aipatzen ditugunak helburu bikoitzarekin aipatuko ditugu. Oso era laburrean, eta azalpen testu barruan, testua bera hobeto ulertzen lagunduko duten kasuei buruzko aipamenak azalduko dira. Horiekin batera, dagozkion kokapenarekin eta xehetasun gehiagorekin, beste kasu batzuk ere aipatuko ditugu, horrela azaldutakoa adibideekin azaldu ahal izateko eta hemen aipatzen dena aurrera eraman ahal izateko orientabideak indartuz eta prestatuz.

## 2. Tratu ez duinaren erreferente etikoak

Hasieratik adierazi dugunez, tratu ez duina eta tratu txarra definitzerako orduan, jarraian jorratu behar dugun alderdi etiko saihestezina eta ezinbestekoa dutenez, beren inguruan eragiten den kaltea eta egon daitekeen erantzukizunaren inguruan atzera eta aurrera hasi orduko, tratu txarra ikuspegi etikotik balioztatzeke orduan eredu gisa hartu beharreko oinarrien aurkezpen sintetikoa egitea komeni da. Berezko konnotazioak dituzten arren, hein handi batean bat datoz bioetikaren oinarriekin.

### *Duintasuna*

Hori aipatzerakoan oinarritzko eredia eta muina aipatzen ditugu: gizakiok duintasun subjektuak gara, hau da, moralaren ikuspegitik be-

rez gara baliotsuak. Hori dela eta errespetua eta begirunea zor diogu elkarri. Oinarri hori, banakoan arteko tratuan, kasu honetan adimen urritasuna duen pertsona batenganako tratuan, urratu egiten da pertsona hori gure botere, jabetasun, plazer, ongizate... beharren araberaren tresna soiltzat hartzen dugunean. Hori da, hain zuzen ere, tratu txarra.

### *Gaizkigintza eza eta justizia.*

Tratu txarren oinarrian beti subjektuen arteko harremanak gaindizten dituen giza eskubide eta justizia kontu bat dagoela esan nahi du horrek. Bioetikaren esparruan gaizkigintza ezaren eta justiziaren oinarrietan garatzen dira egiaztatze horiek.

- *Gaizkigintza ezaren* oinarriak, bestearikiko harremanean, profesionala edota beste erabateko izanik ere, gure kasuan adimen urritasuna duten pertsonen eta euren arteko harremana, duintasunean eta osotasunean kalterik ez eragitea eskatzen du. Tratu txarra, zentzu honetan, jarrera gaizkigilea da.
- *Justiziari* dagokionez, erakundeek erabateko bitartekaritza lanak egindako banatze ikuspegitik hartuz gero, betebeharrak asetzeko gaitasunak bultzatzen dituen ondasun eta baliabideen bidezko banaketa irizpideak aukera berdintasun esparru batean gidatutako oinarrietan harremanetan jartzea suposatzen du: badaude zuzenean banatze justiziaren aurkako atentatua diren tratu txarrak; eta ahalmen urritasunen esparruan, badaude, zehazkiago banatze justizia ezak objetiboki bultzatutako tratu txarrak ere. Bestalde, Zuzenbideak era positiboan jartzen duen, ikuspegi penaleko justiziak, delitua nola ikertu, auziperatu, konpondu eta hala badagokio zigorra nola ezarri arautzen du: izan ere, tratu txarrak intentsitate maila batetik gorakoak direnean delitua dira; eta Zuzenbidearen aldetik era bidezkoan eta zuzentasunez aurre egiten saiatu behar da.

Ez gaizkigintza eta justizia oinarri horiek ondokoa eskatzen die kasuan kasuko erantzuleei: a) gerta daitekeen tratu txarra gertatzea ahal den neurrian saihesteko aurre hartzeko ekimenak; b) bizitzako arloetan —fisikoan, psikologikoan, materialean...— tratu txarrak jasan dituzten biktimentzat konpontze neurriak, kaltea erarik egokienean berriz konpondu ahal izateko, horrela kaltetutako euren duintasuna berreraikitzeko. c) justizia penalari dagokion eta giza eskubideekin bat datorren erрудunentzat balizko zigorra ezartzea.

## *Autonomia eta ongintza*

Dena den, tratu txar gehienak subjektuen arteko harreman esparruan gertatzen dira. Bertan kokatuta, eta aurrez aipatutako oinarriak ere kontuan izan behar direla aintzat hartuta, beste bi oinarri ageri zaizkigu: autonomia eta ongintza.

- *Autonomia* oinarriak (familia, lana, adiskidetasuna, noizbehinkakoak...) harremanetan jartzen garenean pertsonen burujabetasunarekiko errespetua eskatzen digu. Harremanetan jartzeko jarraitu beharreko bideak edota eurei eskatu nahi dizkiegun jarrerak bideratzeko euren baimenarekin egitea eskatzen digu, euren mesederako direla uste dugunean ere, inposaketak ez ezik bestelako engainuak edo manipulazioak ere saihestu behar ditugulako. Argi dago, beraz, tratu txarra, euren ganako kalterik nozitzerik nahi ez duten pertsonen autonomiaren kontrako atentatua dela.
- *Ongintza* oinarriak beste pertsona batzuen zaintzaren ardura edota arreta profesionala burutzen duten pertsonengan du eragina. Hauei zera eskatzen zaie: a) besteei eragindako ongia esku hartzearekin bat datorren jardueraren barne ongiarekin ere bat etortzea (medikuntza jarduera izanez gero, osasunaren zaintzaren bikaintasun parametroen arabera izatea, etab...); b) egitekotan, ongintza ekintza, zuzenduta dagoen pertsonaren laguntza eta baimenarekin egin behar da, hau da, bere gaur egungo autonomia gaitasuna errespetatuz burutu behar da; c) autonomia arloan gabeziak atzemanaz gero, ahal den neurrian ongintza ekintza hauek, gabezi hauek indartzera zuzendu beharko dira, ordezkatu behar izanez gero, ordezkapen hau soilik bestelako aukerarik ez dagoenean burutuz. Oinarri hori adimen urritasuna duten pertsonengan indarrean jartzea eta ezartzea, bereziki kontuz egin beharreko kontua da, izan ere, oinarriak gabeko autonomi gabeziak euren baimenik gabe jarduteko erabili daitezke. Honek, paradokikoki, zera adierazten digu, burutzen duenaren asmoaren gainetik tratu ez duina suposatzen duten jarduerak burutzen direnean, tratu txarra, berez tratu ontzat hartzen den ongintza ekintza bat burutzen denean ere azaldu daitekeela, hain zuzen.

## *Zuhurtzia*

Oinarriak, euren gaineko epai morala luzatzerakoan kontuan hartu behar diren testuinguru zehatzeko egoera konkretuetan ezarri behar



dira beti. Izan ere, horrelako egoeretan ondokoak agertu daitezkeelako: baloreen eta printzipioen arteko gatazkak, ezartzeko orduan zailtasun objektiboak, ondorio gatazkatuak, etab. Arlo horiei guztiei zuhurtzia edo jakinduria praktikoaren ikuspegitik egin behar zaie aurre, tratu txarren kasuetan ere, baina inoiz ez zuritu ezinezkoa zurrizko aitzaki gisa erabiliz —hori ez litzateke, jada, jakinduria izango eta—.

### 3. **Tratu txarraren bariazioak, tratu txarrak jasan dituen pertsonari eragindako kaltearen arabera**

Oinarri etikoak argitu eta gero, jarraian tratu ez duina edo tratu txar mota ezberdinak aurkeztuko ditugu. Tratu txarrak jasan dituen pertsonari eragindako kaltearekin zerikusia dutenekin hastea komeni da, era honetan oinarritzkotzat hartzen dugun alde bat azpimarratzen dugulako: kontu honetan esanguratsuen biktimarengan zentratzea dela, hain zuzen. Azter ditzagun, beraz, honek paira ditzakeen kalte mota ezberdinak eta euren artean sor daitezkeen harremanak.

#### *Kalte motak*

Ondokoak bereizten dira:

- Fisikoak, gorputzari eragiten diotenean.
- Psikologikoak, psikismoaren (emoziozkoa, ezagutzazkoa, motibaziozkoa...) hainbat esparruri eragiten dienean.
- Sexualak, sexu bizipenari kaltea eragiten zaionean.
- Ekonomikoak, pertsonaren jabetzei eragiten diotenean.
- Juridikoak: kaltea epaitegietan hartutako erabaki baten ondorioz edota urritasunak dituen pertsonaren zaintza legala dutenek, zaintza lanak egiten dihardutela hartutako erabaki baten ondorioz gertatzen denean.

Orokorrean populazioan tratu txarrak aipatzen direnean, ez da hain ikuspegi inklusiboa erabiltzen. Bertan pertsonari batasun fisiko-psiki-koan zuzenean eragiten dioten kalteak sartu ohi dira, kalte ekonomi-koak, esaterako, beste era batera sailkatuz. Dena den, adimen urritasuna duten pertsonak kontuan hartzerakoan, egokia iruditzen zaigu, eragindako kaltearen ikuspuntutik, tratu txartzat aipatutako aldaera ezberdin guztiak kontuan hartuta aztertzea.

Azken oharpen horrek, adimen urritasuna duen pertsona izateak, pertsona guztiengan eragiten duen parametro orokorren barnean izan

arren, horrelako kalte mota bakoitza testuinguruan era zehatzean dagoela ere gogoratzen digu, azken hau, eurek pairatutako tratu txarrei aurre egiterako orduan kontuan hartu beharreko kontua izanik. Testuinguruan kokatu behar hori pertsona eta talde guztiak kontuan hartzerakoan zaindu beharrekoa dela, jakina da; aldatzen dena zehaztasunetara iristeko orduan jarraitu beharreko bidea da.

### *Kalte mota ezberdinen arteko harremana*

Aurrez aipatu dugun tipologiai tratu txarrari aurre egiteko eta orientatzeko erabilgarritasuna du, baina, oso kontuan hartu beharko da, praktikan, tratu txarrean kalte mota batek bestea gordetzen dutela (hori nabarmena da sexu kalteetan). Hori dela eta:

- Tratu txar fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa edo juridikoa, etab. aipatzen dugunean, kasuan kasuko tratu txar bakoitzeko eragin nabarmenena eta berehalakoena izendatzeko izango da.
- Baina, jarraian, bere larritasuna agerian uzteko, beste tratu txar motekin agertzen dituen loturak ere aztertuko ditugu, horrela, aurre egin ahal izateko beharrezkoa den lana agerian uzteko.

## **4. Tratu txarraren bariazioak, tratu txarrak eragin dituen pertsonaren jokaeraren arabera**

Hasieran tratu txar motak desberdintzeko biktimengan zentratu oostean, orain kaltea eragiten duen pertsonengan zentratzeari ekingo diogu. Kaltea egiten duenak, nahitakotasuna alde batera utziz, kaltea objektiboki azaldu daitekeen jarrera zehatz baten bidez egiten du. Momentuz, hau bigarren tratu txar tipologia bat aurkezteko erabiliko dugun aldaera izango da, berebiziko garrantzia izango du, izan ere, tratu txarra eragiten duen egiazko jarrera agerian uzteko lagungarriak izango dira, eta horiek saihestu ahal izateko kontuan hartu beharko dira.

Aurkezpena ondoko eredu logikoari jarraituz burutuko dugu. Hasteko berez tratu txarreko ekimenak ez direnak, baina burutzen diren eraren ondorioz tratu txarrak eragiten dituztenak aipatuko ditugu. Ondoren, kalteak eragiten dituztenez, tratu ez duintzat hartzen den baina benetako tratu txartzat hartu beharko litzatekeen utzikeriaz jokatzearen ondorioak aipatuko ditugu. Bukatzeko, izatez, jarrerak eta ondorioak

berez tratu txarrak eragiten dituzten jokaerak aipatuko ditugu, gauza-tutako tratu txarrak deituko ditugunak aurkeztuko ditugu.

Azken gogoeta honek adierazten digunez, aurkeztutako tipologia, eragindako kalteari dagokionez, tratu txar arinetik hasi eta tratu txar larrienera joango da. Dena den, tratu txar baten larritasuna balioztatzeko orduan ez da dagokion tipologia bakarrik kontuan hartu behar. Tratu txar mota bakoitza sailkatzean, agertzen duen eta asko alda daitekeen intentsitatea kontuan hartu behar da. Honetaz gain, kasuan kasuko ageri diren giroak eta egoera subjektiboak ere, era nabarmenean eragiten dute. Noski, tratu txarra eragiten duen jarrera ohizkoa edo ohiz kanpoko den ere kontuan hartu beharko da. Guzti honen arabera, us-tez bestea bezain tratu txar larria ez dirudiena, izatez askoz larriagoa izatera iritsi daiteke.

### *Zaintza setatia*

Kasu honetan, tratu txarra, gehiegizko zaintzak ematean datza, bai zaintza lanak gehiegizkoak direlako, bai zaintza hauek denbora desegokiz luzatzen direlako. Era paternalistan, zaintzen ari den pertsonari ongintza mailarik altuena emateko asmoa izan arren, lortu nahi den helburuaren eta berak dituen baliabideak edota autonomia maila egoikiarekin nahi duenaren arteko aldea hain handia denez, azkenean kaltea eragiten zaio. Zainketa hain era setatian egitera iristeko joeraren azpian, sarri lanari dagokion edo aita-amatasunari dagokion gehiegizko zaindu nahia aurki dezakegu, porrotari beldurrak ere eragina izan dezakeen arren. Pentsa, esaterako, adimen urritasuna duen pertsona, bere ahalbideen gaineko helburua lortzeko, eten gabeko ariketak egitera derrigortzen duten zaintzaileengan (profesionalak, gurasoak, boluntarioak...). Sor dezaketen oinazea eta kaltea, benetan handia izan daiteke.

Mikelek, 10 urte ditu, Autismoaren Espektoaren Nahasmena diagnostikatu diote. Ohiko ikastetxe batera doa, Lehen Hezkuntzako 5. Maila burutzen ari da eta arlo gehienetan Banakako Curriculum Egokitzapena du. Mikelek zenbakiak ezagutu arren, batuketak ozta ozta burutzen ditu. Elik, Mikelekin aritzen den hezkuntza laguntzaileak, erronkatzat Mikelek biderketa taulak ikastea jarri du. Eli, denbora guztian, Mikelek taulak buruz ikas ditzan saiatzen ari da. Mikelek gelakideekin gehiegi jolasten ez duenez, Elik, jolastoki orduetan ere, Mikelekin gelan geratzea erabaki du taulak buruz ikas ditzan.

Aitorrek urte eta erdi du. Estimulazio goiztiarra eta fisioterapia tratamenduak jasotzen ditu. Heldutasunean atzerapena izango duela

diagnostikatu diote eta adimen eta fisiko mailan eragin handia izango duela aurreikusi diote. Profesionalek, etxean egiteko ariketak gomendatu dizkiote, bere higitze egoeraren arabekoak, eta denbora jakin batzuetan egitekoak. Ama ordea, ariketa kopurua eta hauek burutzeko eskaintzen zaion denbora handitzen hasi da. Adin txikikoak ariketak derrigor egin behar dituzenez, bere kontrol motorea dela eta oraindik burutu ezin dituen posturretan egon behar izaten du. Haurra gaixorik dagoen arren, amak ez dio eritasunari behar zaion arreta eskaintzen eta bizitza normal jarraitzen du. Amak Aitorrek adierazten dituen neke, negar, ez erosotasun... adierazpenak kontuan hartzeko zailtasunak ditu. Bere kezka, semeak duena baino higitze ahalmen handiagoa eskuratzea da.

### *Zaintza desegokia*

Oraingoan, tratu txarra, gehiegizko zaintzan baino, zaintzeko eran agertzen da. Zaintza jasotzen duen pertsonari behar ez duena eskaintzen zaio eta horrek kaltea eragiten dio. Hasierako akatsa, arduragabekeriarekin jokatu ala ez jokatu, beharizanen inguruko diagnostiko okerrean datza. Tratu txarra, berez, diagnostiko okerra azkartasun nahikoarekin atzeman ez delako —dagokion diagnostikoa eta zaintza berrikusiz— eta errutinen, tratu inpersonalen eta antzerakoen ondorioz zaintza desegokiari eusten zaionean eragiten da.

Aitor 30 urte dituen gaztea da, Autismoaren Espeketroaren Nahasmena diagnostikatu diote. Ezaugarri berdintsuak dituzten beste sei gazterekin batera, Talde Egoitza batean bizi da. Berarekin eta taldearekin batera, lanaldietan zaintzaile bi daude beti. Asteburuetan taldea etxebizitzan geratu ohi da. Aitorren kide batzuk telebista ikusten edo ordenagailuarekin jolasten pasatzen dute denbora. Aitorrek ez du jolasten eta aspertu egiten da, gainera heteroerasoak direla eta jarrera arazoak izaten ditu. Etxean, arazo mota hauek sortu gabe, egoteko era bakarra janaria ematea da. Horrela, Aitorrek, asteburua eten gabe jaten igarotzen du.

### *Gutxiezigizko zaintza*

Kasu honetan, tratu txarra ez da gehiegizko zaintzaren edo zaintza emateko era desegokiaren ondorioz eragiten, tratu txarra zaintzarik ez ematean datza. Era horretan, beharrezkoa izan eta ematen ez den zaintza horrek, kaltea sorrarazten du. Horrela ez egitearen ondoriozko tratu txarren lehen mailari ekingo diogu. Kasu hauetan zaintza eskaintzen da,

eta berez desegokia ez den arren, ez da nahikoa. Esaterako, urritasuna duen pertsona bizitzaren arlo ezberdinen inguruan era egokian zaintzen da, baina osasun jarraipena guztiz alde batera utzi denez, saihestu zitezkeen eritasunak agertzeko bidea zabalik uzten da.

Maialen 30 urte dituen neska bat da, adimen urritasuna du eta hortz-aginekin arazoak izaten ditu. Hainbat infekzio jasan ditu eta dentistak, aukerarik egokiena, anestesia osoa erabilita, hortz agin guztiak ateratzea dela gomendatu du eta ebakuntza ostean egoitzara bueltatzen denerako jaki bigunez osatutako dieta eskatu du. Familiari protesiarren aukera ez du aintzat hartzen («badakizu, mutiko hauek, horrelakoekin ez dira gu moduan moldatzen, seguru bigarren egunerako galdu egingo lukeela»). Egoitzako langileek, familiari, adimen urritasuna duten pertsonekin (protesiak ezartzen ere) eskarmentua duen beste dentista batengana jotzea proposatu diote, baina egoera horrek eragiten dituen ondorio kaltegarriak argi adierazi arren, (nutrizio mailan, gustuko jakiak aukeratzeko orduan sortutako mugak...) familiak ez dio gai horri garrantzirik ematen, familia oso uzkur azaltzen da.

### *Arduragabekeria*

Tratu txar mota hau gutxiegi zko zaintzatik oso hurbil dago eta sarritan zaila da biak ezberdintzea. Baina aipatutako azken motan nolabaiteko gabezia baldin bazegoen, kasu honetan egiten dena ere gaizki egiten da. Zerbait prestutasunez edo diligenziaz egitea (*diligerek* maitatzea esan nahi du, kasu honetan, egiten dena maitatzea esan nahi du) oso kontuan izaten saiatu behar den jardunbide onaren bideari jarraituz, zerbait hori gogoz eta arretaz egitea esan nahi baldin badu, zerbait hori arduragabekeriak egitea guztiz kontrakoa da. Unean uneko arduragabekeriak edo arduragabekeria arinak ez dira zertan tratu txartzat hartu behar, izan ere gizakiok ditugun mugek ondorio hutsak izan ditezke. Baina arduragabekeriak esanguratsuak dira, hain zuzen. Pentsa, esaterako, urritasuna duten pertsonen eskainitako elikadura, zaintzaren ardura duten pertsonen erosotasun hutsagatik, sistematikoki zabarra denean eta horrek bere osasunean eragin larriak sortzen dituen kasuan. Dena den, adi ibili beharko da, arduragabekeriak, profesionalen prestakuntza faltaren ondorio diren kasuetan; edo senitartekoen gainkarga edo prestakuntza ezaren ondorio diren kasuetan; edo zaintza eredu desegokiak burutzen diren kasuetan ere, besteak beste, zaindutako pertsona ezberdinek ez dituzten antzekotasunak dituztela suposatzen delako.

Enrique 35 urte dituen gaztea da. Eguneko Jarduera Egoitza batera joaten da. Enriquek ez ditu gustuko Egoitzan eskaintzen zaizkion jarduerak eta besaulkiren bat bilatu eta lo geratzeko joera du. Egoitzako begiraleak, Enriqueri zerbait eskatzeko orduan gatazkak saihesteko, besaulkian lo egiten uzten dio. Enriquek gauzez lo egiteko zailtasunak ditu eta familiak sendagilearengana jo du gauzez lo egin ahal izateko Enriqueri sendagairen bat eman diezaion.

### *Utzikeria*

Egin behar dena ez egiteagatik eragiten den tratu txar erarik nabarmena da. Zaintzeko ardurak duzun pertsona, bera bere buruaz arduratu ezin daitekeen egoeran, bere airera uzten da eta horren ondorioz eragindako kalteak nabarmenak dira. Hau gertatzen da, esaterako, adimen urritasuna duten pertsonak egoerari aurre egiteko baliabiderik ez baliabiderik ez daukatenean, denbora luzez etxe batean giltzapetuta uzten direnean.

Raulek erdi mailako adimen urritasuna du eta ikusmen urritasuna ere badu. Bere amarekin eta beste lau neba arrebeekin bizi da. Amaren baliabide ekonomikoak urriak dira. Goizean goizetik etxetik irteten da lanera joateko. Raul, inongo zaintzarik gabe, etxean ordu luzez egoten da. Ez da inongo zerbitzuetara joaten. Urteak dira zereginik gabe dagoela.

Luz adimen urritasuna duen emakumea da, 8 urtetik hona Osasun Mentaletik arreta jasotzen du. Bere nebaren heriotza dela eta, psikiatria zerbitzuan ospitaleratzeak egiten hasi da. Inguruari oso egokitzapen egokia duen arren eta erietxeko jardueretan ere era egokian parte hartzen duen arren, berak ez du bere sintometan hobekuntza subjektiborik nabaritzen. Hori dela eta, sendagaiak emateko era alda diezaioten sendagile psikiatren arreta etengabe ari da eskatzen, egun hartzen duenak ez diolako onik egiten. Bere eskakizunei arretarik eskaintzen ez zaienean, haserretu eta osasun langileei aurre egiten die. Jarrera horrek, profesionalek saiheste portaerak izatea bultzatzen du. Asteak dira, Luz-ek bere psikiatrarekin saiorik ez daukala. (Ordutik, ez da bere eskakizunen jarraipenik burutzen, ez eta bere kexa psikosomatikoei arretarik eskaintzen.)

### *Engainua eta manipulazioa*

Era hau aipatzen dugunean, tratu txarra ekintza beraren baitan dagoen motan pentsatzen ari gara. Tratu txar mota honen ezaugarria,

tratu txarra eragiten den unean, eta sarritan, biktima ez da inoiz tratu txarririk jasotzen duenik jabetzen. Tresna soiltzat hartua izan da, horretaz konturatu ere egin gabe. Biktimak duen harremana baikorra dela uste duen arren, benetan erabilia, manipulatu da. Tratu txarrak eragiten dituen pertsona ekimena diseinatzen ari denean ere, tratu txarra ekimenaren baitan dago eta ekimen hori desbideratua izan denez, berezko dituen helburuak lortzeari uko egin dio. Biktima, engainuaz jabetzera heltzen denean bakarrik konturatuko da tratu txarrak jasan dituela; horrek tratu txarrak bere buruarengan izan duen eragina areagotu egingo duelarik. Pentsa dezagun, adimen urritasuna duten pertsonenganako sexu gehiegikeri era ezberdinen aurrean, ustezko maitasun, goxotasun, eta antzeko sentimenduen itzalpean era eraginkorrean ezkutatu izan diren kasu ezberdinetan.

Markel Asperger Sindromea duen 14 urteko umea da. Adiskide askorik izan ez, eta bere gurasoek beti lagun gehiago egitera bultzatzen dute. Ikastetxean lau mutikok egunero hamaitakoa emanez gero eurekin egoten utziko diotela esan diote.

Pedro, adimen urritasuna duen 45 urteko pertsona da, autonomi maila egokia du. Bere Egoitzara, komunikatzeko muga garrantzitsuak dituen 20 urteko Joseba heldu berri da. Diruaren balioa ez du ezagutzen eta Pedrok bere burua eskaini du egunero makinatik kafe bat ateratzen laguntzeko. Josebak bere burua babestuta sentitzen du, mundu guztiari egunero «Pedro Laguna» duela esaten dio. Egun batean, Pedroren arrebak, Josebak tailerrean normalean hartzen ohi dituen kafe biak hartzeko adina diru eramaten zuen galdeztzean (egunero euro bat ematen zioten), begiraleek, Pedro Josebak hartu behar zuen bigarren kafeari zegokion diruarekin geratzen zela atzeman zuten.

### *Tratu txarra jasotzeko mehatxu sinesgarria*

Oraingoan tratu txarrak jasaten dituen pertsona ere tratu txarra eragiteko ekimenaz jabetzen da. Oraindik ekintzetan ez, hitzetan baino, testuinguru jakin batzuetan kaltea egiteko mehatxu gisa, mehatxupean dagoenarentzat sinesgarria, gertatzeko modukoa, izan dadin. Arrazoiak bata zein bestea izan daiteke: mehatxua egiten duenaren nahiaren arabera, mehatxua jasaten duenak zerbait egin dezan edo egin ez dezan, mendekotasuna adierazi diezaion, etab. Adimen urritasuna duen pertsona indartsu batek, adimen urritasuna duen beste pertsona batek jasotzen duen diru saria era sistematikoan berari ematen ez badio gerta daitekeen kasua da.

Hilabeteak dira Laura lankide batek igorritako mehatxuzko eta irainezko SMSak jasotzen ari dela. Guztia, honen gustuko mutil batekin harreman bat izateari ekin zionean hasi zen. Era bat itota sentitzen da. Ez du lanera joaterik nahi, mehatxuak beste zerbaiz izatera iritsiko ote diren beldur delako.

### *Berariazko tratu txar ekintza*

Oraingoan mehatxutik ekintzara igarotzen da. Berariazko ekintza, ekintza bera da: jipoi moduan ematen den tratu txarra, sexu harremanak izatera derrigortzean ematen dena, bihozgabeko zigorra ezartzen denean ematen dena, etab. Baina, neurri handi batean, hitza bera ere, tratu txar ekintza izan daiteke, kasu honetan jatorri psikologikoa duen berariazko tratu txarra. Pentsa dezagun adimen urritasuna duen pertsona batenganako irakasleak jendaurrean burututako umilazio sistematikoak pertsona horrengan eragin dezakeen kaltean. Ekintzaren esanahia era zabalean ulertuz gero, mehatxuarekin dituen mugak ezabatzea errazagoa da, izan ere, mehatxuak indarra eta jasaten duenarentzat sinesgarritasuna duenean, kalte psikologiko nabarmenak eragiten ditu. Dena den, ezberdintasuna argitzea fenomeno bakoitzari dagokion arreta berezia eskaini ahal izateko lagungarria izan daiteke.

Josuk bere adiskide bat eraso du, eta besoan zauri bat eragin dio. Amari gertaeraren berri ematerakoan, bere semearekin haserretu egiten da: «Kokoteraino nago! Seme honekin, nireak egin du! Ongi portatzeko esan arren, baina hala ere... astakirten hutsa da. Etxera heltzerakoan, ikusiko du horrek!» Hurrengo egunean, amak semea eguna zelan igarotzen ari den jakiteko hots egiten du, eta esan digu, aurreko egunean, etxera heltzean, bi belarrondoko eman zizkiola, lagunak jasan duena senti dezan.

Leyre 25 urte dituen gaztea da. Tutoretza peko etxe batean bizi da eta bere eguneroko autonomi pertsonal jardueran batzuetan laguntza behar du. Eduardo gauetz aritzen den etxeko begirale bat da. Eduardok, goizero dutxatzeko orduan Leyreri laguntzen dionean Leyrek gustukoak ez dituen zirriak egiten dizkio. Leyrek negar egiten du eta gaueko begiraleak etxera iristen direnean azalpenak ematerakoan, eguneko begiraleak Leyrek esnatze txarra duela eta altxatzea ez zaiola gustatzen adierazten du.

Miren autismoa duen 28 urteko gaztea da. Eguneko jarduera Egoitza batera joaten da. Zarata hotsenganako sentiberatasun berezia du. Zakurren zaunkak izua eragiten diote eta bazkaltzeko orduan jantokian sortzen den zarata hotsek bereziki izorratzen dute. Hori dela eta, bazkaltzeko ordua iristen denean, jantokian ez sartzen eta taile-



rrean geratzen saiatzen da. Iñaki, Mirenen begiralea da. Bere atsedean ordua bere taldeko kideak bazkaldu ostean dauka. Miren jantokira sartzeko orduan atzeratzen bada, berak atsedena hartzeko denbora gutxiago izango duenez, ordua iristerakoan Iñaki zakurren zaunken zaratak imitatuz sartzen da tailerlean; horrela Miren jantokira ziztu biziaren joaten da.

## 5. **Tratu ez duinaren eta tratu txarren bariazioak, intenzionaltasunaren eta erantzukizunaren arabera**

Aurreko atalean, kaltea norik eragiten duen oinarritzat hartuta, jokaera objektiboaren araberrako tratu txarren tipologia burutu dugu. Hala ere, pertsona baten balorazio etikoa burutzeko orduan ekintza beraren edukiaz gain, besteak beste, testuingurua, ondorioak eta egilea bultzatu duen intenzionaltasuna bezalako kontuak aintzat hartu behar dira. Subjektuari ikuspuntua kontuan hartuta (oraingoan bere izaerari forma ematen dioten bertuteak alde batera utziz), erabakigarria da aipatutako intenzionaltasuna, ongia eta gaizkiaren arteko ezberdintasuna egiteko ahalmena barne. Hori dela eta, tratu ez duinaren tipologia egiteari ekingo diogu, objektiboa ez ezik subjektiboa den aldaera hau ere kontuan hartuta.

Orokortasunetik ikusita, subjektuak txartzat hartzen duen zerbait intenzionaltasunez egiten denean edo ontzat ulertzen duen zerbait intenzionaltasunez ez egitea indarrez ezartzen zaionean, erru morala dagoela esan daiteke; intenzionaltasuna benetakoa baldin bada —subjektuak aukera izanez gero— gaizki egindako ekintza burutuko da edo ongi egindako ekintza ez da burutuko. Baina oinarritzko ikuspegi hori ere, tratu txarren ikuspuntutik ikusteko orduan, hainbat aldaeren menpe azaltzen zaigu.

*Erantzukizunik gabeko ezjakintasuna: tratu txarra ematea (tratu txar objektiboa, baina ez subjektiboa)*

Pertsona batek (ekintza bera egiteagatik edo laguntza ez emateagatik) beste bateri objektiboki bere duintasuna zapuzten duen tratu txarrak eragiten dizkio, baina testuingurua horrelakoa da: gaizki jokatzeko ari denaz ez da jabetzen, egiten duena ez duelako txartzat hartzen; gainera gaizki jokatzeko honen inguruko ez jakintasunaren erantzulea ere ez da, bere ustez, ongi zer dagoen eta gaizki zer dagoen desberdintzeko, eskuragarri izan duen guztia, zentzuz martxan jarri duelako. Moralaren ikuspegitik, ezin zaio errurik bota. Hori dela eta, horrelako ekintzaile

baten ikuspegitik, tratu txarra aipatu beharreen, jokaera okerra edo ez duina aipatu beharra dugu. Ezertan hasi aurretik baina, horrelako egoeraren aurrean, objektiboki eragindako tratu txarra egon badagoez, biktima ere badago, eta honi ere, neurri konpontzaileak erabilia, arreta eskaini behar zaio; ekintzailearen ezjakintasunak inolaz ere ez du biktimarenganako bete beharra arintzen (biktimari egin beharreko arreta, kasu guztietan burutu behar da, noski, jarraian aipatuko ditugunetan ere). Bigarren maila batean, tratu txarrak eragiten dituen pertsonaren ezjakintasunaren oinarrian, bere prestakuntza prozesuan eragina izan duten pertsona edo erakundeen aldetik, neurri bateko edo besteko erantzukizun peko akatsik eman den argitu behar da. Hirugarren maila batean, tratu txarrak eragin dituen pertsonarekin kontzientziazio moralera zuzendutako lana egin behar da, behar ez den errudun sentimendurik gabe, baina egin duenaz jabetu behar da eta bere jokaera zuzendu behar du. Testuinguru honetan, sexualitate arloan, esaterako, pertsonarekiko tratu txarrak eragiten dituzten urritasuna duten pertsonak aurki ditzakegu. Eta baita urritasuna duten pertsonak zaintzeko ardua duten senideak edota profesionalak ere, oker bada ere, haienganako arreta egokia gehiegizko zaintza eskaintzea dela uste dutenean.

*Erantzukizuna duen ezjakintasuna: Tratu txarrak eragitea  
(tratu txar objektiboa eta subjektiboa)*

Kasu honetan ere tratu txarra era objektiboan eragiten da eta ez dago gaizki jokatu izatearen kontzientziarik, baina ezjakintasun honekiko erantzukizuna badago. Hau gertatzen da, norbaitek, urritasuna duten pertsonen ardua izan arren, bete beharreko ardurak era egokian betetzeko beharrezkoa duen prestakuntza jasotzeari nahita uko egiten dionean. Eta horrek, izatez, goian aipatutako ekintzak sorrarazten ditu. Horrelakoan, erantzukizun moralak duten tratu txarrez mintza gaitezke. Horrelako aukeren aurrean, prestakuntza behararen inguruko kontzientziazio lana egin beharra azpimarratu behar da, neurotiko jartzera iritsi gabe, noski: bada-kigu erabateko prestakuntza inoiz ez dugula jasoko, prestakuntza jasotzeko ahalegin zentzuduna gitea besterik ezin da eskatu.

*Ez jakintasun-eza eta intenzionaltasuna: tratu txarrak eragitea  
(bai objektiboki, bai subjektiboki)*

Horrelakoetan erantzukizun moralak erabatekoa da. Eta tratu txarra ere, ekintzailearen ikuspegitik, erabatekoa da. Subjektuak badauki bere

jarrerak tratu txarrak eragitea suposatzen duela, eta hala ere, berarentzat interesgarria bihurtzen duen arrazoiren bat dela eta, tratu txarra eragitea nahi du. Horrelakoak gertatzen dira, lehenago aipatu ditugun tratu txar moduko aldaeraren bat mahai gainean dagoela jakinda, begi aurrean izanda, onartzen direnean.

*Tratu txar ezaguna onartzea: tratu txarrari era pasiboan laguntzea eta erantzukizun subjektiboa*

Tratu txarrak eragiten direla argi eta garbi jakinda ere, eta horiek saihesteko eskura dagoena egiten ez denean ematen den kasua da. Parte ez hartzeak, tratu txarrak eragiten dituenaren utzikeriazko laguntzaile izatea suposatzen du; utzikeriazko zentzua du, ez ezer ez delako gertatzen, ezer ez duelako egiten baizik. Parte ez hartzeak sortzen dituen ondorioen erantzulea da.

*Ez jakintasun eza baina saihesteko ezintasuna: gaizki tratatzea (tratu txarra, objektiboa bai, baina subjektiboa ez)*

Kasu honetan, tratu ez duina, zerbait ez delako egiten eragiten da. Pertsona horretaz jabetzen da, baina, era berean, bere testuingurua dela eta egin beharreko hori egitea ezinezkoa zaio eta ezin du ezer egin hori saihesteko. Tratu ez duina egon badago, baina subjektuaren ikuspegitik ez da tratu txarrik eragiten. Horrelakoak gertatzen dira, esaterako, adindun pertsona batek urritasuna duen gorpuzkera handiko pertsona baten ardura duenean, eskatutako laguntzak ematen ez zaizkionean, zaintzak gutxitu beharrean ikusten du bere burua; horrela, ikuspuntu objektibotik tratu txarrak eragitea suposatzen duten ondorio kaltegarriak eragiten ditu. Kasu honetan, laguntza eskaintzeko beharra duten erakunde eta pertsonenek izango lukete erantzukizuna.

## 6. **Tratu txarrak ematen diren tokiak**

Tratu txarrak pertsona ibili edo ari daitekeen edozein tokitan eman daitezke. Hala ere, ematen den testuinguruaren arabera ezaugarri ezberdinak izan ditzakeela aipatu beharra dago, bai tratu txar mota ezberdinen ikuspuntutik, bai tratu txarrak eragiten dituen ondorio eta erantzukizunen ikuspuntutik. Zentzu horretan, ikuspegi orokor batetik

izan arren, tratu txarrak eman daitezkeen eremu edo testuinguru ezberdinak aipatzea komeni da.

Idatzi honetan, oinarrizko erreferentzia gisa pertsonak parte hartzen duten tokiak hartzen ditugun arren, aipatu beharra dago ere, «ingurua» kontzeptua bera ere, berez nahiko konplexua dela. Izan ere, inguru hurbiletik haratago doa, inguru ezberdinen arteko loturen eragina ere badu —mesosistema delakoa— eta eurengan eragina duten beste inguru zabalagoen eragina ere badu —exosistema eta makrosistema— (Brofenbrenner, 1987). Zentzu horretan, tratu txarrak ematen diren egoerak aztertzeko orduan, garrantzitsua da, inguru zehatza ez ezik, eta behar bada ingurune hau bezain begi bistakoak ez izan arren, beste ingurune batzuen eraginak eta erantzukizunak ere kontuan hartzea. Horrek, bai tratu txarraren gaineko erantzukizunak ezartzeko orduan bai saihestera eta kaltea konpontzera bideratutako ekintzak martxan ipintzeko orduan, bere biziko garrantzia du. Buruan daukagu, esaterako, esku hartzaile ezberdinen artean —familia, zerbitzuak, profesionalen artekoak...— harremanak adostasunik gabekoak direnean, edota erakunde zehatz batek jarraitzen dituen ildo politikoek, tratu txarrak eman ahal izateko ingurua sortzen laguntzen dutenean, zuzenean edo zeharka.

Tratu txarrak eman daitezkeen tokiak zehazten laguntzeko, mugak dituen arren, aldaera horiek kontuan hartzea lagungarri suerta daki-guke: a) toki pribatua ala agerikoa den; b) erakunde menpeko ageriko toki den ala jendea sar daitezkeen toki fisikoa zein birtuala den. Aukera ezberdinen arteko gurutzaketak burutu eta gero, ondoren aipatzen dugun urritasuna duten pertsonenganako tratu txarrak eman daitezkeen toki ezberdinen sailkapena aurkezten dugu:

### *Erakunde aldetik arreta eskaintzen duten ageriko tokiak*

Orokorrean populazio guztiarentzat, edo zehazkiago, populazio talde zehatzagoen behar ezberdinei, esaterako, adimen urritasuna duten pertsonenei, arreta eskaintzeko sortu edo balio duten Erakunde publikoek antolatu eta kudeatutako giza testuinguruak dira.

Horrelako toki batzuetan, ongi izatera bideraturiko edo jende guztiaren mesederako izan beharko diren legeak eta jendearenganako politika jarduerak sortzen dira (makrosistemak): toki hauek tratu txarrekoak duten erantzukizuna, aipatutako erakundeek ekimenak era egokian burutu eta martxan era egokian jartzean datza (esaterako, beharrezkoak diren aurrekontuak bermatuz). Gure kasurako, irizpide horri jarraituz gero, garapen edo adimen urritasuna duten pertsonengan, hiritar talde

osoaren partaide diren heinean, eragina duten legeak eta politika jarduerak lantzen diren tokiak ere kontuan hartu behar dira.

Ageriko beste toki batzuetan, aipatutako lege eta politika jarduerak eraginkorrak izan daitezten, hiritarrei ematen zaien beharrezko arreta burokratikoak burutzen da. Administrazio publikoko langileek era inpartzialean, eraginkorrean, tratua era zuzenean eta eskaintzen zaion pertsonari egokiturik erabiliz, etab... burutu behar dute arreta. Urritasuna duten pertsonen eragindako tratu txarra, irizpide etiko hauek jarraitu ez eta bere duintasunaren kontrako umilazioa ematen denean ere eman daiteke.

Bukatzeko, badaude populazio osoari —gure kasuan, urritasuna duten pertsonak, barne— edo, populazio osoaren zati bateri —gure kasuan, pertsona hauei ere— (mesosistema) zuzendutako hainbat zerbitzu era zehatzagoan eskaintzen diren bestelako ageriko tokiak ere. Toki hauetan, tratu txarrak eman daitezkeen uneak eta erak zehazki mugatzen dira, pertsonen arteko ohiko harreman orokorrak eta elkartrukatzeko ekintza jarraituak ematen dira (profesionalak, boluntarioak, urritasuna duten pertsonak eta berdinen artekoak). Horien artean, ondoko hauek aipatuko ditugu:

- Eskola edo hezkuntza zerbitzuak, lanbide eta giza-lanbide heziketa barne. Toki hau tratu txarrak aurrez atzemateko toki bereziki nabarmena da. Hainbat ikerketa lanek adierazi dutenez, hezkuntza beharizan bereziak dituzten ikasleak biktima bihurtzeko aukera gehiago dituzte. Eskola jazarpenak, haur edo gaztearengan, gelarengan, ikastetxearengan eta familiarengan ere nabarmenki eragiten du.
- Administrazio publikoko Osasun Zerbitzuak.
- Tratu txarrak jazarpen edota bereizkeria gisa ager daitezkeen titulartasun publikoko lan Egoitzak.
- Besteak beste ondoko titulartasun publikoa duten gizarte zerbitzu orokor edo bereziak: arreta goiztiarra, eguneko arreta, lanbidea, etxebizitza eta egoitzak, aisialdiari laguntza, zaindaritza, laguntzen koordinazio eta dinamizazio zerbitzuak eskaintzen dituzten tokiak.

### *Elkarbizitzarako toki pribatuak*

Familiak, edo pertsonen arteko subjektuen arteko harreman loturek, agintzen duten tokiak dira. Agintzen duten harreman motak izan arren, aipatu beharra dago: orokorrean, arreta eskaintzeko araututako ekime-

nen menpe ere badaudela (propio eurenak edota bestelako erakundeen laguntzarekin); eta harreman hauetan beti publikotasunari lotura duen zerbait dagoela, kideen arteko harremanetan zuzenbidezko betebeharrak —gure kasuan tratu txarrak ez ematekoa—, bestelako tokietan bezain besteko indarrarekin eragiten dutelako. Ondoko tokiak bereiz ditzakegu:

- Jatorriz, adimen urritasuna duen pertsona parte den familia. Familia da, alde handiz gainera, edozein pertsonarentzat erreferentziatzeko testuingururik esanguratsuen. Familia, hornitzaile eta gizarteratzaile funtzioak bete behar dituen eremua da, eta berau osatzen duen kideentzat segurtasunerako, garapen psikologiko eta sozio-emozionalaren segurtasunerako oinarria bihurtu behar du. Familia, beraz, bestea «zaintzearen artea» beste ezeren gainetik dagoen konfiantzan oinarritzen den eremu pribatua da. Horrek, berez, familia batasunarekiko mendekotasun eta zaurgarritasun handiagoa izatea suposatzen du. Harremanen intentsitate handiak baldintzatutako eremua da, izan ere, sarri denbora gehien egoten den eremua ere badelako. Baldintza hauek, AUDPeK behar dituen laguntzak jasotzeko orduan, familiako bizitzaren zikloarekin edo bestelako kanpoko eskakizunekin lotutako aldaketek sortutako estres maila areagotu dezakete.
- Urritasuna duen pertsonak sor dezakeen familia (edo bikote harreman egonkorra) Bikotearekin bidezka gizakiari berez dagokion ezaugarri bat da. Pertsona orok behar afektiboak asetzeko baliagarria zaion bizitzarako barneko proiektua garatzeko aukera du. Jatorrizko familian gertatzen den bezala, bikote harreman egonkor bat eratzen denean arau eta balio pertsonalek gidatzen duten pribatutasunari eskainitako eremua osatzen da, beti ere, tratu txarrak emateari edo hauek bultzatzeari erraztasunik eskainiko ez dioten arauen menpe izan beharko lukeena.
- Urritasuna duten pertsonen artean adiskidetasunean oinarrituta eratzen doazen taldeak. Pertsona orok harremanetan elkarrekin jartzeko parekoak behar ditu, hauen bitartez talde bateko partaide dela eta pertsona baloratua sentitzeko. Hala ere, talde eremu horiek, taldeko kideren batek —gure kasuan, urritasuna duen pertsona batek— beste taldekideen aldetik, tratu txarrak izatera iritsi daitezkeen presioak jasateko unea ere izan daiteke. Hori dela eta, gatazkei eta elkarrekintzei irtenbide egokia emateko giza trebetasun garrantzitsuen erakustaldi berezia beharko da, eta, beste aldetik, parekoen artean sortutako taldeetan sortzen diren dinamika batzuen babespean eman daitezkeen tratu txarren aurrean ere, arreta berezia izan behar da.

*Espazio publiko irekiak*

Mundu guztia bertan sartu eta dauden pertsonen arteko harremanak sortzeko aukera duten tokiak dira. Elkarren arteko harreman hauek bat batekoak, noiz behinkakoak... izan ohi dira. Ondorengo tokiak izan daitezke:

- Sartzea librea duten toki fisikoak, kalea, erosketak egiteko, jolaserako, garraiorako, eta abarrerako tokiak. Toki hauetan sortzen diren harremanek duten bat-batekotasuna bera, tokia hauetan ibiltzen diren urritasuna duten pertsonenganako tratu txarren eragilea izan daiteke. Toki horietan ematen diren tratu txarrak, toki horien ezaugarriak baldintzatuta ematen direnez, burutu beharreko arretak ere baldintza horiek izan beharko ditu kontuan.
- Sartzea libre duten eremu birtualak. Interneti buruz ari gara, noski. Eremu horiei ere, adimen urritasuna duten pertsonak euren artean harremanetan jartzen direnean, *ciberbullyinga* bezalako jazarpen era berriak eman ez daitezen beharrezko arreta eskaini behar zaie.

**7. Tratu txarraren agenteak**

Zehaztu ditugun toki ezberdinetan, zehaztea komenigarria den tratu txarrak eragin ditzaketen agente ezberdinak daude, izan ere, baikoitzak tratu txarraren norainokoa eta izaera baldintzatzen duten bezeko ezaugarriak ditu. Alde batetik, —agente kolektiboak direnean, batez ere— agenteak eta tokiak batak bestea gordetzen dutelako, horregatik aipatzen dugu berriz hemen lehen ere esan duguna. Horrela berriz aipatzen diogunari garrantzia handiagoa emango diogulakoan. Hemen doakizue adimen eta garapen urritasuna duten pertsonen tratu txarrak eman diezaieketen agenteen zerrenda bat:

- Publikoa, pribatua edo gizarte erakundea.
- Profesionala.
- Boluntarioa.
- Adimen urritasuna duen pertsonaren senide bat.
- Adimen urritasuna duen pertsonarekin ibiltzen den pareko taldekide bat (eskolakoa, koadrilakoa, jolasetakoa, etab.).
- Adimen urritasuna duen pertsona bat.
- Adimen urritasuna duen pertsonarekin harremanetan bat batean jartzen diren pertsonak, sartzea libre den eremu fisiko edo birtualean harremanetan jartzen direnak, kasurako.

Egitez norbaitenganako tratu txarrak ematen dituen pertsona batek, horren duintasuna era objektiboan kolpatzen du. Kolpatze hori nahita izanez gero, era subjektiboan ere kolpatzen du. Horrelakorik gerta ez dadin, bere sasoian aipatutako bioetikatik jasotako oinarri etikoak era zuzenean hartu behar dira kontuan. Eragile guztiek lau oinarriei arreta eskaini behar diete. Dena den, eragile bakoitzak, dagokion ikuspuntutik adi egon behar lukeela gogoratzea ez zaigu gaizki etorriko. Hori dela eta:

- Erakundeetako eragileei, bermatu behar duten justiziaren ikuspegia zaintzea dagokie. Hortik hasita, pertsonen autonomiari emango zaion arreta eta eskaintzen zaien ongintzarako bidea burutzeko ardua izango dute.
- Profesionalek, boluntarioek eta gurasoek ongintzaren oinarria berez izango dute kontuan, baina aurrera eramateko orduan urritasuna duen pertsonaren autonomia zaindu eta berarekin batera joan behar dute eta justizi orokorrak eskatzen dituen baldintzak ere bete behar dituzte.
- Autonomiaz jokatzeko urritasuna duten pertsonen dagokie, baina eskaintzen zaien ongintza jarduerak burutzen era kontzientean lagunduz eta justiziaren kontra jotzen duten jarreraren aurrean beren buruari mugak jarri.
- Eragile guztiek, baita toki fisiko edo birtualetan egoten diren unean unekoek ere, oinarriko erreferentziako esparrutzat duintasunaren kontra jotzen duten jokaerak saihestea behartzen duen ez gaizkigintzaren oinarria hartu behar dute.

## 8. Ondorio gisa

Tratu txarren inguruko kontzeptualizazio orokor hau egiterakoan, tipologia ezberdinak aurkeztean, errealtate konplexu honetan murgiltzen lagun diezagukeen «mapa» antzeko bat erakusten saiatu gara, horrela errealtate hau osotasunean eta zehaztasun handiagoz aurreikusi eta aurre egiteko orduan bideak argiago izango ditugulakoan. Hala ere, esandako guztiak zentzua hartzen du, argitzen laguntzeko aipatu ditugun adibideez gain, agertzen duten konplexutasun eta bizipen guztiekin batera tratu txarrak ematen diren kasu zehatzak azterterako orduan. Hau da hurrengo kapituluan egin behar dugun lana. Ez dugu aipatu barik utzi nahi, bigarren eta hirugarren kapituluen artean ematen den zirkularitate positibo modukoa: azken finean, kontzeptualizazio hori, tratu txarren inguruan jaso diren esperientziak kontuan hartzeak bultzatzeko orduan izan den bezain argigarria izango dela espero dugu.



## 2. kapitulua. Tratu txarren inguruko gogoeta eta eztabaida praktikoa. Kasuen azterketa

Garapen eta adimen urritasuna duten pertsonenganako tratu ez duinen errealitatea, aurrez aurkeztutako kontzeptualizazioan ikusten den legez konplexua da eta hainbat berezitasunekin agertzen zaigu. Aipatutako konplexutasuna areagotu egiten da hainbat pertsonen bizi izandako gertaeraren berri ematerakoan euren autonomia mugak direla eta aurkitzen dituzten zailtasunen ondorioz. Aipatutako guztiak, ekin-tza batek edo beharrezko arreta ez eskaintzeak (tratu txarrak, hain zuzen) benetako kaltea eragin duen edota, kaltea eman duten pertsona edo erakunde batek erantzukizun moralik ote duten noiz esan edo ez esan zaildu egiten du.

Aipatutako zailtasunaren ondorioz, garapen eta adimen urritasuna duten pertsonen biziaren kontrako erasoak burutzen direnean, berriz gerta ez daitezzen edo biktimei behar bezalako arreta emateko beharrezkoak diren egin beharrezkoak nahikotasunez ez direla ematen atzeman dugu. Horretaz gain, garapen eta adimen urritasuna duten pertsonenganako kalteak eragiten dituzten egoerei aurre hartzea ere saihesten du.

Eragindako kaltea eta erantzukizuna zehazteko zailtasunak aurkitu ditugun hainbat egoera eta kasuen inguruan hausnartu dugu, hauek argitzen lagundu eta ondorengo esku edota aurre hartzea errazteko. Hausnarketa eta gogoeta prozesu bat burutu ondoren aurreko kapituluan aurkeztutako kontzeptualizazio etikoa aintzat hartzen saiatu gara. Behaketa lanean parte hartzen duten pertsonen balorazioak ere eragina duenez, emaitza ezin da bide bakarrekoa izan, eta epaia ere ezin da guztiz egia izan. Gure helburua ez da ekintza burutu duten perso-

nek burututako egitearen edo ez egitearen inguruan epai moralak idaztea, hauek egitera bultzatzen dituzten arrazoiaren azterketa etikoaren egiten laguntzea baizik, era horretan egoera horien aurrean esku hartzea nola bideratu argitzen lagun dezaketen bide batzuk erakustea nahi dugu. Gure xedea argitze lanetan laguntzea, esku hartzeko aukera berriak eskaintzea eta posible izanez gero, antzerakoak berriz gertatzea saihestea da.

Ondorengo taulan, aurreko kapituluko hausnarketan oinarrituta, egoerak eta kasuak aztertzeko erabiliko ditugun ikuspegiak eta kontzeptuak era sintetikoak jasotzen dira:

Eragilearen arabera	Jokaeraren arabera	Intentzioaren arabera	Kaltearen arabera	Tokiaren arabera
Erakundea	Gehiegizko zaintza	Erantzukizunik gabeko ez jakintasuna	Fisikoa	Erakundeek arreta eskaintzen duten ageriko tokiak
Profesionala	Gutxiegizko zaintza	Ez jakintasun eza eta saihesteko ezintasuna	Psikologikoa	
Boluntarioa	Zaintza desegokia	Erantzukizuna duen ez jakintasuna	Sexuala	Ageriko toki irekiak
Garapen eta adimen urritasuna duen pertsona	Arduragabekeria Utzikeria	Ezjakintasun eza eta utzikeriazko laguntza		Elkarbizitzarako toki pribatuak
Beste pertsona batzuk	Engainua eta manipulazioa Mehatxu sinesgarria Berriazko Ekintza	Ez jakintasun eza eta intenzionalitatea		

Ikusiko dugunez, egoera eta kasuen inguruan hausnartzerakoan, jokaera zehatz batek edo zaintza era egokian ez burutze batek edo esku hartze desegoki batek, garapen edo adimen urritasuna duen pertsona bati eragindako kaltean oinarritu gara. Aipatu dugun bezala, eragindako kaltearen erantzukizuna ez da beti eragin duen pertsonaren edo sorrarazi edo atzeman den erakunde edo instituzioaren ardura. Tratu txarra aipatzen dugunean, objektiboki tratu txarra dagoela (kaltea eragiten dela) eta subjektiboki, jokaera burutzerakoan edo ez saihestean erantzukizuna dagoela esan nahi dugu.

Jakin badakigu, garapen eta adimen urritasuna duen pertsonak kalteak jasaten dituzten hainbat egoeratan, deitoragarria izan arren, kaltearen erantzukizuna ezin dugula erakunde edo subjektu baten gainean ezarri, subjektuak kaltea saihesteko aukerarik ez duelako edo arlo horretan ez jakintsua denez, eragiten duen kalteaz ez delako jabetzen. Horrelako egoerak gero eta gutxiago gertatzeko bidea, dudarik gabe, adimen urritasuna duten pertsonenganako tratu ona sustatzea eta pertsona hauekin bizi direnei eman beharreko laguntza formal eta informalak handitzea da.

---

### **Maria egoitza batera lehenengoz iristen da**

Mariak 52 urte ditu. Bere amarekin bizi izan da beti orain arte, baina ama orain dela aste bete inguru hil da. Bere anaiak egoitza batera joan behar duela bizitzera erabaki du, bertara goizeko 10:30ak aldera iristen da egoitzan, urgentziatzko prozedurari jarraituz, tokia lortu dion gizarte langileak lagunduta.

Ez daki zenbat denboraz geratu beharko duen, tailerrean jarraitu ahal izango duen ezta etxera Tomiri (bere txakurrari) jaten ematera joateko aukerarik izango duen.

Esan dioten gauza bakarra, pertsona askoren izenak, eta etxean 5 egun bakarrik daramatzanez gero bainu bat hartu behar duela eta bere garbitasun maila ez dela ona izan da. Jantzi garbiak eman dizkiote, baina berak eta bere amak beti gonak eta soinekoak jantzi izan dituzten arren, galtzak eman dizkiote bakarrik.

Kasu honek Mariaren egoera islatzen du. Berarekin bizi izan den pertsonaren, bere amaren, galeraren ondoren, bere gogoz kontra egoitza batean sartu dute. Bere nebak eta parte hartu duten profesionalak egoitzan sartu ahal izateko tokia prestutasunez eta era eraginkorrean kudeatu dute. Behar bada, gehiegizko babes «paternalistak» Mariaren beharrak eta lehentasunak kontuan hartu gabe jokatzera bultzatu ditu.

Are gehiago, kasu honetan Mariak informatua izateko eta aurrez aurre jartzen zaion esku hartzeari bere onespena eman ahal izateko duen eskubidearen urraketa ere eman da. Gure gizarte zerbitzu sistemak, bitxia bada ere, ez dauka baliabiderik ez prozedurarik horrelakorik gerta ez dadin. Garapen eta adimen urritasuna duen pertsona bizi behar den tokiaren inguruko erabakia senitartekoak edo tutoretza dutenak hartu behar dutela «normaltzat» hartzen da, beraz gai honen inguruko informazioa eurei zuzenduta ematen da.

Jokaera honek, jakina, Mariaren eskubideak eta duintasuna urratzen ditu. Egoera baten aurrean burutzen den **arreta desegokia** iza-

teaz gain **arduragabekeria** ere bada, esku hartzea bere beharrei erantzuteko modukoa ez delako eta dolua ere ez duelako kontuan hartzen **kalte psikologiko** nabarmena eragiten duelako.

Egoera honen aurrean erantzukizunak aztertzeari ekiten badiogu, gizarte langileak, Mariaren nebaren urgentziako eskaria aintzat hartuz, tramitea eraginkortasunez kudeatu du eta baliabidea ahalik eta denbora gutxienean (aste betean) eskuratzea lortu du; horrez gain Maria «alde batera utzia» sentitu ez dadin, egunero egoitzaraino laguntzen dio; jokaera bi hauek profesionalki erakusten duen konpromisoaren isla dira; baina, Mariaren benetako beharren inguruko erantzukizuna alde batera utzi du eta erabakia hartzerakoan bere gaitasunak eta parte hartzeko eskubidea ez du kontuan hartu.

Kontzeptualizazioari jarraituz, **erantzukizuna duen jakintasan ezaz** ari gaitzke, izan ere, profesionalok, garapen eta adimen urritasuna duten pertsonak euren bizitza kudeatu ahal izateko duten autonomia eta parte hartzeko eskubidea bultzatu eta errespetatu behar dugula jakin behar dugu. Epailak egoitzan sartu behar duela baimendu arren edo Maria legalki ezgaitua izanagatik bere nebak edo tutoreak onespina eman arren, bere bizitzarako kaltegarria den egoera horrek sortutako kaltea gutxitzeko berari ere informazioa emateko dugun betebeharra ezin dugu alde batera utzi. Horregatik, egoitzara iristerakoan, funtzionatzeko erak ere egoera berriari egokituz, kontu berezia jarri beharko litzateke aipatutako kaltea ahal den neurrian saihesteko.

Eragile eta egoera guzti hauek kontuan hartuta, horrelako egoerak tratu txartzat hartzen ditugu. Argitzea komeni da, tratu txarra ez dela ematen batez ere egoitzan gogoz kontra sartzen delako (beti egoten ez den aukera sortu izan balitz, bere beharrei eta autonomia mailari egokitutako beste esku hartze bat burutu izanez gero saihestu beharko litzateke jokaera hori), egoitzan sartzerakoan jarraitutako prozeduraren ondorioz baizik (informaziorik eman gabe, bere egoera kontuan hartu gabe...), Mariaren behar zehatzei ez erantzuteaz gain bere eskubideak ere era larrian urratuz.

### *Laburbilduz:*

- Kaltea: Psikologikoa.
- Jokaera: Arduragabekeria eta zaintza desegokia.
- Erantzukizuna: Erantzukizuna duen jakintasan eza.
- Inplikaturiko subjektuak:
  - Instituzionala (gizarte zerbitzu sistema eta egoitza).

- Profesionala (oinarrizko gizarte langilea).
  - Familiarra (neba).
- Guneak: Erakundeen menpeko ageriko gunea eta elkarbizitzarako gune pribatua.

---

### Ignacio ez da bizikideak bezalakoa

Ignaciok ez ditu Jon, Pedro, Alfredo eta Gaizka gehiago jasaten. Bere jakatik giltzak kendu eta behin eta berriro kalean uzten dutela eta kokoteraino dago. Ignaciok zera pentsatzen du: «eurentzat barrengarria izango da, baina auzokideen aurrean tontotzat agertzeaz paso egiten dut». Horrez gain, batzuetan iraindu egiten dute eta beraz eta bere diruaz era desegokian baliatzen dira. Ignaciok hau ere adierazten du: Pedrok «mehatxu egin diola, larunbatetan eurekin Klubera badoa, gauetan ohean pixa egiten duela esango diela besteei».

Begiraleekin eta Fundazioarekin hitz egin du, baina ez diote sinesen. Jolasak direla eta bizitzan besteekin moldatzen ikasi behar duela diote, izan ere bera beti amarekin bizi izan denez, oso ohitura ezberdinak ditu. «Elkarrekin bizitzea, eurak egiten duten bezala, batak beste ta etengabe joka eta irainka aritzea bada, elkarrekin eurak bizi daitezela» da Ignaciok ematen duen erantzuna. Berarentzat harremanetan jartzeko era hori ez da normala eta ez du gustuko.

Kasu honek garapen eta adimen urritasuna duten pertsonen arteko harremanetan ere, parekoen arteko harremanetan aurki ditza-kegun botere edo jazarpen arazoak islatzen ditu. Jon, Pedro, Alfredo eta Gaizka artean, seguruenik, **baimendutako** eta **gizarteratutako** tratu txar edo tratu desegokia ematen den dinamika bat sortu da. Dinamika honek, Ignacio desberdina izaterakoan, indarra hartzen du. Berak ez du hori onartzen eta bere iritzia errespetatua izateko eskubidea du.

Parekoen arteko errespetua eta duintasuna sustatzeko, erasoan eta boterean oinarritutako dinamikak «normaltzat» ez ditugula hartu behar uste dugu, are gutxiago, aipatutako kasuan bezala **mehatxuak** (klubera joanez gero barrengarri uztea) eta **egitezko tratu txarrak emanez gero** (kalean utzi, iraindu eta bere diruaz baliatzea). Ignacio, bere izaera eta harremanetan jartzeko eraren ondorioz eta jasaten dituen mehatxuak direla eta **kalte psikologikoa**, **fisikoa** eta **ekonomikoa** pairatzen ari da.

Erakundea, Ignacioren kexei garrantzirik ez ematerakoan (sinesgarritasun eza) Ignacioren eskubideak zaindu eta babestu beharrean, utzieriaz jokutzen ari da. **Gutxi egizko zaintza emateagatik**, edo, tratu

txarrak eragiten duten jokaerak ezagutu eta gero kaltea era egokian ez delako baloratu eta ez delako saihestu, behar bada, **arduragabekeria-gatik, erakundeek emandako tratu txarra** dagoela esateraino iritsi gaitzke.

Erakundeek emandako tratu txar mota ezberdinak aurki ditzakegu. Erakundeek, berez tratu txarrak eragiten dituzten funtzionatzeko erak gutxitan izaten dituzte. Ematekotan, pertsona erabiltzaileengan beldurra sortarazten duten botere harremanak ezartzen direnean, edo, esaterako, egoitzaren araudiak edo funtzionatzeko erak sortutako dinamikak eraginda, eman daitezke. Funtzionatzeko era zuzena izan arren, pertsona batzuk beste batzuegan arriskuak edo zauriak sorrarazi eta hauek pairatu dituen pertsona behar bezala babesten ez den (esaterako, eten gabeko oihuak edo irainak onartzen direnean) kasua bezalakoak sarriago ematen dira. Horrelakoetan, erantzukizuna, ardura hartzeko gaitasuna eta jokaera aldatzeko aukera izanez gero, tratu txarra ematen duen pertsonarena ez ezik, **utzikeriagatik kaltea ematen laguntzen** duen erakundearena ere bada.

Kideen artean tratu txarrak ematen direnean biktimei berehalako arreta eskaintzea ez da beti erraza. Gure kasuan, esaterako, Ignacio etxebizitzatik atereaz gero, jendaurrean bere zaugarritasuna eta gutxiagotasuna agerian utzi daiteke, eta hori umilgarria gerta dakioke. Hori dela eta, aukera dagoenean, prebentziozko arreta eskaintzea gomendagarriagoa da, eta hori posible ez denean eta zerbait egin beharra dagoenean, burutzea proposatzen den jokaera, bere iritzia kontuan hartuta eta aukera egonez gero, bere oniritziarekin, burutu beharko litzateke.

### *Laburbilduz:*

— Kaltea: Psikologikoa eta ekonomikoa.

— Jokaera:

- Erakundeak eta profesionalek arduragabekeriak jokatu eta gutxiagotzeko arreta eskaintzea.
- Kideek egiazko mehatxua eta jokaera burutzea.

— Erantzukizuna:

- Erantzukizunik ez duen ezjakintasuna (taldearen tratu txar sozializatua).
- Erantzukizuna duen ezjakintasuna (erakundearen aldetik eta behar bada, Ignacioren kideren baten aldetik).

- Inplikaturiko subjektuak: Instituzionala, profesionala eta ki-deak.
- Guneak: Erakundeek kudeatutako ageriko gunea eta elkarbizitarako gune pribatua (tutelaturiko etxebizitza).

---

### Tommaso oso esku hartze gogorra jasaten ari da

Tommaso 13 urteko umea da, garuneko paralisia eta adimen urritasun larria du. Ikusteko ere arazo larriak ditu. Ez daki oinez ibiltzen eta hitz egiten.

Aitak ez du onartu semeak duen urritasuna eta hobera jotzeko dituen aukeren inguruan itxaropen handiegiak ditu. Gizarte zerbitzuei akuilatze tratamendu bat eskatu die, dagoeneko berak etxean akuilatze tratamendu hori kontratatuta dauka, eta bere asmoa tratamenduari eusteko laguntza ekonomikoa lortzea da.

Gizarte langilea etxera joan da Tommaso ezagutzera. Etxera joaten diren zainzaileek, aitak, Tommaso egunean hainbat alditan ikusmen, entzumen eta ukimen estimuluak erabilia negar eragiteraino akuilatze behartzen duela adierazi diote. Aitak egunero koltxoi baten gainean arrastaka ibiltzera derrigortzen du, baina mugitu ere ezin daitekeenez egin, urradurak ditu lepo oinarrian.

Garapen eta adimen urritasuna duten pertsonekin esku hartzerako orduan, mediku ikuspegi soila gaingiditu eta bizi kalitatearen erudia era nabarmenean garatu den arren, nahikoa baloratu ez diren egoerak eta aurrera egiteko aukeren inguruko itxaropen desegokiaren kasuetan, arreta berezia izan behar da. Izan ere, horrelakoetan, helburu zehatzak lortzeko tematiegi jokatzeak arriskua egon daiteke, ikaspenak barnertzeak orduan, esaterako.

Tommasok erakusten dituen lesio fisikoek, kasu horretan gehiegizko akuilatze lanak edo arreta ematerakoan zaintza tematiegia emateagatik tratu txar fisiko eta psikologikoak ematen ari direla uzten dute agerian. Jokaeraren inguruko eta horren ondorioz eragindako kaltearen erantzukizuna nor duen argitzea zailagoa suertatuko da. Aitak Tommasorenganako dituen gehiegizko itxaropenek, aitak kaltea eragiten duenik ez badaki eta Tommasok dituen gaitasunak hobetzeko lagungarri suerta daitezkeela uste duenez, erantzukizunik gabeko jakintasun eza dei diezaioketun egoera sor dezakete. Aita, sortutako egoera argitu eta ulertzeko gai denean izango da **jokaeraren erantzule**. Zainzaileak ere, akuilatze desegokia **era zabarrean** burutzen ari direlako, Tommasori eragindako kaltearen erantzuleak dira; are gehiago, aita burutzen ari den esku hartze desegokia onartzean, haurra jasaten ari den tratu

txarraren inguruan **utzikeriazko laguntza** ematearen erantzukizuna dute.

### *Laburbilduz:*

- Kaltea: Fisiko eta psikologikoa.
- Jokaera:
  - Arduragabekeria (profesionalen aldekoa).
  - Jokaera tematiegia (aita eta zaintzaileak)
- Erantzukizuna:
  - Aitaren ez jakintasuna, erantzukizun gabekoa (hasieran) eta erantzukizuna duena (behin argitu eta gero).
  - Utzikeriazko laguntza (profesionalak).
- Inplikaturiko subjektuak:
  - Profesionalak.
  - Familiakoak.
- Gunea: Elkarbizitzarako gun e pribatua.

---

### **Carla eta Beatriz ez dira jada lehen bezala bizi, zentroan pertsona berriak daudelako**

«Beatrizek pentsatzen du zentroa ez dela lehen bezalakoa; arreta etengabe eskatzen duten «mutil» berri hauek iritsi direnetik, begiraleek ez dute ezertarako astirik. Gainera, orain ezin da egunez logeletan sartu, ezin da patiora irten, ezin da gozokirik jan, ezin da gau ez telebistarik ikusi, ezin da... Eta oihuak egun osoan, oihuka ari da mundu guztia.»

Txarrena gurgildun aulkian ibili behar duen Carlarentzat da. Lehen, gimnasia joaten zen, lorategira eta herrira irteten zen, eta noizean behin zinera ere joaten zen. Orain askoz ekintza gutxiago antolatzen dira, eta antolatzen direnak ere aspergarriak iruditzen zaizkio eta loak hartzen du. Beatrizek, baimenik ez duen arren, gurgildun aulkia bultza eginez laguntzen saiatzen da, berak, lehen bezala, Carlarekin joatea nahi du.

Kasu horrek, zentror a iritsi berri diren pertsona erabiltzaileek dituzten beharrak handitu direnez, laguntzak gutxitu egin direla erakusten digu. Baliabideak eta aukerak gutxitzea tratu txartzat har dezakegu?



Aipatutako kasuan, zerbitzu gutxiago eskaintzerakoan aisialdirako eskubidea urratu egiten da, baina, jokaera hori, tratu txartzat har dezakegu?

Pertsonak berez dituen eskubideak erabat gozatzea saihesten duen baliabide nahikoa ez egotearen egoera baten aurrean gaude, baina ez dugu ikusten egoera horrek kalterik sorrarazten duenik ez eta erantzukizuna norbaiti egotzi dakiokeenik, batez ere, egoera hori zentzora euren oinarritzko beharrak asetzeko baliabide gehiago behar dituzten pertsonak iristerakoan ematen bada eta behar duten zaintza eskainiko ez balitz utzikeriagatik edo gutxiegiako zaintzagatik kaltea eragingo lukeen egoera denean. Aipatutako kasuan, ez dugu uste tratu txarrak ematen direla esan dezakegunik. Hala ere, oinarritzko<sup>2</sup> beharrei arreta ez eskaintzeagatik pertsonen kaltea eragin dakiekeen egoerei aurre egiteko gutxienezko baliabideak egotea eskatu beharrekoa da.

Guzti horren oinarria garapen eta adimen urritasuna duten pertsonak gizarteratzeko ereduan dago. Bazterketa egoerak (tratu txarrak ematen ez direnak) saihestu nahi baditugu eta hiritartasun osoz gizarteratzeko proposamen batekin aurrera egin nahi badugu, aipatutako kasuan eskaintzen diren baino baliabide eta laguntza gehiago behar dira. Erakunde publikoei utzikerian ez erortzeko baliabide gehiago exijitzea eta pertsona askok jasaten duten giza bazterketa egoera salatzea eta gizarteari ezagutaraztea garapen eta adimen urritasuna duten pertsonen arloan diharduten profesionalen eta erakundeen betebeharra dela deritzogu.

### *Laburbilduz:*

Ez dugu uste tratu txarrak ematen diren egoera baten aurrean gaudenik, adimen eta garapen urritasuna duten pertsonen dituzten aukerak eta eskubideak asetzeko aukera urratzeagatik bazterketa ematen dela baizik. Egoera hori kalte eta tratu txar fisikoa eta psikologikoa eman daitekeen gutxiegiako zaintza egoera bilakatu daiteke. Gure iritziz, aipatutako eskubideak babesteari uztea, erakundeen edo profesionalen aldetik utzikeriaz jokatzeko izan daiteke.

---

<sup>2</sup> Gai horren inguruan eztabaida bi eman ohi dira:

- Zerbitzua eskaintzeko orduan egokiagoa den pertsona erabiltzaileen ezaugarriak era heterogeneoan edota homogeneoan hartzea.
- Pertsonak, euren ezaugarriak, ahalmenak eta ezaugarriak kontuan hartuta zaintzea saihesten duten laguntza eta arkitektura ereduak egotea.

---

## Jon eta Maria bizimodu independentea eramateko hezkuntza prozesuan daude

Jonek eta Mariak bikotea osatzen dute eta bizimodu independentea eramateko hezkuntza programa baten hartzen dute parte. Programan sexu hezkuntza lantzeko atal bat dago. Saio batean, begiralea, Jonek eta Mariak sexu harremanak dituztela konturatu da eta gaiaren inguruan eurekin hitz egitea erabaki du.

Mariak, Jon orain hain gustukoa ez duela esaten dio, berarekin jarraitu edo ez zalantzan dagoela, eta berarekin sexu harremanak izateak izorratzen dutela dio, mina ematen diotelako. Jonekin sexu harremanak ez baditu, harremana apurtu egingo dela uste du, biko-teentzat bakarrik den programatik at geratuko dela eta bitzita osoa erresidentzi batean eman beharko duela uste du.

Mariak gaitasunak ditu, baina asetzen ez duen bikote harremana du. Hala ere, harremanari eutsi egiten dio ustezko onura jasoko duela-koan: egoitza batean bizitzeari utzi eta etxebizitza batean bizitzeko aukera izan.

Maria alboratu nahi duen esparru instituzional batean bizi da eta helburua lortzeko kaltea eta atsekabea eragiten dion egoera bat onartu behar duela uste du. Maria gizarte zerbitzuak eskainitako prestazio bat jasotzen ari den adimen urritasuna duen pertsona ez balitz, norberarentzat lortu nahi den helburu bat eskuratzeko berariazko kalte objektibo bat jasatea onartzen duen gaitasunak dituen pertsona bati buruz ari garelako esango genuke. Kaltea eragiten duen pertsonak (Jonek) ez dauka erantzukizunik, Mariak harremanik izaterik nahi ez duenik ez dakielako. Ziurrenez, «ez konturatzeko» horretan, harreman sexualen inguruan genero bazterketa ulertzeko dagoen kulturak ere eragina izango du, baina ezin dezakegu, inondik inora, tratu txarrak eragitearen erantzukizuna duenik esan.

Baina gure kasuan, Maria, erakundeek babestu behar duten autonomia urritasuna duen pertsona da. Zer da erakundeak egin behar duena? Ezagutzen dugunean, zer egin behar dugu egoera kudeatzeko? Esku hartzea beharrezkoa da; erakundeak **gutxi egizko zaintza** bat saihestearen erantzukizuna hartzen du, are gehiago, arduragabekeriaz ez jokatzeko ardura du, berariazko kalte objektiboa ematen delako.

Jon ez da tratu txarra ematen duen pertsona, baina Maria bada tratu txarrak jasaten dituen pertsona, eta erakundea jakinaren gainean egonda ez badu ezer egiten, arduragabekeriaz jokatzeko ari da. Jokae-rak norabide ezberdinak har ditzake: aukera egonez gero, harremana aurrera eramateko era landu daiteke, Mariak bizi duen kaltearen espe-

rientzia landu daiteke edota, aipatutako kaltea onartu behar izan barik, Mariak bere helburuak lortzea posible egingo duten bestelako baliabi-deak bila daitezke.

Behar dituzten laguntza ezberdinak jaso ahal izateko, horrelako egoerak onartu behar dituzten urritasuna duten pertsonak egotea oso larria da. **Tratu txarrak** eragiten dituzten **bizi baldintzak** daudela esan dezakegu; menpeketasun maila oso handiak dituzten eta oinarriko beharrak bete ahal izateko zaintzaileak behar dituzten pertsonen kasuan arriskua are handiagoa da.

Hainbat kasutan, tratu txarrak sorrarazten duen egoerak eragindako kaltea baloratu edo atzemateko orduan dagoen testuinguruak baldintzazten duela ikusten dugu, bortxakeri, baztertze, mespretxu, ahozko tratu txarrak edo bestelako egoerak «normaltzat» hartzen direnean. Nolabaiteko aukerak edo beharrak asetu ahal izateko pertsonak kalte handiak jasotzera behartzen dituzten ezberdintasun egoerak saihestu behar dira.

### Laburbilduz:

- Kaltea: Sexuala, fisikoa eta psikologikoa.
- Jokaera:
  - Arduragabekeria (erakundearena).
  - Egitezko jokaera (Jon).
- Erantzukizuna:
  - Erantzukizunik gabeko ez jakintasuna (Jon).
  - Erantzukizuna duen ez jakintasuna, erakundeak ezer ez badu egiten.
- Subjektuak: Profesionala, erakundea eta bikotekidea.
- Gunea: Erakundeen ardura peko ageriko gunea.

---

### **Fran, boluntarioa, Benar eta Luisarekin batera doa zinemara**

Fran, Down sindromea zuen Felix, bere semea, hil zenetik Fundazioan boluntario aritzen da. Erretiroa hartua du eta astean arratsalde bat Benarrekin eta beste bat Luisarekin egoten da, biak Fundazioaren tutoretza pean daude.

Benar eta Luisa egoitza berean bizi dira. Batzuetan hirurak elkarrekin egoten dira, baina Franek bakoitzak dagokion arreta eta denbora izatea egokiagoa dela uste du. Gainera, Luisak ez du inoiz Benarrekin egoterik nahi.

Behin Fran, Benar, Luisa eta egoitzako beste bi kideekin batera zinemara doa. Halako batean, autobusera igo direnean, bere iritzi gaizki begiratu omen diolako, Benar Luisari oihuka eta irainka hasten da. Luisa negarrez hasten da eta ustezko kolpeez babesteko keinuak egiten ditu. Beste kideek, Benarrek askotan hikatu eta jipoitu egiten duela diote. Egoitzara itzultzerakoan Franek gaiaren berri ematen dio begiraleari; eta honek Benar horrelakoa dela, oso zaila dela aldatzea eta Luisak ezagutzen duela eta horrela onartzen duela esaten dio. Franek uste du, Benar horrelakoa izan arren, Luisak ez dituela zertan oihuak eta jipoiak jasan behar.

Kasu honetan era nabarmenean ageri zaigu Luisak tratu txar fisiko eta psikologikoak jasaten dituela. Kaltea eragiten duen ekintza (irainak eta jipoiak) kide batek egiten du (Benar). Profesionalak, eta neurri batean erakundeak ere, egoera normalizat hartzen dute (Benar *horrelakoa da*). Aurrerago aipatzen genuen bezala, adimen urritasuna duten pertsonak kalteak jasaten dituzten egoerak sarri ez dira dagokien neurrian kontuan hartzen, kalteak «normalizat» hartzen edo «gutxies-ten» direnez, ez da eraso jokaerak eraldatzeko ezer egiten, ezta biktimek jasotzen duten kalteari aurre egiteko ere. Luisak, kalte fisikoa pairatu arren, kalte psikologikorik ez duela pairatzen ulertzen da: (*Luisak ezagutzen du eta badaki nolakoa den*). Luisaren «onarpenaren» azpian aurretik jasotako eraso egoera ezberdinetan ere ezer ez dela egin eta, ondorioz onarpena baino, «barneratutako babes ezak» eragindako «etsipena» dagoela uste dugu.

Horrelakoak gertatzen direnean **erakundeen arduragabekeriak eragindako tratu txarrak** ematen direla esan dezakegu. Kaltearen larritasuna, ekintza behin eta berriz gertatzeak eta eragindako kalteak ez ezik biktimaren zaurgarritasunak eta babes ezak ere baldintzatuko dute.

Indarkeriazkoak diren eta kalteak eragiten dituzten jokaera desegokiak saihesteko, giza trebetasunak eta antzekoak lantzeko programak ezartzeko behar diren neurriak hartzea ikuspegi etikotik eskatu behar da. Erasotzen duen pertsonak jokaera hori ezin duenean saihestu, beharrezkoa izan daiteke zaurgarritasun handiena duten pertsonak aldentzeko erabakia hartzea, beti ere horiei eragin dakiekeen zauriak eta umilazioak saihestuz.

Kasu honetan erantzulea ez da boluntarioa, kasuaren arabera, bere ardura maila handiagoa balitz (esaterako, oporretako programa batean dagoen boluntario talde bateko kidea denean), erantzukizuna berea izan zitekeen arren; boluntarioak egin beharrezkoa egin du, profesionali egoeraren berri eman die eta profesionalak Luisari kaltea eragiten dion egoeraren erantzuleak dira.

### Laburbilduz:

- Kaltea: Fisikoa eta psikologikoa.
- Jokaera:
  - Kideak eragindako ahozko eta ekintzazko egiazko jokaera.
  - Profesionalaren eta erakundearen arduragabekeria.
- Erantzukizuna:
  - Saihestea ez badu lortzen, kidearen erantzukizunik gabeko ez jakintasun eza.
  - Profesionalaren eta erakundearen jakintasun ezarik gabeko erantzukizuna.
- Tratu txarra eragin duten subjektuak: Erakundea, profesionala, kidea.
- Guneak: Erakundearen ardura peko ageriko eta publikoari irekia dagoen gunea.

---

### **Aitorrek, bere buruarentzat eta kide batzuentzat arriskutsuak diren zenbait jokaera ditu**

Aitorrek 35 urte ditu eta urte bitik hona egoitza batean bizi da, bere buruaren kontrako eta mota ezberdinetako erasoak zirela eta etxean etxekoekin bizitzea oso zaila bilakatu zelako.

Zentroan, profesional eta pertsona guztiek ezagutzen duten «ida-tzi gabeko araua» betetzen da: pertsona erabiltzaile batek profesional bat edo beste pertsona bat fisikoki erasotzen duenenean isolatze gela batean «alde batera uzten» da eta ordu batez geritik lotuta egoten da.

Aitorrek bere buruaren kontra erasotzeko arriskua duenez, prozedura bera jarraitzeaz gain, eskuetatik lotu ere egiten dute eta behatua izateko aukera ematen duen gelan egoten da. Aitorrek ia egunero burutzen ditu erasoak.

Aste buruetan etxera bueltatzen denean, oso gutxitan izaten ditu besteak erasotzeko jarrerak, bere buruaren kontra erasotzeko jarre-rak izaten dituen arren, horrelakoak familiak zauri larriak sortu aurre-tik nahiko ongi «maniatzen» ditu bera oratuz, besarkatuz, bestelako ekintza batzuk burutzeraz bideratuz, etab...

Kasu horretan gako nagusia elkarbizitzarako arau nagusi batek baldintzatuta zigorraren erabilpenak zentzurik duen ala ez hausnartzean datza. Zigorraren erabilpenari dagokionez, aurreko kapituluan aipatzen genuenez, ez da era orokorrean erabili behar, pertsona erabiltzaileen

eskubideak urratzeaz gain, batzuetan eskubide horien kontra jotzea ere suposatu dezakeelako. Hori dela eta, jokaera hauskorrak edo desegokiak saihesteko bestelako neurri eraginkorrik ez dagoenean edo nahita burututako jokaera baten ondorioz errefortzu positiboa edo ondorio negatiboa kentzea neurritzat hartzen denean erabili beharko litzateke, beti ere, aipatutako neurriak bere eraginkortasuna zientifikoki baieztatuta duen hezkuntza programa baten barruan hartuz gero.

Kasu horretan bi galdera planteatu behar dira:

- Aitorren kasuan, hezkuntza neurri egokia al da? Ezetz ematen du, izan ere, etxean dagoenean, bere eskubideak kontuan hartu eta isolatzeak eta lotzeak sorrarazten dizkion kalte psikologikoak eragiten ez dizkion beste mota bateko neurriak ezarrita, Aitorrek bere jarrera hobetzen baitu.
- Horrez gain, ez dago argi Aitorrek bere jokaera saihestu dezakeenik, ondorioz jokaera horren erantzulea denik ere ez dago argi. Beraz ordu batez isolatuta eta lotuta egotean datzan zigorra neurri orokortzat hartzeak ez dauka zentzurik, gutxienez pertsona batek, Aitorrek, egoera batzuetan behintzat jokaera hori ezin duelako saihestu.

Aurreko kapituluan ikusi dugunez, zigor guztiek ez dute tratatu txarrik eragiten; zigorra jasotzen duen pertsonak bere jokaera kudeatu dezakeenean eta zigorraren ondorioak ikasteko gaitasuna duenean, ez da horrelakorik gertatzen. Horrela izanez gero, jarrera bortitzak erakusten dituzten pertsonak dauden zentroetan edo zerbitzuetan, kaltea saihesteko beste neurririk ezin daitekeenean hartu eta erabiltzailea bera eta besteak ere babestu beharra dagoenean ezarri daitezke. Testuinguruak eta beharrezkoak diren baliabideak egoteak edo ez, pertsona erabiltzaileek zigortzat har ditzaketen alde batera uzteak, loturak bezalako ez ohiko neurriak ezartzea baldintzatzen dute. Neurri horiek ez ohiko eta beste aukerarik ez dagoenean har daitezke, pertsonak berezko dituen eskubideen kudeaketa baldintzatzen dutelako; horregatik, ez dira arau orokortzat hartu behar.

Kasu horietan, zigorrak Aitorri tratatu txarra eragiten dio, bere jokaera ez saihesteaz gain Aitorren eta bereak bezalako ezaugarriak dituzten bestelako pertsona erabiltzaileen duintasunaren kontra doalako.

### *Laburbilduz:*

- Kaltea: Fisikoa eta psikologikoa.
- Jokaera: Zaintza desegokia (zentzurik gabeko zigorra).

- Profesionalek jakintasun ezarik gabeko erantzukizuna dute.
- Subjektuak: Erakundea eta araua ezartzen duten profesionalak.
- Gunea: Erakundeen menpeko gune publikoa.

---

### **Monica oso deseroso sentitzen da, zaintzen duten modua dela eta**

Garun paralisieren ondorioz, Monicak erabat murriztua duen hizkuntza gaitasunean larriki eragiten dion eta autodeterminazio gaitasunean neurri ertainean eragiten dion urritasun motore larria du (tetraplegia). Abegi-zentro batean bizi da eta zaintzaileetako batek bainatzeko, aldatzeko, oheratzeko edo jaikitzeke orduan asko ukitzen du.

Berak gustukoa ez duela adierazten saiatu den arren, zaintzaileak gorputzak oso ondo hidratatuta egon behar duela eta krema ugariekin igurzten dio, oso garbi egon behar duenez gaez eta egunez sargura izaten du... Baina bera deseroso sentitzen da eta sarritan negarrez ari da, izan ere, zaintzaile honek lan egiten duenean sarri biluzik dagoenean gutxiago begiratzen dioten eta batez ere bularrak eta parteak gutxiago ukitzen dizkieten beste zaintzaileekin egotea nahiago izaten du.

Kaltea eragiteko inongo asmorik egon ez arren, pertsona erabil-tzaileek gorputzaren eta intimitatearen kudeaketa sexu eraso edo tratu txartzat har dezaketela nabarmentzea garrantzitsua da. Bere intimitatearen aurkako jasan ezinezko eraso bat noiz ematen den ezartzeko irizpidea pertsona bakoitzak bizi izan duen esperientzia subjektiboak eragindako kalteak ezarriko du. Pertsona izorratua, deseroso sentitzen bada eta bere duintasunaren kontrako jarrera dela sumatzen badu, hori saihesteko beste baliabide batzuk bilatu behar dira. Horietariko batzuk hauek izan daitezke: begiradarik ez botatzea, zaintzailez aldatu, zaintzetan indar gehiegirik ez ipintzea eta burutzen denean leku intimoetan ahalik eta gutxien ukitu... Edozein kasutan, deseroso dagoela adierazi dezaketen keinu ezberdinei adi egon behar da. Gure kasuan, aztertu eta kontuan hartu beharreko zeinu nabarmena ageri zaigu: negar egiten du.

Dena den, kontuan hartuta zaintzaileak jokaera behin eta berriro errepikatzen duela, deigarria iruditzen zaigu erabil-tzaileak duen babes eza. Badirudi argi dagoela, zaintzaileak betebehari hori egiteko trebetasunik ez duela. Garapen eta adimen urritasuna duten pertsonen bizitza intimoaren inbasioak ahalik eta txikienak eta benetan dituzten beharrei erantzuna ematera egokituak izan behar dute. Deserosotasuna edota mina adierazten duten zeinuk ikusten baditugu, kontu handiagoz aritu

behar gara, gure kasuan higieనేarekin lotutako helburu batzuk ez lortzea suposatuta arren.

### *Laburbilduz:*

- Kaltea: Fisikoa, psikologikoa eta sexuala.
- Jokaera: Gehiegizko arreta edo arreta tematia.
- Erantzukizuna: Badirudi kasu honetan ez dagoela ezjakintasunik; baliteke, eragindako kalteak sortutako zeinuak era egokian kontuan ez hartzearen ondorioz, erantzukizuna duen ez jakintasuna egotea.
- Inplikaturiko subjektuak:
  - Profesionala.
  - Erakundeak ardura izan dezake, kalte hori sortzen duen zaintza gogorregia eskatzen badu edo kaltea eragiten duen egoera ezagututa ezer egiten ez badu.
- Gunea: Erakundeen menpeko ageriko gunea.

---

### **Carmenek bere tutoreek erabaki dutena baino baliabide gehiago behar ditu**

Carmenek 40 urte ditu eta 15 urte zituenetik Huntington-en Korea pairatzen du. Bere senarrak, Carmenen familiarekin gatazka gogorak izan eta gero utzi egin zuen orain dela 7 urte, eta ordutik bere ahizpek zaintzen dute. Orain dela urte bete abegi-zentro batean bizi da eta legalki tutoretza bere ahizpa batek du.

Carmenek ezintasun handiari dagokion pentsioa jasotzen du. Tira, egia esan, jaso, bere dirua kudeatzen duen ahizpak jasotzen du. Gutxi gorabehera jasotzen duen ordainsariaren erdia abegi etxean duen plaza ordaintzera bideratzen da.

Carmenekin aritzen diren profesionalek bere tutoretza duen ahizparekin gero eta arazo gehiago izaten ari dira, izan ere Carmenek bere soinekoekin baino erosoago egoten lagunduko dioten txandalak erostea behar du, bere mugimendu ispastikoen kalterik ez eragiteko eskuetan jartzeko protesi batzuk behar ditu, noizean behin ile-apaindegira joatea behar du, dentista eta ginekologoarengana aldikako azterketa burutzen joan behar du... baina tutoretza duen ahizpa gastu hauek egiteko orduan ez dago ados.

Familiak, gastuak sortzen dituzten etengabeko eskakizunekin eroso sentitu ez eta zentroan alta eskatu eta Carmen etxera eramatea erabaki du.



Batzuetan, erakundeak eta profesionalok ez ditugu ulertzen familien egoera eta ikuspegi ezberdinak, garapen eta adimen urritasuna duen pertsonaren eta beste familia kideen beharrian ezberdinak ere kontuan hartu behar dira. Profesionalok familiaren egoera, eskura dituzten baliabideak eta euren ahalmenak eta zailtasunak kontuan hartzen ez ditugunean, harremana gehiegi tenkatu dezakeen boterean oinarritutako egoera sor dezakegu, horrela pertsona erabiltzailearentzat lagungarri ez diren testuinguruak sortuz. Kasu hau kontuan hartuta, hasierako gomendioa pertsona erabiltzaileen familiak dituzten beharrianak kontuan hartu eta Carmenek dituen beharrianei eta berenganako dituzten betebeharren inguruko informazio argia eman behar direla da.

Batzuetan, tutoretza, hau da, garapen eta adimen urritasuna duen pertsonaren eskubideak babestearen ardura, erantzukizun hori hartu ezin duten, ez dakiten edo nahi ez duten pertsonak hartzen dute. Horrelakoetan utzikieriaz jokatzegatik tratu txarrak eman daitezke, edo, gure kasuan bezala, **tratu txar ekonomiko**tik hasi eta Carmenek minik ez hartzeko behar dituen tresnak ez eskaintzegatik egoera **tratu txar fisikoa** bilakatu daiteke. Eskaintako arreta, babesteko betebeharrak ez betetzearren **utzikeria** den **gutxiezigizko arreta** da, argi eta garbi.

Irabazi ekonomikoa, tutoreek, erantzukizuna euren gain hartzearen ordainean jaso dezaketen bidezko ordainsaria izan daiteke, baina urritasuna duen pertsona ezin da inoiz «tresna soiltzat» hartu, errespetuz eta aintzat hartu behar da beti. Tratu txar ekonomikoak ondorioak ekartzen ditu, eta pertsona erabiltzailearen beharrianak betetzen ez direlako sarri tratu txar fisiko edota psikologiko bilakatzen da.

Erakundeak, egoeraren berri zuzenean badu edo tratu txarrak ematen direla nabarmentzen duten adierazle argiak baditu eta ezer ez badu egiten, konplize bilakatzen da. Hori dela eta, alta eskaera, eskubide urraketa eta zaintza alboratzea ez dela saihestea, erakundearen eta profesionalen erantzukizuna da. Hori horrela izan daitekeen susmoa izanez gero, eskudun agintaritza eta behar izanez gero fiskaltza ere jakinaren gainean jarri beharko da.

### *Laburbilduz:*

- Kaltea: Ekonomikoa eta fisikoa.
- Jokaera: Tutoretza dutenen aldetik utzikeria eta gutxiezigizko zaintza.
- Erantzukizuna:
  - Jakintasan ezarik gabeko erantzukizuna aipa dezakegu.

- Hala ere, erantzukizuna duen jakintasun eza ere izan daiteke, beharriaz buruzko informazio argirik ez badute.
  - Erakundearen laguntza pasiboa, utzikeria gertatzeko arrisku handiaren susmoa izanez gero alta ematen bada.
- Subjektuak:
- Familia.
  - Erakundea, konplize bilakatuz gero.
- Gunea: Erakundeen menpeko ageriko gunea.

---

### **Mariok ezin du autobusean bidaiatu, eragozpenak sortzen dituelako**

Mariok eta bere amak egunero goizeko 9:00etan autobus linea bereko autobusa hartzeko ohitura dute, Mario joaten den eguneko zentrorra joateko egokiena iruditzen zaielako. Horrela, zentroak eskaintzen duen garraio zerbitzua erabiltzeak sortzen dien gastua aurrezten dute. Arratsaldeetan, lanetik bueltan, Mario, aitak kotxez jasotzen du.

Mario oinez zailtasunez ibiltzen da, sarri oihuka aritzen da eta kontrola ezin dituen mugimendu ispastiko batzuk egiten ditu eta batzuetan autobusean bidaiatzen duten hiritar batzuk mugimendu horien eraginez ukitu egiten ditu. Linea eta ordu berean, normalean pertsona berdinak bidaiatzen dute. Hasiera baten ez zen arazorik sortzen, baina bidaiari bi kexaka hasi dira eta beste bidaiariak ere iritiz aldatzen joan dira: jada ez diote urritasuna duten pertsonentzat gordetzen den ezarlekuan tokia uzten, Marioren inguruan marmarka eta gaizki esaka aritzen dira...; orain dela hamabost egun bidaiari biak gidariengana joan dira kexuka Mariok autobusean bidaiatzea izorratzen dielako. Oso desatsegina iruditzen zaiela diote. Gidariak autobus konpainian eta udalean erreklamazio bat aurkezteko proposatu die.

Mariok gutun bat jaso du eguneko zentroak eskaintzen duen garraioa erabiltzeko eskatuz «bere ezaugarri eta jarrera pertsonalek beste bidaiarien ongi izatea kaltetzen dutelako». Ama, zeharo hasez gero, oinarritzko gizarte langilearekin hitz egitera joan da, hau ez dator bat emandako erantzunarekin eta ama erreklamazioa aurkeztera bultzatzen du, bitartean, gizarte langileak udal barruan ikerketa lan batzuk egiteari ekin behar dio, bere kexa adierazi eta Mario eta bere amarentzat bidezko irtenbide bat bilatzeko.

Kasu honetan, hasiera batean Marioren eta beste bidaiarien eskubi-deen arteko gatazka dagoela eman dezake, baina ez da horrela. Autobuseko bidaiariak parekatu egiten dute, Mariok ukitzeak eta ateratzen

dituen oihuak sortzen dien deserosotasuna, eta Mariok, hiritarra den heinean, autobusean bidaiatzeko duen eskubidea. Argudio hori, Mario hiritarra den heinean dituen eskubideen kontra joateko eta berarenganako bazterketa argia eragiteko aitzakia besterik ez da.

Mariok autobusean beste bidaiariekin batera bidaiatzeko ohitura du. Bidaiariak Mariorenganako duten baztertze jokaera, larriagoa da Mario ezagutzen dutelako. Izan ere, mugimendu ispastikoak bere go-goaren kontra direla ere badakite. Horrek egoera era ulerkorragoan hartzeko balio zezakeen, baina horrela ez denez, progresiboki euren «ongi izatea» babesteko Mario baztertzeko izan duten asmoa agerian uzten du: hasteko, urritasuna duten pertsonen dagokien ezarlekua okupatzu; jarraian, euren kexuak ozenean azalduz; geroago, gidariari azalduko kexuak; eta amaitzeko, Udalean aurkeztutako kexuak.

Mariok bere amarekin batera autobusean bidaiatzeari utzi dio; amak bidaia bere semearen duintasunaren kontrako umilazioa dela uste duelako. Erabakia, bidaiariak sortutako egoera eta jasotako gutunak baldintzatuta hartu du.

Udala, bazterketa eraginkorra izateko beharrezko kudeatzaile bihurtu da. Administrazio publikoak hiritar guztien eskubideak babestu behar ditu, urritasuna duten pertsonen eskubideak ere bai. Udalaren jokae-rak urritasuna duten pertsonen eskubide gutxiago izatea ahalbideratzen du. Berak emandako erantzunak, garraio publikoa erabiltzeko debekua ez bada ere, Marioren eskubideen kontra doazen aldeko argudioak indartzen ditu eta amaren jarrera indargabetzen du. Gizarte langileak, Marioren gizarteratzea errazteko duen betebeharra kontuan hartuta, erantzukizunez jokatu du, ama eta Mario euren eskubideen alde erreklamatzera animatuz eta bere lankideak euren betebeharrak bete ditzaten eskatuz. Gizarteratzea laguntzea helburu duten baloreak langile publiko guztien beharrezanetan txertatuta egon beharko lukete, hiritarren eskubideak betetzea zaindu behar dutelako. Beraz, guztiek bete eta kontuan hartu beharreko gutxieneko arau batzuk egon, badaude.

### *Laburbilduz:*

- Kaltea: Psikologikoa eta ekonomikoa (eguneko zentroak eskainta-tako garraio zerbitzua ordaindu behar badu).
- Jokaera:
  - Garraio publikoa erabiltzea murrizten duen berariazko jokae-rak tratu txar psikologikoa eta ekonomikoa eragiten duen giza bazterketa.

— Erantzukizuna:

- Udala: Jakintasunik gabeko erantzukizuna.
- Bidaiariak: Jakintasunik gabeko erantzukizuna.

— Subjektuak: Udala, bidaiariak.

— Guneak: Erakundeek arreta ematen duten ageriko gunea: gairao publikoa.

---

### **Pablok guztiok bezala, ikasi egin behar du<sup>3</sup>**

Pablok 7 urte ditu, Espekto Autistaren Nahasmenduari lotutako hezkuntza beharizan bereziak behar dituen ikaslea da. Ikaslearen bizitzaren esparru ezberdinetan erabiltzen saiatzen ari den zeinuetan eta ikusmen euskarrietan oinarritzen den komunikatzeko sistema bat ikasten ari da.

Jantokira joateko orduan, Ikastetxeko Guraso elkarteak kontratatutako azpikontrata baten menpe dauden profesionalak zaintzen dute, baina ez dute Pablok komunikatzeko erabiltzen duen kodea ezagutzen eta ez dute bere jokaera ulertzen. Gelakideek ezagutzen dute, baina ez daude mahai berean bazkaltzen, Pablok nolabaiteko zailtasuna duten ikasleei dagokien mahaian bazkaltzen duelako. Egoera hau dela eta, batzuetan Pablok jarrera arazoak sortzen ditu (mahaiaiz aldatzea nahi du, plater batzuk jaterik ez du nahi...) eta helduak berarekin haserrarazten ditu. Horrez gain, Pablok astiro jaten du eta zenbait esterotipia ditu. Berak dituen jarrerak zuzentzen saiatzen dira, eta jaten denbora gehiegi ematen duenez, ia egunero postterrik gabe geratzen da. Egun batzuetan, postrea bereziki gustukoa duenean, jantokitik ateratzerakoan istiluak sortzen ditu eta indarrean atera behar izaten dute.

Gertatutakoa ikusten duten bere gelakideek, azken burukoa jolastokian emateko gordetzen diote, baina norbaitek harrapatuz gero, errieta egiten diete, Pablok besteak bezala aurrez ezarritako denboran jaten ikasi behar omen duelako.

Bere gelakideek etxeetan egoeraren berri eman dute eta beste ama batzuei entzundakoagatik informazioa bere amaren belarrietara iritsi da. Azalpenak eskatzera joan denean «guztiak bezala ikasi behar duela» eta jantokiko langileek ez dutela «Pablarekin zelan jokatu» zertan jakin behar, hori Hezkuntza Sailaren eginkizuna dela erantzun diote.

Pablo jasaten ari den egoerak bazterketa eta kaltea eragiten diola nabarmena dirudi. Horren harira, hausnartu behar dugu eskola

---

<sup>3</sup> Kasu honen inguruko lana egiteko orduan, Apnabi eta FEVASeko Hezkuntza Arloko Arduraduna den Eguzkiñe Etxaberen laguntza jaso dugu.

esparruan parte hartzen duten alde ezberdinek izan beharreko arduen inguruan: hezkuntzaren ardura duen administrazio publikoa, ikastetxea, gurasoen elkarteak (gure kasuan, enpresari kontratua egiten diona), zerbitzua eskaintzen duen enpresa eta jantokiko langileak:

- Administrazio publikoak, hezkuntza beharrian bereziak dituzten ikasleek behar dituzten laguntzak, ikastetxeak eskainiz gero, jantokian eman beharreko laguntzak emateko azken ardura ere badu.
- Ikastetxeak, ikastetxe barruan tratu txarrak eragiten dituzten eta bazterketa sortzen duten egoerak saihestearen ardura du.
- Jantokia kudeatzen duen enpresa kontratatzen duenak (gure kasuan gurasoen elkarteak, baina ikastetxea bera ere izan daiteke), kontratuaren baldintza guztiak zehazteko ardura zuzena du, hezkuntza beharrian bereziak dituzten ikasleek behar dituzten laguntza eta beharrak bereziki zehaztuz. Baldintza horrek kostu handiagoa suposatuz gero, Pablorki eta beste ume batzuei sordakiekeen kalteak eta bazterketa egoerak saihesteko eta ikasle guztiek dituzten eskubide berdintasuna bermatzeko, guztion artean ordaindu beharko dira. Era berean, zerbitzuaren ebaluaketa aldiro burutu behar du eta hobetzeko beharrezkoak diren egokitzapenak ezarri behar ditu.
- Hasiere batean jantoki zerbitzua kudeatzen duen enpresa eta bere langileek ez dute zertan jakin eta eskaini behar Pablori gizarteratzeko behar dituen baliabideak (piktogramen bitarteko komunikatzeko era, etab.), baina horrek ez du esan nahi kaltea eragiten duten jokaera batzuen ardura ez dutenik (azken burukorik gabe uztea, ezin duena egitera behartzea...). Horretaz gain jantokiko kudeaketaren ardura zuzena dutenek (gure kasuan, gurasoen elkarteak) beharrezkoak diren argibideak eskaintzen dizkienean, eskaintzen duten zerbitzuan gizarteratzen laguntzeko irizpideak sartu daitezten elkarlanerako prestutasuna adierazi behar dute.

Azpimarratu behar da edozein zentroko kudeatzeko ardura duten agente guztiek, bereziki, jantokian bezala, parte-hartzaileak ikasle guztiak direnean, gune eta ekintza guztietan garapen eta adimen urritasuna duten pertsonen eskubideak babesteko eta zaintzeko ardura dutela. Hezkuntza beharrian bereziak dituzten haurrei eskainitako arretan parte hartzen duten agente ezberdinen arteko elkarlanik ez bada ematen, Pablorki kasuan gertatzen den bezala, tratu ez duina ematen diren egoerak sortzen dira.

Elkarlanaren erantzukizuna ikastetxeak du. Guraso Elkarteak eta jantoki zerbitzua eskaintzen duen enpresak, ikasleen profila eta behar-errian bereziki inguruan informatuta izateko ardura dute, eta ume horienganako jantoki ordutegi barruan inongo bazterketarik, eta are gehiago, inolako tratu txarrik ez eragitea exijitu behar du. Horretaz gain eskatzen zaionean, elkarlanean aritu beharko da. Horrela ez bada, sortu daitekeen **tratu txar egoeraren konplize** bilakatuko da.

Laguntzak eskaintzeko burutzen den antolaketa dagokionez, kasu honetan, Pablo eta mota ezberdinetako zailtasunak dituzten ikasleak mahai baten aparte jan dezatela erabaki da. Irizpide hori hainbat ikastetxetan jarraitzen da. Baina, kasu honetan, jokabidea ez da zuzena, izan ere profesionalak zeinuetan oinarritutako hizkuntza ez dute eza-gutzen eta Pablo, ikastetxeko beste testuinguruetan dituen komunikazio-erako eta giza harremanetarako ohiko laguntzarik gabe dago (beste gelakideek zeinuetan oinarritutako hizkuntza ezagutzen dute eta laguntza era naturalean eskaintzen diote). **Laguntza eza** horrek bere ondoeza eta arriskua sor dezaketen jokaerak burutzeko aukerak areagotzen ditu, Pabloren mesede baino kalte gehiago sortuz, beraz, argi eta garbi esku hartzea **arduragabekeria**z burutzen da. Baliteke, hainbat kasutan, ikasle batzuen eskubideak babesteko banatze neurriak hartzea egokia izatea, baina baztertze neurri batek inoiz ezin du oinarritzat hartu profesionalen lana erraztea edota beste pertsona batzuei eragozpenak sortzea (Marioren kasuan ikusi dugun legez), beraz gizarteratzeko aukerak gutxitzearen neurria zuzena izango da, soilik urritasuna duen pertsonarentzat mesedegarria bada.

Denboraren kudeaketa eta zigorraren erabilpen okerra ere gertatzen da, aipatu izan dugun bezala, Pabloren jokaera, berak saihestu ezin duen jokaera, zigortzen denez (berak astiroago jaten du eta ezin du «denak jaten duten bezala jaten ikasi») **tratu txartzat** har daiteke.

Baliteke jantoki zerbitzua eskaintzearen ardura duten langileek, Pablok gizarteratzeko eta komunikatzeko beharrezkoak dituen laguntzak jasotzea erraztuko duten beharizanen inguruan informaziorik ez izatea. Horrela izanez gero, erantzukizuna eta ardura euren gainetik dauden nagusia edo zerbitzuak kontratatu dituen erakundearena da. Dena den, zigor desegokia ezartzeak bezala, Pabloren elikadura egokian eragina izan eta kaltea sor dezaketen jokaeren ardura, euren da.

Amaitzeko, kasu honetan, gela barruan eskaintzen diren laguntzak bultzatzearen eta jantokian laguntzak zigortzearen arteko koherentziarik eza aipatu behar da. Era naturalean eskaintzen diren laguntzak kentzeaz gain, gelakideen jarrera laguntzaileak errieta eginez ordaintzen dira. Koherentzia eza horrek beste ikasleengan eragin negatiboa du, ez dute ezer ulertzen eta etxean gertatzen denaren berri ematen dute.

Helduok burutzen ditugun ekintza baztertzailleek eta desegokiek haurrenganako baloreak eta jarrerak helarazte prozesua baldintzatzen dutenez, kasu horretan aztertutako jokaeren larritasuna areagotzen dute.

### *Laburbilduz:*

- Kaltea: Psikologikoa eta fisikoa (mina eman edo era desegokian elikatzen bada).
- Jokaera:
  - Arreta desegokia, batez ere talde naturaletik banatzeagatik.
  - Berariazko ekintza, zigorra bera.
- Erantzukizuna:
  - Erantzukizuna duen jakintasun eza (zerbitzua eskaintzen duen enpresak eta administrazio publikoak, egoeraren berririk ez badute).
  - Jakintasun ezarrik gabeko erantzukizuna (zerbitzua kontratatzen duen guraso elkarteak, zigorra ezartzen duten langileak).
- Subjektuak: Administrazio publikoa, ikastetxea, guraso elkarteak eta jantoki zerbitzua.
- Gunea: Erakundeen menpeko arreta eskaintzen duen ageriko gunea.





# 3. kapitulua. Tratu txarraren inguruko kasu prototipoa

## 1. Sarrera

Jarraian datorren kapituluan, proposatutako tresna etikoan oinarrituta, hausnarketa prozesu baten adibide argigarria aurkezteko asmoa dugu. Bertan, hil-urreko eritasunean dagoen eta adimen urritasuna duen pertsona bati eskaintzen zaizkion laguntzen oinarrian dauden arazo etiko batzuk azaltzen dira. Elkarrekin burututako hausnartze lanaren ondoren, arazo horietariko batzuk tratu txarrak eragiten dituzten egoeratzat har daitezkeela ulertzen dugu, tratu txarrak emateko asmorik egon ez arren, kalte fisiko eta psikologiko larria emateaz gain erantzukizuna ere badagoela ikusten dugulako. Aipatutako kasua, biziaren azken uneetan gizarte eta osasun arretak behar dituen pertsona baten ingurukoa da, eta arreta eskaini behar duten bi esparruren arteko koordinazio ezak kaltea eragiten du.

Lana bi fase ezberdinetan burutu da: Hasierakoa FEVASeko erakunde ezberdinetan lan egiten duten profesionalekin eta bigarrena, Goyeneche Fundazioko eguneko zentroetako pertsona erabiltzaile ezberdinekin.

Profesionalekin burututako lehen fasean lau lan saio burutu ziren: lehenengokoa, hausnarketarako metodologia eta ikerketa lanetik eratorritako tresna ezagutu eta erabiltzen ikasteko erabili zen, hurrengo hirurak, pertsonen eskubideak, bizitzako arlo guztietan babes daitezen luzatu daitezkeen gomendioen inguruan adostasuna bilatzeko, elkarrizketa eta etikan oinarritutako hausnartzea burutzeko erabili ziren.

Lan taldea, Deustuko unibertsitatean ari den eta BFA Etika Bazardeko Presidentea den Marije Goikoetxeak koordinatuta, urrita-

sunean eta etikan prestakuntza duten hurrengo pertsonak osatuta egon da:

- Francisco Jose Perez (Apnabi-Autismoa Bizkaian).
- Olaia Lezama (Apnabi-Autismoa Bizkaian).
- Coro Rubio (Aspace Bizkaia).
- Valeria García-Landarte (FEVAS).
- Asun Jauregi (Goyeneche Fundazioa).
- Izaskun Ortega (Futubide).
- Maialen de Zuazua (Futubide).
- Jimmy Brosa (Gautena).
- Koro Lasa (Gautena).
- Belen Fernandez (Gorabide).
- Gumersindo Garria (Uribe Kosta).
- Nekane Marquez (Uribe Kosta).

Bigarren fasean, Goyeneche Fundazioko Asun Jauregik kasu prototipoa Ordiziako Egunekeo zentroko erabiltzaile diren adimen urritasuna duten bost pertsonekin landu zuen. Burututako analisi lana eta proposatutako gomendioak jaso ditugu.

Kapitulua, beraz, jarraian aipatzen diren atalak ditu:

- Kasuaren deskribapena.
- Atzemandako arazo etikoak.
- I. fasea. Langileen taldearekin
  - Kasuan azaltzen diren tratu txarrak zehaztea eta ikertzea.
  - Kasuari dagozkion gomendioak, arazo mota bakoitza kontuan hartuta zehaztutako gomendioak.
- II. fasea. Garapen eta adimen urritasuna duten pertsona taldea.
  - Arazoen inguruko azterketak eta burututako hausnartzeak.

## 2. Kasuaren deskribapena

Marijosek 49 urte ditu; orain dela 10 urtetik hona bere ahizparen tutoretza pean dago. Aita hil orduko ere, bere tutoretza pean zegoen. Bere eritasuna eta heriotza oso era kontzientean bizi izan zituen, aita, prozesuan apurka-apurka parte hartzen eta barneratzen joan zedin, guztia azaltzen joan zelako. Adimen urritasuna eta mugikortasun arazoak eragiten dizkion garun paralisia du: eguneroko jarduera guztiak aurrera ateratzeko laguntza behar du. Duela 35 urtetik hona urritasuna duten pertsonentzat egokitutako etxe batean bizi da.

2009ko azaroan endoskopia gastriko bat egin zitzaion, azken urtean dituen urdaileko minak direla eta. 8 kilo galdu dituen arren ez zaio garrantzirik eman, Marijosek gehiegizko pisua izateko joera duelako. Oinarrizko osasun arreta zerbitzura behin baino gehiagotan joan da, baina egoerak hobera egiten ez duenez, bere ahizpak digestioko kontsulta pribatu batera joatea kudeatu du, diagnostikoa egiteko froga eskatu duen kontsulta, hain zuzen. Froga horretan neoplasia gastriko infiltragarria duela diagnostikatu zaio, hau da, epe laburrean bizirik irauteko aukera gutxi uzten duen alboko egituretaraino ere iritsi den urdaileko azaleko zatian ez ezik urdaileko barne partean ere eragin duen urdaileko minbizi aurreratua.

Marijoseki, hitz arruntak erabiliz «urdailean zauri bat duela» esaten zaio. Hilabete geroago, erietxe publiko bateko digestio kirurgia kontsultara doa, bere ahizpak ezin duenez, marrazki ohol baten bidez berarekin komunikatzen dakien zentroko langile batek lagunduta. Sendagileak hasiera batean ez du begiralea kontsultan sartzeko baime-nik eman, geroago arakapen lanetan laguntzeko baimena eman duen arren.

Kirurgiagileak txosten batean ebakuntza egiterik ez duela merezi adierazten du, izan ere mota horretako patologien kasuan pronostikoak ez du egiten hobera eta berak prozesuaren bilakaera naturalari aurrera egiten uztea egokiena dela deritzo. Txostenean egoki deritzon zaintzak eta tratamendu neurriak azaltzen ditu. Ahizpak pronostikoarekin eta ondoren eraman beharreko tratamenduarekin bat etorriko den beste espezialista pribatu baten bigarren iritzia eskatu du.

Diagnostikatu arte, Marijose zentroan gizarteratua zegoen, aldiro lanbide jardueraren bat ere burutzen zuen (giltzak edo elektrizitaterako piezak sailkatu). Emakume alaia zen eta esparru ezberdinetan oso gustura zegoela adierazten zuen: astero bisita egiten dion eta oporretan joaten den bere ahizparekin duen harremanean, egoitzako eta zentroko lagunekin, profesionalekin,... guztiek gogotsua, laguntzailea eta erraz tratatzeko modukoa dela diote, aldiro eguneratzen den komunikazio sisteman bizi izan dituen esperientziak edota bere inguruko aldaketak txartzeko orduan ere.

Bere gelakidea, Marijose izaten hasia den sintomen aurrean, beldurak eta zailtasunak adierazten hasi da, gauzez botaka hasten denean bereziki urduri jartzen da. Inork ez dio gertatzen denaren inguruan ezer azaldu. Horrela, gelakideak, gero eta maiztasun handiagoz oihukatu eta iraintzeari ekin dio, eta Marijosek hau jasaten duenean negarrari ekiten dio. Egoera hori saihesteko, Marijose egoitzako banakako logela batera eramatea erabaki da. Eguneko zentrorra joaten jarraitzen du, baina ez doa egunero. Minik edo ondoezik badu, esateko eta egoi-

tzan geratuko dela azaltzen zaio. Bere oholean mina, egonezina, tristura adierazteko marrazki ezberdinak txertatu dira. Eguneko zentzora joatea nahi duela nabarmena da, ongi egon ez arren: Egun batzuetan sarri botaka egin arren ere, joatea nahi izaten du. Marijosereren gizarteratzea eguneko zentroan oinarritzen da. Gainera, egoitzan, joaten ez direnentzat, ez da inolako ekintzarik antolatzen eta erabat aspertuta egoten da.

Animo aldetik nahiko ondo dago, egoera psikologikoki eta emozionalki era egokian onartu du, moldatzen da eta ulertzen du urdailean duen zauria ez dela uste bezala osatzen ari. Une ezberdinetan bere aitaren eritasunak izan zuen prozesua aipatzen du, bere aitak ere biziaren azken uneetan hesteetako baxudura larria izan zuen.

Eritasunaren 6 hilabeteko garapenaren ondoren, gorakoak sarriegi ematen direla eta deshidratazio arriskuaren aurrean, 2010eko maiatzean ospitaleratzeko erabakia hartzen da. Hil-urreko eria duela baloratzen da eta bere beharrianak hobeto zainduko direlakoan, egonaldi ertainak eta luzeak egiteko erietxe batera eramaten dute 2010eko ekainean.

Orditik aurrera bere animoak behera egin du nabarmen. Ingurura-ekin duen «lotura» ia erabat hausten du, ez du garbitzerakoan laguntzen, ez dio begiradari eusten eta ia etengabe negarrez ari da; profesionalak ez diote garrantzi handiegirik ematen digestio konplikazioak dituzten «horrelako pertsonen kasuan» horrela egotea «normala» omen delako. Urritasuna duten pertsonekin lan egiten ez dute inolako esperientziarik eta ez dakite berarekin harremanetan zelan jarri. Horrela 10 egun ibili eta gero beheraldien kontrako sendagai bat ematea erabakitzen dute. Sendagile arduraduna, izandako «hobekuntzarekin» harritu egin da, izan ere, ez zuen uste Marijose bezalako pertsona bat beheraldian sar zitekeenik, ahizpak eritasuna izan aurretik, eritasunaren ondorioz lekuz aldatu baino lehen ere, Marijosek zuen animoaren gorabeherak behin baino gehiagotan azaldu arren. Marijose berriz ere ahizparen bisita jasotzen duenean berarekin harremanetan jartzen ari da, ia denbora guztian gaizki sentitzen dela adierazten duen arren, egoitzako kideak bera bisitatza ez etortzeagatik harrituta dago eta behin eta berriz bere «etxera» (egoitzara) itzultzea nahi duela adierazten du.

Tutoreak zerbait egiteko aukerarik dagoen galdetzen du, Marijose izugarri sufritzen ari dela uste du eta erietxe edo egoitza pribatu batera eramán ahal izateko besteko diru nahikoa baduela adierazten du. Doktoreak besterik ezer ezin duela egin eta aurrera jotako bestelako dementzia kasuekin alde nabarmenik ez duela ikusten azaltzen dio. Aurretik zegoen egoitzara itzultzeko ahaleginak egiten ditu. Horretarako,

egoitzaren arduradunarekin eta oinarrizko gizarte langilearekin hitz egin du, baina ez da posible, zaintzak eskaintzeko osasun baliabide nahikorik ez dutelako, erizainik eta erizaintzarako langilerik ez baitute. Marijosek gero eta oihu eta negar gehiago egiten du.

### 3. Atzemandako arazo etikoak

FEVASeko lan taldeak, kasuaren inguruan hausnartu eta gero, berban jarraian aipatzen diren arazo etikoak daudela uste du:

1. **Marijoseraren diagnostikoa okertzen duen neoplasiaren oso beranduko diagnostikoa.** Oinarrizko arretatik espezialistarengana bideratzeko orduan prestutasun ezak, diagnostikoa burutzeko froga egokiak ez burutzearekin batera eta, pisuaren galera eta urte beteetan zehar behin eta berriz azaldutako sintomak azaldu arren, egoitzak zerbait egin ez izanak, diagnostikoa urte bete beranduago ematea ekarri dute.
2. Prozesu guztian zehar **tutoretza duen ahizpari laguntasuna eta aholkurik ez ematea.** Hori dela eta ez du jakin eta ezin izan ditu Marijosek pertsonal eta osasun arloan izan dituen beharrianak asetzeko dituen eskubideak babestu eta horrek bere bizi kalitatean galerak sortarazi dizkio.
3. **Marijose ez babestea,** bere biziaren azken uneetan itzelezko oinazeak sortarazi dizkion zaintza prozesuan.
4. Marijose azken 35 urteetan bizi izan den **erakundearen eta profesionalen aldetik konpromiso, laguntza eta jarraipen eza.**
5. Marijoseraren **beste kideen beharrak ez dira zaintzen.** Hori dela eta **bere** gelakidearen egonezina eta gatazka sortzen da eta **tratu txar bilakatzen da.**
6. Lanbide zentrorra joan ezin diren Marijose eta beste kideei zuzendutako **baliabide eta ekintzarik ez dagoenez** Marijose behin baino gehiagotan oso egoera deserosoan joango da zentrorra.
7. **Prozesu guztian zehar Marijosek parte hartu ez izana,** logela aldaketatik hasi, zentro aldaketatik jarraitu eta jaso beharreko tratamendu eta zaintzekin amaituz.
8. Osasun zentroan arreta eskaintzen dioten profesionalen arteko **komunikazio eskasa eta eraginkortasunik gabea,** komunikatzeko era alternatiboa ez dutelako ezagutzen eta ikasteko asmorik adierazi ez dutelako, horrek Marijoserengan inkomu-

- nikazioan oinarritutako kaltea, isolamendua eta depresio koa-  
droa berandu atzemateagatik ere kaltea eragin dute.
9. Gutxiegiako esku hartzeak eta esku hartze desegokiak, guz-  
tiak elkarrekin, **Marijoseri, bere biziaren amaieran eskaini-  
tako arreta arduragabekeriak** burutzea ekarri diote, bereziki  
beharrizan psikosozialen esparruari dagokionez.
  10. Gizarte eta osasun zerbitzuen arteko **koordinazio ezak** Mari-  
joseri eskainitako arreta desegokia eta gutxiegiakoa ematea su-  
posatu izan du.
  11. Adimen eta garapen urritasuna dituzten pertsonen **zahartzeko  
eta heriotza prozesuetan laguntzeko programa egokiak  
falta** izan dira.
  12. Adimen eta garapen urritasuna duten pertsonen **ez zaie lagun-  
tza egokirik eskaintzen dolua lantzeko.**

#### 4. I. fasea. Profesionalek osatutako taldea. Kasuan ematen diren tratu txar moten azterketa eta zehaztapena

Kasuaren azterketa eta beraren inguruko gogoeta lana atzema-  
teko tresnak hobeto erabili ahal izateko eta tratu ez duina eta tratu  
txar egoerak sailkatu eta atzemateko lana egiterako orduan erabilga-  
rria izan daitezen, arazoak ikuspegi horretatik aztertuko ditugu, gerta  
zitezkeen bazterketa, paternalismoa, nahasita dauden pertsonen gai-  
tasun eza, eta abar... bezalako bestelako alderdi batzuetan sakondu  
gabe.

1. **Berandu emandako diagnostikoa.** Egoitzako profesional tal-  
deak, bestelako zerbitzura bideratzeko gutxiegi ahalegintzea-  
gatik *gutxiegiako zaintza* eman dutela esan nahi du. Zentroko  
koordinatzaileak Marijosereren kasuan atzeratze horrek dituen  
arriskuak ezagutzen ez dituela uste dugu, baina bestelako ir-  
tenbideak ezagutu behar ditu, larrialdiak, besteak beste, eta  
pisu galera atzeman dutenean erabili behar izan zituen. Lehen  
arretako sendagilearen kasuan, espezialistarengana ez bidera-  
tzea *arduragabekeriak* jokatzeko da, jarraibide egokietarako ja-  
rraitu beharreko irizpidea ez duelako betetzen; ziurrenez era-  
bakia Marijoserekin harremanetan jartzeko zailtasunak eta  
azterketa eta sintomak atzemateko orduan komunikazio hori  
burutzeko izan ez duen laguntzak baldintzatuta eman da. Bere  
*arduragabekeriak* pertsona erabiltzailearengan kalte fisiko eta  
psikologiko nabarmena sortu du.

2. **Tutoreari laguntza eta aholkularitza ez ematea.** Urritasunak dituzten pertsonen tutoretza euren gain hartzen duten erakundeak edo pertsonak, uste dugu ez dutela tutoretzan hartutako pertsonaren eskubideak gordetzeko dauden proposamen eta alternatiba egoki guztiak ezagutzeko beharra. Hori dela eta, garapen eta adimen urritasuna duten pertsonak (aurrerantzean, GAUak) zaintzen dituzten erakunde eta langile guztiak, tutoreei egoeraren eta egon daitezkeen alternatiba ezberdinen berri eten gabe eman behar dietela uste dugu. Gure kasuan tutoreak (ahizpak) aipatutako informazioa eta aholkularitza ez du jaso, ondorioz Marijosek dituen osasun eta osasunlaguntzarako eskubideak ez dira gorde. Uste dugu *tutoreari, eta ondorioz Marijoseri emandako gutxiiegizko* laguntza dela. Erantzukizunari dagokionez, erakundeak familiei eta tutoreei arreta emateko arduraduna zehaztuta balu, emandako kaltearen *erantzulea* pertsona hori izango litzateke. Erakundeak arduraduna hori duen pertsona zehaztuta ez balu, erantzukizuna Marijose bizi den zentroaren koordinatzailearena litzateke.
3. **Bere biziari amaiera emango dion prozesu osoan Marijose ez babestea.** Aurrean aipatutako arazoaren ondorioz, zaintzak eta arreta emateko orduan *gutxiiegizko zaintza* gertatzen da. Tutoreak badu bere ahizparen sufrimenduaren berri, baina ez daki zelan saihestu, bera hobeto egoteko saiakerak bide ezberdinak jarraituz egiten dituen arren, ez du lortzen. Marijosek dituen ondasun ekonomikoak bere onurarako erabili ezin dituen *kalte fisiko, psikologiko eta ekonomikoa saihesteko ezintasun eta ez jakintasunezko* egoera ematen da.
4. **Konpromiso eta jarraipen eza egoitza parte den erakundearen aldetik.** Pertsona *utzikerian* uzten den kasu argia dela uste dugu, are larriagoa pertsonak harremanetan jartzeko zailtasunak dituen eta egoera berriari egokitzeko laguntza handiagoak behar dituen. Dударik gabe, *eragindako kalte fisiko eta psikologikoaren* inguruan erantzukizuna daukate Marijose ongi ezagutzen duten eta beste zentro batera eramateak sortaraziko dion sufrimenduaren berri ondo dakiten erakunde eta profesionalek. Erantzukizuna are handiagoa izango da kudeaketaren arduradunek koordinazioa eragozten badute.
5. **Gelakideei arreta eta laguntza emozionala ez ematea, ondorioz gelakidearen kontrako irainak ematen dira.** Gure kasuan gelakide batek Marijosereren kontrako *egitezko tratu txar psikologikoak* (irainak) ematearen egoera bat ema-

ten da. Jokaera horren aurrean pertsonak aukeratzeko gaitasunik ez badu, ezin diogu erantzukizunik egotzi, noski. Gure kasuan, parekoen artean ematen diren tratu txarreko beste kasuetan bezala, kaltea eragiten duen pertsonaren gaitasunik ez izatea txar egoera sortzen den testuinguruaren inguruko galderak egin behar dizkiogu gure buruari. Kasu honetan, Marijoseraren eritasunaren ondorio gogaikarriak jasaten ari den *gelakideari eskainitako gutxiegi*ko arretak eragiten du gatazka eta eraso. Horregatik gelakideari eskainitako arreta aipatzen dugu eta *erantzukizuna* zentroko profesionalen gainean jartzeko dugu.

6. **Egoitzan erabiltzaileei zuzendutako ekintza eskaintzarik ez egotea.** GAUak zaintzen diren zentroek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta jarduerak, erabiltzaileen eguneroko jarduerari begira egotea da ohikoena. Arazoa da, ezarritako planifikazioak ez dituela, gure kasuan Marijosek jasaten duen iraupen luzeko eritasun kasu ez ohiko bezalakoak kontua hartzen. Arreta zerbitzu bat ez eskaintzea edo ez egokitzea, kalte fisiko eta psikologikoa eragiten duen gutxiegi zaintza da, eta erantzukizuna zentroko lan taldearena da.
7. **Prozesu guztian zehar Marijosek parterik ez hartzea.** Marijosek berarengan eragina duten erabakiak hartzeko orduan parte ez hartzeak, berarenganako erakutsitako errespetu falta eta gaitasun ezak kalte psikologikoa eragiten diote, gertatzen ari zaiona ez duelako ulertzen eta sufrimendua areagotzen diolako. Horretaz gain, bere biziaren amaiera bere balore eta izaeraren arabera kudeatu ahal izateko baldintza egokiak sortzen ez laguntzea bere eskubideenganako errespetu eta errekonozimendu falta da. Beraz *zaintza desegokia* da.
8. **Osasun arloko profesionalak Marijoserekin harremanetan jartzeko era gutxiegiak eta eraginkortasunik gabea izatea eta hilaurreko prozesuan beharrezan psikosozialak eta emozionalak ez zaintzea.** Kasu honetan harremanetan jartzeko laguntzarik ez izatea da Marijoseri eragindako kaltearen arrazoi nagusia. Arazoak hasieratik sortzen dira (oinarrizko arretarako sendagileak eragozpenak jartzen ditu laguntzarako pertsona kontsultara sartzeko), eta ondorengo ospitaleratzeetan arazoa larriagotu besterik ez da egiten. Erietxeko profesionalak ez dakite Marijoserekin harremanetan zelan jarri, eta horrek, Marijosek bere inguruarekin lotura haustea eragiten du. Inolako arretarik jasotzen ez duen sufrimendu psikikoa maila altuan ematen da. Marijoseraren jarrerak egoitzara itzultzea



nahi duela adierazten duen arren, ez da kontuan hartzen. Bere beharrian zehatzak *era desegokian zaintzen* dira. Horren ondorioz depresio koadro bat jasaten du, baina era desegokian baloratu da (dementia kasutzat hartzen da) eta esku hartzea gutxiezigkoa da. *Erantzukizuna argi eta garbi*, esku hartzen duten profesionalena da, eriarekin harremanetan jartzeko erak egoki erabiltzeko prestakuntza jaso behar baitute.

9. **Esku hartze gutxiezigko eta desegoki guztiek elkartuta** Marijoserren heriotza prozesuan kalte handia sortzen duen zaintza okerrak, **arduragabekeria** eragiten du. Agente eragile ezberdinak daude: tutoreak (eskubideak ez dituelako babesten), egoitzako profesionalak (utzikeriaz jokatzeko dutelako) eta osasun arloko profesionalak (zaintza desegokia eskaintzen dutelako). Hala ere, beti ez *dago erantzukizun maila bera*, ahizpik ez du erantzukizunik, ez du zertan jakin egoerari irteera zelana eman, kasuan, jarraibide onen irizpidea jarraituz, une egokian prestutasunez baliabide egokiak erabiltzeko ardura duten profesionalak ostera, badute erantzukizuna.
10. **Zerbitzuen arteko koordinazio eza.** Gure kasuan ikus daitekeenez, *zaintza, gutxiezigko zaintza* bilakatzen duen gizarte zerbitzuaren eta osasun zerbitzuen arteko koordinazio ezak eragiten dituen kalteak aipatzea merezi du. Eragindako kalteen erantzukizuna, hein handi batean aipatutako zerbitzuen kudeaketaren arduradunek dute, baina ez dugu alde batera utzi behar egoera batzuen aurrean langile batzuek jarri beharreko neurriak ez jartzearren duten *utzikeriaz emandako laguntza eta kooperaziozko* jokaera.
11. eta 12. **GAU duten pertsonen doluari, zahartzaroari eta hil-urrekotasunari emandako gutxiezigko arreta.** Osasun arloan, aipatutako prozesuetan parte hartzeko eta laguntzeko orduan GAU duten pertsonenganako bazterketa sarri ematen da. Ikusten ari garen bezala, pertsonen beharrianak eta urritasunak oinarriztat hartuta laguntzarik ematen ez denean, kasu gehiegitan erantzukizunik egonez gero *tratu txartzat* har ditzakegun egoerak eta pertsona edo erakunde bati eragotzi ezin diogun erantzukizunik ez badago *tratu ez duintzat* har dezakegun egoerak sortzen dira.

Jarraian aurkezten dugun koadroan kasu honetan azaldutako arazoaren sintesia aurkezten dugu. Bertan, alderdi hauek zehaztuko ditugu: eragindako **jokaera**: eragiten duen **eragilea**; bere **erantzukizuna**; eragindako **kaltea**; era gertatu den **gunea**.

Arazoa	Jokaera	Eragilea	Intentzionalitatea	Kaltea	Gunea
<i>Diagnostikoa berandu egitea</i> — egoitzak — oinarritzko arreta zerbitzuak	Gutxiagizko zaintza Arduragabekeria	Egoitzako koordinatzailea Oinarritzko arretarako sendagilea	Erantzukizuna duen ez jakintasuna Erantzukizuna duen ez jakintasuna	Fisikoa Psikologikoa Fisikoa Psikologikoa	Elkarbizitzarako gune pribatua Erakundeek arreta eskaintzen duten ageriko guneak.
<i>Ahizpa/tutoreari laguntzarik ez ematea</i>	Tutoreari eta ondorioz Marijoseri emandako gutxiagizko zaintza	Familiari arreta emateko arduraduna edo egoitzaren arduraduna	Ez jakintasun eza eta saihesteko gaitasun eza.	Fisikoa Psikologikoa (ahizpak zeharkira eragindakoa)	Elkarbizitzarako gune pribatua
<i>Bizitzaren amaiera prozesu guztian Marijose babesik gabe uztea</i>	Gutxiagizko zaintza	Ahizpa (tutorea) Erietxea	Ez jakintasun eza eta saihesteko gaitasun eza Erantzukizuna duen ez jakintasuna	Fisikoa Psikologikoa Ekonomikoa	Erakundeek arreta eskaintzen duten ageriko guneak.
<i>Egoitza parte den erakundearen aldetik konpromiso eta jarrailpen eza</i>	Utzikeria	Egoitza Profesionalak Zuzendaritza (zentroaren ildo politikoa, izanez gero) Administrazio publikoa (koordinazioa sailhestu edo ballabiderik eskaintzen ez badu)	Erantzukizuna duen ez jakintasuna Ez jakintasun eza eta saihesteko gaitasun eza Ez jakintasun eza eta saihesteko gaitasun eza Ez jakintasun eza eta saihesteko gaitasun eza Ez jakintasun eza eta saihesteko gaitasun eza	Psikologikoa	Elkarbizitzarako gune pribatua
<i>Kideei ez emandako arreta eta laguntza emozionala.</i> <i>Kidea iraintzea eragiten duena.</i>	Kideei emandako gutxiagizko zaintza Egitezko tratu txar irak ematea	Egoitzako profesionalak Gelakidea	Erantzukizuna duen ez jakintasun eza (ballabiderik edo planik ez izanez gero) Erantzukizunik gabeko jakintasun eza. (GAU duen pertsona)	Psikologikoa Psikologikoa	Elkarbizitzarako gune pribatua Elkarbizitzarako gune pribatua

Arazoa	Jokaera	Eragilea	Intentzionalitatea	Kaltea	Gunea
<i>Eguneko zentrorra joan ezin diren egoitzaren erabiltzaileei eskainitako ekintza eskaintzarik ez egotea</i>	Gutxiegi zaintza	Egoitzako profesional taldearen koordinatzailea	Ez jakintasun eza eta salhesteko gaitasun eza	Psikologikoa	Elkarbizitzarako gune pribatua
<i>Marijosek prozesu guztian partetik ez hartzea</i>	Zaintza desegokia.	Esku hartzen duten profesionalak	Erantzukizuna duen ez jakintasun eza.	Psikologikoa	Gune pribatuak eta agerikoak
<i>Bere beharrian psikosozialak eta emozionalak ez zaintzea eragiten duen komunikazio desegokia eta eraginkortasunik gabea.</i>	Zaintza desegokia.	Profesionalak: — Erietxeak — Osasun zentrokoak	Erantzukizuna duen ez jakintasuna	Psikologikoa	Erakundeek arreta eskaintzen duten ageriko guneak.
<i>Prozesu guztian zehar emandako arreta okerra.</i>		Ahizpa (tutorea)	Erantzukizunik gabeko jakintasun eza		
	Zaintza desegoki guztiak elkartuta arduragabekeria bilakatzen dira.	Arreta zuzeneko profesionalak.	Erantzukizuna duen ez jakintasuna	Psikologikoa Fisikoa	Erakundeek arreta eskaintzen duten ageriko guneak.
<i>Esku hartzen duten langile eta zerbitzuen arteko koordinazio eza.</i>	Gutxiegi zaintza	Gizarte zerbitzu komunitarioak	Kudeaketan arduraren pertsonen erantzukizuna duen ez jakintasuna	Fisikoa Psikologikoa	Erakundeek arreta eskaintzen duten ageriko guneak.
<i>GAU duten pertsonen dolua ez baloratzea eta galari ez heltzea.</i>	Gutxiegi zaintza	Esku hartzen duten profesional guztiak	Esku hartzen duten langileek utzikieriaz laguntzea.		
<i>GAU duten pertsonen zahartzaroan eta bizi amateran eskainitako arreta gutxiegi zaintza desegokia</i>	Gutxiegi zaintza	Administrazio publikoak Erakundeak	Egoitza parte den erakundea. Erantzukizuna duen ez jakintasuna	Psikologikoa	Elkarbizitzarako gune pribatua
	Gutxiegi zaintza	Administrazio publikoak Erakundeak	Erantzukizuna duen ez jakintasuna	Gune pribatuak eta agerikoak	

*Kasuaren inguruko gomendioak*

Arazoak atzeman eta aztertu ondoren, kasu honetan eta bera bezalako beste batzuetan, tratu txar eta tratu ez duin egoerak saihestea eta Marijoserenganako arreta egokia eskaintzea erraztuko luketen gomendio batzuk aurkezten ditugu.

Agirian jaso den bezala, gomendioek ondorengo oinarriak hartzen dituzte kontuan:

- Bizitza, eta gure kasuan heriotza ere, duintasunez aurrera eramateko beharrezkoak diren testuinguruak sortu, eta laguntzak GAU duten pertsonen DUINTASUNA onartuz eta zainduz, sortu eta erraztu behar dira.
- Esku hartzen duten eragileek (tutoreek, profesionalak, erakundeek, instituzioek) pertsona bakoitzarekiko duten ONGINTZARAKO konpromisoa, horretarako euren gaitasunak eta bizi kalitatea hobetzeko beharrezkoak diren ezagupenak, esku hartzeak eta zerbitzuak eskura jarritz.
- Aipatutako konpromisoak, profesionalen kasuan, Marijose era egokian zaintzeak eskatzen dituen prozedurak ezagutu eta aurrera eramateko orduan GAIZKIGINTZA-EZA oinarriak aintzat hartuta burutu behar direla eskatzen du. Kasu honetan, oinarriak, harremanetan jartzeko era egokiak ezagutzea, arrisku egoerak saihestea, pertsonen beharrianak era egokian baloratzea eta profesional edo erakunde bakoitzak eskaini beharreko zerbitzuak era koordinatuan eskaintzea eskatzen du.
- AUTONOMÍA oinarriak Marijosek, berari dagozkion planen eta erabakien inguruan, parte hartzea erraztea eskatzen du. Horretarako, informazio osoa berak ulertzeko moduko eran emanez bere gaitasunak indartu behar dira eta bere nahiak, baloreak eta gogoak kontuan hartu behar dira.
- Amaitzeko, JUSTIZIA oinarriak, zahartzea eta heriotza bezalako hondatze progresibo egoeretan ere, GAU duten pertsonak euren bizian zehar osasun eta gizarte arreta jasotzerako orduan bazterketarik ez jasotzea eskatzen du.

Gomendioen sintesia errazteko, Marijoserren kasuan, azaldutako arazo nagusiak biltzen dituzten 5 atalak sailkatu ditugu.

*GAU duten pertsonen osasun arreta eskaintzeko orduan zaintza gutxiegiakoa edo desegokia saihesteko gomendioak*

1. GAU duten pertsonen nagusiki arreta eskaintzen dieten erakunde edo gizarte zerbitzurako instituzioetan osasun preben-

tzioa sustatzea. Prebentzio horrek ondokoak izan behar ditu kontuan:

- Era ezberdinetako sintomak ezagutu eta horien inguruan informazioa eman ahal izateko GAU duten pertsonei osasun formazioa eskaini behar zaie, horrela osasun eremuari dioten beldurra gainditzen joateko.
  - Erakunde bakoitzak pertsona bakoitzaren plangintza orokorrean osasunari dagozkion helburu zehatzak zehaztu behar ditu.
  - GAU duten pertsonei arreta eskaintzen dieten profesionalak osasun gaitan oinarrizko prestakuntza jaso behar dute, batez ere aipatutako taldean eragin handiena duten eritasunen sintomak eta garapenari dagokionez.
  - Inguruan dauden osasun zerbitzu ezberdinak ezagutu eta eurengana azkartasunez eta eraginkortasunez jotzeko era ezagutu behar dute.
  - Osasunaren inguruko adierazle ezberdinak aldiro gainbegiratu behar dira, gainbegirada sarriago eta zehaztasun handiagoz burutu beharko da hizkuntza erabili ezin duten edo minaren, gaizki egonaren adierazle ezberdinak erakusten dituzten pertsonen kasuan. ...
2. Laguntza jasotzen ari den pertsona bakoitzarenganako ezarritako osasun helburuak lortzen direla ziurtatu ahal izateko, erakunde eta zerbitzu ezberdinetan osasun zaintza eta arretaren ardura duten profesionalak argi zehaztu behar dira, eta alde guztiak adostuta, laguntzarako pertsonen erantzukizunak, rola eta eginbeharrak ere ezarri behar dira.
  3. Ezarritako helburuak era egokian eskuratu ahal izatea bideratuko duen ezagutzaren kudeaketa egokia bermatu ahal izateko, teknikak eta tresnak hornituko dituen lanerako eredia garatu behar da.
  4. Osasun esparruan arreta jaso behar duen GAU-dun pertsonak, eritasuna izan aurretik zuen osasun egoeraren inguruko kalitatezko informazio osoa eskaini behar da eta egungo sintomologiaren ingurukoa ere (gure kasuan, esaterako, oka kopurua, pisu galeraren zehaztasunak, Marijoserengan egonezina eragiten duten sintoma ezberdinak, etab.).
  5. Osasun arloko profesionaleri GAU duten pertsonei arreta eskaintzeko era eta ezaugarri ezberdinen inguruko formazioa eskaini behar zaie.

*Euren bizian zehar arreta sozio-sanitario osoa era egokian jaso dezaten, GAU duten pertsonak behar dituzten esku hartze eta zaintza ezberdinen arteko koordinazioa hobetzeko gomendioak*

6. Osasun, hezkuntza, zerbitzu berezietara etab... bideratu behar direnean utzikeria egoerak saihesteko, pertsona erabiltzaileen erreferentziarako profesionalen konpromisoa indartu eta sustatu behar da.
7. GAU duten pertsonak zerbitzu batekiko mendekotasun eta lotura handia dutenean (egoitzen edo etxebizitzan kasurako) kokagunez aldatu behar izanez gero, pertsonari eskaini beharreko jarraipena/laguntza nola burutu zehaztu behar da.
8. Pertsona erabiltzaileak zerbitzu bat behin betiko edoaldi baterako utzi behar duenean, agurrak zaindu eta protokolorizatu egin behar dira. Aukerarik egonez gero, plangintza, agurtu behar den pertsonarekin eta bere ordezkariekin adostu behar da, beharrezko ez diren sufrimenduak sor ditzaketan azken orduko aldaketak eta aurreikusitako gabeko erabakirik hartu gabe.
9. GAU duen pertsona bizi behar den tokia eta behar dituen osasun zaintza bereziak, dituen beharrezko zehatzak kontuan hartuta zehaztu behar dira, eta behar dituen zaintza bereziak beste sistema batzuetan eskaintzen diren zaintzek osatu behar dituzte. Esaterako, Marijoserren kasuan, egokiena bera zentroan geratzea, eta osasun arreta ospitaleratze talde baten edo etxeetan zainketa aringarriak eskaintzen dituen talde baten ardura izatea litzateke.
10. Osasun esparruan zein gizarte esparruan, zaintzak osotasunean, era jarraituan eta zerbitzu ereduak dibertsifikatuz emateko planak lortu behar dira.
11. Osasun zerbitzuari beharrezkoak dituen laguntzak eskaini behar zaizkio GAU duten pertsonak eritasunak dituztenean jendeak orokorrean jasotzen dituen tratamendu eta zerbitzu berak jaso ahal izateko. Esaterako, gure kasuan, erietxeetan eta zentro sozio-sanitarioetan garun paralisia duten pertsonen arteko harremanenak erraztu ditzaketan lan talde ibiltariak egon zitezkeen.
12. Osasun eta gizarte esparruan diagnostikorako eta lanerako tresna komunak sortu eta bultzatu behar dira, batez ere osasun esparrua maiztasunez erabiltzen duten GAU duten pertsonen kasurako (garun paralisia duten pertsonak, autismoa duten pertsonak, etab.).

13. Bizian zehar egoeraren inguruko gora beherak eta etapa bakoitzarako ezarritako helburuak pertsona bakoitzarekin eta bere ordezkariarekin (berak onartuz gero edo gaitasunik ez badu) partekatuta behar dira. Horrela pertsonaren etorkizuna aurrez planifikatu ahal izango da eta baliabideak eta zerbitzuak, bere beharrianak era egokian asebeteko ahal izateko moduan antolatzeko aukera handiago egongo da.
14. Harremanak izateko eta arreta eskaintzeko era konpartimentatuak saihestu behar dira, Marijosereren kasuan gertatu den bezala osasun arloa zaintzeko, gizarte arloa albo batera utzi baita, pertsonaren alderdi guztiak zaindu beharrean, guztia edo ezer ere ez irizpidea jarraituta ezin da jokatu.

### *GAU duten pertsonen eskubideak babesteko gomendioak*

15. GAU duten pertsona gehienek, epaitegian erabakita gauzak egiteko gaitasuna aldatuta izan ala ez, euren bizitzaren hainbat esparruren inguruan erabakiak hartzeko gaitasuna dute. Orokorrean, gaitasun horiek garatzea eta pertsonak hartzen edo adierazten dituen erabakiak aintzat hartzea tutoreei eta eurekin ari diren profesionali egokitzea gomendatzen da.
16. GAU duten pertsonen autodeterminazioa babesteko xedearekin, berau indarrean ipintzeko eta errazteko beharrezkoa duten informazioa era ulergarrian ematen saiatu behar da. Era berean, pertsona bakoitzak dituen baloreak, gustuak eta lehentasunak era sistematikoan jasotzea gomendatzen da, horrela bakoitzaren konfort eta asetze mailak hobetu ahal izateko.
17. GAU duten pertsonen euren eragiten duten gaien inguruko erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzea sustatzeko, komunikazioaren maila eta eraginkortasuna hobetzea ezinbesteko da, horretarako:
  - Gomendagarria da edozein testuingurutan larrialdietan erabiltzeko moduko komunikatzeko tresna errazak eta erabilpen orokorrekoak garatzea.
  - Hizkuntzan zailtasunak dituen pertsona bakoitzeko, profesionalak edo esku hartzen ari den lan taldeak, aurkezpen egokia burutuko duela bermatuko lukeen informaziorako oinarritzko fitxa bat sortu beharko litzateke. Horrekin batera berari egokitutako egarria, mina, beldurra, deserosotasuna... bezalako oinarritzko beharrianak adierazteko

baliagarria izango zaion tresna errazak ere sortu beharko lirateke.

18. Pertsona bakoitzak babestu edo aurrera eraman ezin dituen esparruei dagokienez, senitartekoei eta berarekin lanean ari diren profesionaleri konpromisozko jarrerak eskatu behar zaizkie, ardua era automatikoan beste batzuegana (tutore, familia, langile edo bestelako eragile) bideratu barik.
19. Urritasuna duen pertsonaren zaintzan inguruko eragileen partaidetza edo era informalean eskaini daitekeen arreta ezinezkoa egiten duten erabateko «profesionaltasuna» duten zaintza ereduak saihestu behar dira; Marijosereren kasuan, esaterako, ez dira kideen edo bestelakoen bisitak onartzen.
20. GAU duten pertsoneri laguntza orokorrak eskaintzen dizkieten erakundeetan, arrisku egoeretan erabakiak azkartasunez eta zentzuz hartzeko, ordezkariekin eta bestelako zerbitzuekin etengabeko koordinazioa izateko bideak ezarri behar dira.
21. Lege gaitasuna eraldatuta duten eta epaileak ezarritako tutorea duten pertsonen kasuan, erakundeek eta gizarte eta osasun arloko profesionalak, bere funtzioak era egokian betetzeko beharrezkoak dituen laguntzak eskaini behar dizkiote tutoreari. Horretarako:
  - Instituzioetatik, familiak/tutoreak parte hartzeko moduan antolatuta (ordutegi malgutasuna kontuan hartuz, esaterako), hauei laguntza eta gaitasuna emango dizkien jarduerak sustatu behar dira.
  - Tutoretzarako ardua duen pertsonarekiko dituen betebeharrak era egokian bete ahal izateko, tutorea (pertsona fisikoa) aholkatzeko informazioa bideratzea beharrezkoa da.
  - Alde bakoitzak dituen erantzukizunak argi zehaztu behar dira, eguneroko erabakiak hartzeko orduan harreman eta ulermen maila ona sustatuz eta GAU duen pertsonak bakoitza bere aldetik doala izan dezakeen sentsazioa izatea saihestuz.
  - Tutoreak hartu eta pertsonaren mesederako egokiak ez direla diruditen egoeren edo erabakien aurrean, profesionalak parte hartzeko aukera sustatu behar da, tutoreari, bestelako irtenbideak badaudela eta horiek hartzeko arrazoen berri eman ahal izateko.
22. Tutoreei eta profesionaleri, eurek pertsonaren eskubideak babesteko duten konpromisoa, bizitzaren amaierara iristen den



kasuan bezala, pertsonaren zaugarritasuna handitzen den heinean handitzen dela gogoratu behar zaie.

*GAU duten pertsonen eskaintako arreta hobetzeko, norberaren edo beste pertsona batzuen zahartze eta heriotza prozesuetan*

23. GAU duten pertsonen bizi iraupena handitzearekin batera (bestelako pertsonekin gertatzen den bezala), eta horrelako pertsonekin zahartze eta heriotza prozesua lantzeak duen zailtasuna kontuan hartuta, pertsona esanguratsuen galerak (gurasoak, lagunak, etab.) sortutako dolua lantzeko laguntza programak sortu behar dira.
24. GAU duten pertsonak, batez ere espekto autistaren nahas-mendua duten pertsonak dituzten sintoma psiko-sozialak aztertzeko, ikerkuntza programak bultzatzea gomendatzen dugu, eurek jasotzen duten zaintzaren kalitatea hobetzeko.
25. GAU duten pertsonekin eta euren familiarekin zahartzarorako eta biziaren amaierara dituzten desioak eta gogoak aurretiaz landu behar dira, posiblea den kasuetan jarraibideak zehazten dituen agiriak aurrez zehaztea sustatuz.
26. GAU duten pertsonak, zahartzarora erreferentziatzeko tokietan, euren adinera eta ezaugarrietara egokitutako jarduerak burutuz, igaro dezatela eskatu behar da.

*Laguntzarako esparruetan GAU duten pertsonen artean tratu txarrak edo tratu ez duina ematea saihesteko*

27. GAU duten pertsonak beste pertsonakiko izaten dituzten jokaera desagokien kopuru esanguratsua, bere inguruan emandako eraldaketak ez ulertzeari edo eraldaketa horrek sortarazitako estresari egotzi diezaiekegu. Jokaera horiek norberarengan edo kideengan kalterik eragitea saihesteko, kideek jasaten dituzten eritasunek sortutako talka emozionalari aurre egiteko eta egoera berriak onartzea errazteko laguntza eskaini behar da.
28. Pertsona batek, deserosotasuna eragiten dion egoera bat onartzeko dituen zailtasunak adieraziz gero, zailtasun horrek beste kalte fisikoa edo psikologikoa eragitea saihestearen ardua profesionalena da. Horretarako pertsonak jasotako kalte subjektiboa aintzat hartu behar dugu, alde batetik kalte saihesteko,

eta bestetik tratatu txarra emanaz gero biktimari arreta eskaintzeko.

## 5. II. fasea. Urritasuna duten pertsona talde batek burututakolana

Marijoserren kasuaren irakurketa eta ondorengo eztabaida saioan, Goyeneche Fundazioak kudeatzen duen Ordiziako Garagune (egunerako zentroa), arreta zuzena eskaintzen duen pertsona batekin eta praktiketan ari zen pertsona batekin batera, adimen urritasuna duten 5 pertsonek hartu zuten parte (Marisa Landa, Quintina Sanchez, Koldo Urteaga, Rosario Zaldua eta Rosa Elizalde). Irakurketa paragrafoz paragrafo burutu zen, ulertzea errazteko galderak luzatu eta gutxienezko azalpen batzuk egin ziren. Irakurketa amaitu eta gero, atzemandako arazoan inguruan galderak luzatu ziren, eta egia esan, benetako garrantzia duten hainbat arazo atzeman ziren. Era berean, agiri honetan jasotzen diren hainbat gomendio ere proposatu ziren.

- **Bere beharrizan emozionaleri eta psikosozialei arretarik ez emateak sortzen duen harremanetarako jarrera desegokiaren eta eraginkortasun gabekoaren arazoaren aurrean:** «Osasun zentroan, harremanetan ezin direlako jarri, ez dute pertsona balitz bezala zaintzen. Sendagileek ez dute laguntzen. Berearekin harremanetan jartzeko pertsona bat egon beharko litzateke, esaterako, bere ahizpa. Zelan ez du jakingo sendagile batek, beheraldia jeta egon daitekeenik? Beheraldia mundu guztiak izan ditzake. Sendagileak esperientzia omen zenez, konturatu behar zukeen. Ez diote ez, kasu gehiegirik egin.»
- **Egoitza parte den erakundearen konpromiso eta jarraipen faltaren arazoaren inguruan:** «Adiskideak bisitatzerara joan behar izan zuten».
- **Zahartzaroan eta biziaren amaieran GAU duten pertsonek jasotzen duten desegokia eta gutxiegiak den zaintzaren arazoaren inguruan:** «Amaieran Marijosek aurreko egoitzara joan behar izan zuten. Ez da inor egon bera laguntzeko».
- **Kideei arreta eta laguntza emozionalik ez emateagatik kidea iraintzeraino heltzearen arazoaren inguruan:** «Kidea iraintzea gaizki dago eta Marijoseri eta bere gelakideari gertatzen ari dena ez azaltzea ere gaizki dago. Jakinez gero, bere gelakideak, laguntzeko aukera du. Gelaz aldatzea, ez dago ondo egina; orain bakarrik egongo da, laguntzarik gabe».

## 4. kapitulua. Ondorioak eta aholkuak

### 1. Ondorioak

- Tratu txarra errealitate konplexua eta mota anitzetakoa da, eta hainbat dimentsio eta ikuspegi ditu.
- Adimen urritasuna duten pertsoneri tratu ona ematea sustatzea da tratu txar egoerak murrizteko estrategia eraginkorrena. Horretarako, beharrezkoa da hiritartasuna aitortzea urritasuna duten pertsoneri, beraien duintasun maila berbera da eta.
- Ikuspegi etikoa eta eztabaida praktikoa oso garrantzitsuak dira tratu txar egoerak identifikatzeko eta jarduketak diseinatzeko orduan. Horretarako, ezinbestekoa da urritasuna duten pertsonen arretan parte hartzen duten profesionalen eta zaintzaileen etika alorreko prestakuntza indartzea.

### 2. Aholku orokorrak

#### *Sentsibilizazioa eta informazioaren kudeaketa*

- Urritasuna duten pertsonen ikuspegi positiboa sustatzea, beraien gaitasunak eta pertsona gisa duten balioan sakonduz.
- Adimen eta garapen urritasuna duten pertsonen eskubideak bul-tzatzea.
- Erakundeak, senideak, profesionalak eta boluntarioak tratu txarrei buruz sentsibilizatzea.
- Tratu txarra eraso fisikoarekin bakarrik identifikatzea baztertzea, kontzeptuak zabaltzeko eta gai horren inguruko aurreiritziak gainditzeko.

- Elkarlanerako dinamika sortzea adimen eta garapen urritasuna duten pertsonak laguntzen dituzten agenteen artean. Beraien beharrei buruzko informazioa osoa eta ulergarria izan behar da.
- Gizarte, hezkuntza eta osasun alorretako profesionalak prestatzea puntu hauetan:
  - Adimen eta garapen urritasuna.
  - Adimen eta garapen urritasuna duten pertsonen eskubideak.
  - Adimen eta garapen urritasuna duten pertsonekin erlazionatzeko eta komunikatzeko oinarritzko gaitasunak, komunikazio sistema alternatiboak barne.
  - Pertsonaren orokortasuna kontuan izango duten eta gabezietan zentratuko ez diren esku hartze ereduak.
  - Tratu txarrari buruzko prestakuntza orokorra eta motak, konplexutasunean oinarrituz (osagaiak, egoerak...).
  - Tratu txar mota jakin batzuetara bideratutako prestakuntza, garrantzi berezia duten egoera tipo batzuen identifikazioan oinarrituz (kideen arteko tratu txarrak, osasunaren arreta, esku-bideen zapaltze larria...).
  - Zahartze prozesuak eta horien ondorioak (gero eta egoera kaskarragoa, laguntza gehiagoren beharra...).

### *Ereduak*

- Pertsonengan eta beraien gaitasunetan zentratutako arreta eta esku hartze ereduak bultzatzea.
- Erlazio eredu simetrikoak bultzatzea, adimen eta garapen urritasuna duten pertsonak errespetatuko dituztenak, profesionalen eta erabiltzaileen aberastasun pertsonala bultzatuko dituztenak, infantilizazioa, profesionalen autoritarismoa eta erabiltzaileen beldurraren ondoriozko menderatzea baztertze.
- Pertsonen autonomiaren kontrakoak diren gehiegizko jarrera paternalistak saihestea.
- Zigorra saihestea, esku hartze eredu gisa.
- Urritasuna duten pertsonen garapenari buruzko itxaropen ez oso errealistak sortzen dituzten ereduak gainditzea.

### *Jardunbidea*

- Berdinen arteko tratu txarrak:
  - Prebentziozko arreta eskaintzea, posible denean.

- Eraso egoerarik ez onartzea eta ez normalizatzea.
  - Biktimei arreta egokia eskaintzea, tratu desegoki/tratu txar egoerak identifikatzen direnean.
  - Adimen eta garapen urritasuna duten pertsonak partaide bilakatea, konponbide proposamenetan.
  - Ahal denean testuinguruak aldatzea.
- Esku hartze profesioaletan edo zaintzaileenetan:
- Ahalik eta zainketa handiena jartzea pertsonen gorputz intimitatearen kudeaketan.
  - Gizarteratzean diskriminazio egoerak saihestea.
  - Kontrolatutako arriskuen existentzia onartzea, pertsonen autodeterminazioaren aurreko errespetua posible egiteko.
  - Komunikazioaren alorrean laguntza berezia eskaintzea, komunikatzeko orduan egon daitezkeen zailtasunek pertsonen zaurgarritasuna handiagotu ez dezaten.
- Senideei eta tutoreei eman beharreko laguntzan:
- Tutoreei eta senideei laguntza ematea erabakiak hartzeko orduan. Pertsonen eskubideen babesarekin erlazionaturiko eginbeharrak betetzeko behar duten prestakuntzan laguntzea.
- Isolatutako guneak saihestea arretan. Helburuak, eginbeharrak, rolak, erantzukizunak, funtzioak... behar bezala mugatzea, lan taldeen koordinazioa hobetzeko. Ikuspegi integralagoa, zabalagoa, bultzatu behar dugu.
- Adimen eta garapen urritasuna duten pertsonen beraien autonomia pertsonalerako garrantzitsuak diren dokumentuak prestatzen laguntzea, Irakurketa Errazaren bitartez.
- Etika alorreko lan taldeak sustatzea, gogoeta egiteko, konparatuzko, zalantzak eta ardurak planteatzeko, kontzeptuak argitzeko eta adimen eta garapen urritasuna duten pertsonen eskubideak errespetatuko dituzten esku hartze ereduak proposatzeko...
- Adimen eta garapen urritasuna duen pertsonak ohiko gune informalak utzi behar izatea saihestea eta, ahal denean, bere ingurune sozialean bere beharrak betetzeko behar dituen laguntzak ematea, deserrotze, sufrimendu emozional eta gizarte bazterketa egoerak saihestuz.

### 3. **Agenteen araberako aholkuak**

#### *Urritasunak dituzten pertsonak*

- Eskubideetan prestatzea. Prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzetan sakondu behar da, urritasunak dituzten pertsonak beraien eskubideak ezagutu ditzaten eta haiek defendatu eta errebindikatzeko gai izan daitezten.
- Pertsonak gizarte, afektibitate eta auto-defentsa (ezetx esaten erakustea, nahiak eta gustuak adieraztea, laguntza eskatzen jakitea, egoeraren eta pertsonaren araberako harreman egokiak...) trebezietan enpoderatzea.
- Autonomia pertsonal mailak sustatzea, besteenganako mende-kotasun maila murrizteko.

#### *Familia*

- Familiei laguntza ematea familiako bizitza zikloan, gehiegizko karga egoerak, itxaropen desegoki uneak edo bizitzako krisialdiak hautemateko.
- Familiei banakako edo/eta taldeko esku hartze programak eskaintzea, zaintzaile, erreferente edo/eta tutore gisa bete behar dituzten egoeren aurrean laguntza ekintzak eskaintzeko, arrisku egoerak saihesteko.
- Kasuaren erreferente izan daitekeen profesionala familiaren esku jartzea, harekin konfiantzazko lotura ezar dezan. Profesionalak familiaren historia, beharrak eta alde indartsuak ezagutu beharko ditu.
- Familiaren arnasaldirako zerbitzuak garatzea, familiari atsedeneak eskaini ahal izateko.
- Familiei laguntza ematea, beraien harreman sareari eusteko edo harreman berriak garatzeko, familia ingurunetik isolaturik gera ez dadin.

#### *Profesionalak*

- Kudeaketa emozionalaren, jarreraren, gatazken ebazpenaren, gogoeta etikoaren... hobekuntzara bideratutako prestakuntza, birziklapen eta garapen profesionalerako programak sartzeara.
- Balioekin erlazionatutako portaeren ebidentzien hedapena era positiboan baloratzea.

- Bizitza kalitatearen hobekuntzan ikerketa garatzea eta lortzen diren emaitzen ebidentzia zientifikoa jasotzea, eredu malguagoak, eta pertsonen autonomia gehiago errespetatuko dutenak, ezarri.
- Urritasuna duten pertsonen eskubideen zaintzaile funtzioa berreskuratzea.

### *Erakundeak*

- Baliabide urriak daudenean, kalteak eragin ditzakeen arreta ez nahikoa edo desegokia saihesteko gutxieneko baliabideak zehaztea.
- Tratu txarren aurreko printzipio eta erreferente etikoak sartzea zentroetako funtzionamendu arauetan eta barne araubideetan eta profesionalen artean.
- Zainketa batzordeak sortzea, tratu txar egoeren behatokiak, adibidez.
- Adierazle sisemak baloratzeko eta diseinatzeko tresnak garatzea, tratu desegoki eta tratu txar kasuak hautemateko.
- Erakundeen barruan, esku hartze estrategiak izango dituzten protokoloak garatzea, tratu desegoki eta tratu txar kasuen aurrean.
- Erakunde barruan eta kanpoan eman daitezkeen tratu txar egoeren aurrean jarrera argia, definitua eta publikoa garatzea.
- Tratu txarra prebenitzeko, aitortzeko eta jakinarazteko politika argiak garatzea.
- Erakundeen barne prozesuak zaintzea, gardentasuna indartzeko, urritasuna duten pertsonentzako arrisku egoerak ezkutatzeko edo ezeztatzea saihestuz.
- Tratu txarra prebenitzea, zerbitzua ematen duten erakundeetatik adimen eta garapen urritasuna duten pertsonen enpoderamendua eta auto-estimua sustatuz, beraien bizitzako eremu guztietan (familian, gizarte zerbitzuen erabiltzaile gisa...).
- Pertsonen bizitzan eragin emozional handia sor dezaketen egoerei aurre hartzen lan egitea, gaixotasun larriak, dolu egoeraren bat, etab.
- Urritasuna duen pertsonaren defendatzailearen irudia bultzatzea herri administrazioetan.
- Osasun graduatuko programa akademikoetan adimen eta garapen urritasuna duten pertsonen arreta integraleko prestakuntza sartzea.





# Eranskina: zigorra eta tratu ez duina

## 1. Sarrerako oharrak

Tratu txarra zigorra baino askoz zabalagoa den arren, eta tratu txarrean pentsatzen dugunean zigorrean zentratzeko tranpan erori behar ez badugu ere, ezin ditugu bien artean dauden loturak ahaztu. Beste alde batetik, zigorrari dagokionez, adimen eta garapen urritasuna duten pertsoneri arreta eskaintzen dieten profesionalen eta senideen artean zalantza asko daude, eta beraien esku hartzeak bideratuko dituzten irizpideak eskatzen dituzte. Bi arrazoi horiek direla eta, iruditu zaigu beharrezkoa dela eranskin batean lantzea, gaia argitzeko adina tarte eskainiz, baina, gogoratuz, berriro ere, ez dela tratu txarraren arazoaren gai zentrala.

Aurreko testuan, tratu txarrera egiten dugun hurbilketan, tratu txarren ekintzari edo ez egiteari buruz hitz egin dugu, tratu txarrak jasaten dituenari kaltea eginez, haren duintasun ukiezin izaerari errespetu falta erakutsiz. Dena den, pertsona batek beste pertsona batek eragindako kalte gisa ulertzen duen dena ez da tratu txar gisa hartu behar. Adibidez, prozesu judizialen ondorioz eta giza eskubideekin bat datorren egoeran kartzelan dagoenak beste batzuek eragindako kalte jasaten du, baina hori ez da tratu txarra, eta ezta tratu desegokia ere; baina, torturak jasango balitu, bera kriminal bat bada ere, tratu txar larria jasoko luke.

Kasu horietan, era berezian landu beharreko abagune berezia aurki dezakegu: tratu txar gisa balora daitekeen jokaera, tratu txarra jasan duenaren aurreko jokaera baten erreakzio gisa sortzen da, aurreko jokaera hori negatiboa izanik. Ez da bat-bateko tratu txarra, indarkeriaren erabileraren aurrean mugarik ez duten interes egozentrikoek zuzendutakoa; tratu txar erreaktiboa da. Abagune horrek, hain zuzen ere, jokaera legitimatzeko bidea zabaltzen du, parametro hauek kon-

tuan izanik: a) ulertzen da baimenduta dagoela jokaera negatiboa duen pertsona zerbaitetara derrigortzea, hark hori kalte gisa ulertzen badu ere; b) baina tratu txar bilaka ez dadin, zenbait baldintza bete beharko ditu. Derrigortutako zerbait hori, normalean, «zigor» izenez ezagutzen dugu. Horren inguruan funtsezko galdera sortzen da: Zein abagunetan izan daiteke zigor bat, tratu txar ez izateaz gain, bidezkoa, komenigarria, baita justizian egin beharrekoa, eta zigorra jaso duenarentzat positiboa?

## 2. Zigorra eta zigor motak, edukiaren arabera

Zigorraren oso definizio inklusiboak daude, eta joera konduktista duen psikologian erabiltzen dira. «Zigorra» da norbaiti zuzendutako edozein estimulu abersibo, horren helburua jokaera jakin baten probabilitatea murriztea bada. Horren aurkakoa «errefortzua» edo jokaera jakin bat egiten jarraitzeko probabilitatea handitzera zuzendutako estimulu positiboa da. Horrela ikusita, zigorra jokaerak aldatzeko prozedura gisa ikusten da. Helburua, zigorraren erabilera zientifikoa egitea da.

Ikuspegi horretatik urrundu egingo gara, bere bertsio «neutralenetatik», behintzat, eta berariaz morala izango den eta azterlan zientifikoa bere esanetara izango duen ikuspegi baten aldeko apustua egingo dugu. Baina, hala ere, ongi etorriko zaigu hortik abiatzea, zigorrari eman al zaion hedadura erakusten baitigu. Bi zigor motez hitz egiten da, beraien azpi-motekin (gogoratu, praktikan, haietako askok hainbat azpi-mota dituztela):

— Zigor positiboa, zigorra jasaten duenari kaltea eragiten dion ekin-tza bat berariaz jartzen duena —estimulu abersiboa—. Halaber, honakoa izan daiteke:

- Fisikoa, gorputzean eragina izanik. Belarrondoko bat, adibidez.
- Psikologikoa, psikismoan eragina izanik. Hainbat adibide jarriko ditugu, aukera asko daudela ikusteko: jasotzen duena mintzen duen aurpegi txarra, gaitzespena, errieta, sinesteko moduko mehatxua, iseka edo jende aurreko umilazioa, etab.
- Ekonomikoa, daukagun zerbait kenduz: gozokiak kendu, isuna jarri, etab.
- Zigorra jasotzen duenarentzat atsegina ez den zerbait egin beharra. Batzuetan zigortzen den jokaerarekin erlaziorik izan gabe, errespeturik gabe erantzuteagatik patiora hamar buelta ematea, adibidez. Beste batzuetan, zigorrean nolabaiteko kon-

ponketa ikusiz: adibidez, zikindu dena garbituz (lehengoraztea) edo zikindu dena baino gehiago (gainlehengoraztea).

- Giltzapetzea. Maila zibilean, kartzela sistema. Familia giroan, denbora batez gela batean itxita izatea, egin denaren zigor gisa. Etab.
- Zigor negatiboa, aurretik hartutako jokaeraren indartzailea baztertzea, desegokitze hartu den beste jokaera bat egiteagatik. Hemen bi zigor motez hitz egiten da:
- Erantzun kostua. Jokaera desegokiaren ondoriozko zigorra. Adibidez, maila zibilean, gidatzeko karneta kentzea, trafiko arauak ez betetzeagatik. Eskola mailan, programatutako irteeratik norbait baztertzea, jokaera desegokia izan duelako; telebista ikusten ez uztea, nota txarrak atera dituelako, etab.
  - Indartze positiboak dauden tokitik kanpo denbora egitea, jokaera desegokia izan duena, indartze positibo hori ez dagoen tokira bidaliz. Adibidez, norbaiti bere gelan geratzeko agintzea, ongi pasatzen duen jolas gelako gainerakoei traba egiten uztea erabakitzen duen arte.

### 3. Zigorra eta zigor motak, justifikazio helburuaren arabera

Esan berri dugu zigorrarekin jokaeraren aldaketa bilatzen dela. Baina bilatzen ditugun helburuak gehiago fintzen baditugu, zigorraren sailkapen berria aurkitzeaz gain, hori justifikatzeko arrazoiak aurkituko ditugu, eta hori da gehien interesatzen zaiguna. Hau da, zigorra eta tratu txarrak bereizteko arrazoiak. Horrela, gutxienez bost helburu justifikatzaile aipatu behar dira.

- Zigor hezitzailea. Zuzena dena ikasteko, askatasuna heldutasunez ulertzeko... baliagarri izatea bilatzen da. Guztiaren erreferente moralak ongi egitearen printzipioa da: norbait bere onerako zigortzen da, garapen egokia izan dezan. Errieta bat, adibidez.
- Zigor ereduagarria. Jokaera baten zigorra ikusten dutenek, egindakoa gaizki dagoela ikasteaz gain —une hezitzailea—, hori berriro ez egitea ere bilatzen da, zigorra jasotzearen beldurrez. Aipatzen den erreferente moralak gaizki egindakoa zabaltzea saihestea da. Hemen bilatzen dena, zigorra ahalik eta gehien zabaltzea da, benetako eragina izateko bezain indartsua izan dadin.
- Zigor zuzentzailea edo konpontzailea. Zigorrean parte hartzen duen ekintzak, zigor hori merezi izan duen ekintzak eragindako

kaltea zuzentzea edo konpontzea bilatzen da. Adibidez, konturatu gabe zerbait apurtu duen norbaiti, bere diruaz objektu berdina erostea eskatzea. Lehen mailako erreferente moralak justiziariena da, kaltea konpontzeko edo zuzentzeko dimentsioan.

- Zigor ordaintzailea. Puntu honetan, zigorrarekin, Aristotelesen esamoldea erabiliz «kaltean oreka lortzea» bilatzen da, norbait kaltea eragin zionak antzeko kaltea jasan dezala. Talionaren lege klasikoa adierazteko modu bat da. Adibidez, beste bat jo duen ume bati belarrondoko bat ematea, hiltzaileari heriotza zigorra ezartzea... Batzuetan kasu hauetan mendekuaz hitz egiten da. Baina mendekuak bi ezaugarri hauek izan ohi ditu: kaltea jasan duenak egiten du; eta indarkerian gora egiteko joera izan ohi du. Horregatik, Talionaren legea, inpartziala omen den agintaritzak neurtua, justizia mota gisa ikusi izan da, kasu honetan errudunari ezarritako zigorraren dimentsioan.
- Prebentziozko zigorra. Kasu honetan, desagokitzat hartzen den jokaera burutu aurretik zigortzen da, pertsona horri buruzko informazioak eta dauden susmoak interpretatuz, muga jartzen ez bazaio jokaera desagoki hori aurrera eramango duela ulertzen delako. Zigorraren izaera ekintza hori mugatzera bideratuta egon beharko da. Adierazitako arrazoi etikoa guztien onurarena edo besteari zor zaion justiziarena da, besteak kaltetzen dituzten jokaerak ahal diren neurrian prebenituz.

Adierazi behar da, praktikan, zigor askok helburu bat baino gehiago dutela, zigortzen duenaren helburuan batek lehentasuna duen arrear. Adibidez, norbait barkamena eskatzera behartzen bada, egin duen irain batengatik, helburu hezitzailea eta konpontzailea dago aldi berean.

#### 4. Zigorra justifikatuta egoteko baldintza etikoak

Zigorrari buruzko panoramika horren ondoren, ikuspegi etikotik baloratuko dugu. Esan dugun bezala, hori da dagokigun gaiaren funtsezko puntua, izan ere, zigorra justifikatuta ez badago, zigorra ezartzen duenak hori bilatzen badu ere, tratu txar gisa ulertu behar da eta. Ondorengo orientazioak proposatzen ditugu, adimen urritasunaren alorrean pentsatuz jada, esanahi zabalean ulertutako hezkuntza harremanetan, batez ere.

- Funtsezkoan zentratu. Jokaera positiboak bultzatzeko lehentasuna eman behar zaio, argi eta garbi, pertsonen garapen moralari, ona eta txarra dena baloratzeko gaitasunari, hain zuzen ere,

ona denerantz bideratzeko, ona delako eta bete egiten duelako, ondorioei aurre hartzeko, norberaren ekintzen ondoriozko ardurak norberaren gain hartzeko. Horrela, zerbait gaizki egiten denean «zigorrik» garrantzitsuena, norberaren akatsaren aitorten zintzoa eta koherentea izan behar da, kontzientzia moral egoziaren (ez zorrotzegia, ezta lasaiegia ere) irizpideen arabera. Hori horrela gertatzen denean, ez da beste «zigorrik» behar.

Esther 30 urteko pertsona da. Zailtasunak ditu bere emozioak ahoz adierazteko, eta batzuetan ostikadak ematen dizkio Sofiari. Estherrek maite du, baina ezagutzen ez dugun arrazoiren bat dela eta, berarengana zuzentzen du bere egonezina. Estherrekin bildu gara (hasieran ez du nahi, eta ordu batzuk igaro arte itxaron dugu), gertatutakoa aztertzeko eta horren zergatia ezagutzeko asmoz. Ziurtatu behar dugu laguntzera gatozela ulertzen duela, eta nola sentitzen den galdetzen diogu (pozik, triste, haserre). Berak esaten digu «triste» sentitzen dela. Bere jokaera definitzeko eskatzen diogu («Nik ostikadak ematen ditut»), jokaera horren balorazioa egiteko («gaizki dago») eta horren ondorioak, Sofiarengan zentratuz («Sofia triste dago»). Sofiarekin duen harremanaz ere galdetzen diogu («adiskidea»). Estherren tristuraren zergatira eta bere adiskidearekiko horrelako jokaera izatearen zergatira hurbiltzen ahalegintzen garenean, argi uzten diogu, hitz errazak erabiliz «Esther ona dela, baina batzuetan Sofiari min ematen dio, triste dagoelako». Bere gurasoekin elkartzea proposatzen diogu, egoera hobeto ulertzen lagunduko diguten zergatiak aurkitzen ahalegintzeko. Baietz esaten du. Beste alde batetik, izaten ari garen bilerara Sofia ere gonbidatzea proposatzen diogu. Eta hori ere onartzen du. Sofia sartzen denean, gertatutakoaz duen bertsioa Estherri aurkeztea eskatu diogu (jokaeraren deskribapena eta horren ondorioak). Esaten dio: «Min egin didazu hankan, eta ez zait gustatzen. Haserretu egin naiz». Hitz horiek entzutean, Esther negarrez hasten da eta Sofiarengana hurbiltzen da, besarkatzeko asmoz. Sofiak onartu egiten du, ilea laztanduz eta «Lasai, Esther, lasai», esanez.

- Indartzeari lehentasuna ematea zigorraren aurrean. Balioen eta bertute moralen errespetuan hezteko asmoa dagoenean eta kanpoko pizgarriak beharrezko ikusten direnean, hobe da indartze hori bultzatzea, zigorra bultzatu beharrean, indartzearen ondorioz zigorra beharrezkoa izan ez dadin. Ez bakarrik, ikerketek adierazten dutenez, orokorrean eraginkorrago delako, baita tratu txar bilaka daitezkeen kalteak eragitea saihesten duelako ere. Hala ere, ez gara mugatu behar bilatzen den jokaera lortuko duten indartzeak eskaintzera, ikuspegi moraletik hezten lagunduko

duten indartzeak eman behar dira. Ez da gauza bera, adibidez, jokaera ona indartzea, ona dela aitortuz, edo sari ekonomikoarekin indartzea, izan ere, sari ekonomiko horrekin, gerta daiteke bilatzen dena jokaera egokia izan beharrean, saria izatea (lehenengoarekin, bilatzen dena goraipamena dela ere erakutsi daitekeen arren, eta hori beste modu batera landu daiteke).

Badaude, komunikazio mailan muga handiak dituzten arren bileretan parte hartzea eskatzen duten pertsonak, eta elementu indargarria, erkidegoko pertsoneri zuzendutako hitzaldietan parte hartzeko aukera eskaintzea izan da. Maribelek, adibidez, «Txokolatea, zer?» esaten duenean, «Noiz eman behar dugu hitzaldi bat?» esan nahi du (berak parte hartzen duen adibidean, manipulazioa zer izan daitekeen adierazten da, «txokolatea» eta ez «ura» nahi duela esanez). Eta hori, aldi berean, indartze bilakatu da, bileretan duen jokaera egokia izan dadin, txandak errespetatuz, pentsatzen duena, sentitzen duena, adierazteko ahalegina eginez. Horrez gain, hitzaldietan parte hartzen duenean berarenganako aintzatespena nabarmentzen du, gai dela sentitzen du, eta beste pertsona batzuen arreta erakartzeko, harremanak ezartzeko... modua dela ikusten du, besteak kaltetu gabe. Hasieran bere jokaera ez zen egokia izan (ez zituen txandak errespetatzen, taldetik kanpo eseri zen...). Berarekin minutu batzuk hitz egin eta beste jarduera batean parte hartzeko aukera eman ondoren, gelditzea erabaki, eta bere jarrera hobetu zuen.

- Ez zigortu jokaera desagokia ez dena. Zigorrean, besterik gabe, jokaera aldatzeko baliabidea ikusten duenak, komenigarri iruditzen zaion edozein aldaketa lortzeko erabiltzen du. Zigorra jartzten du, adibidez, norbaitek ohean txiza egiteari utzi diezaion, edo nerbioek eragindako tik bat kentzeko... Hau da, norberaren ardura ez den eta norberak kontrolatzen ez duen hori ere zigortzen du. Egin beharrekoarekin bat ez datorren zerbait egiteak arazoak sortzen baditu, argi eta garbi dago ez dela zigortu behar eginbeharra ez denaren ondorioz.
- Zigor fisikoa edo gorputzekoa baztertu. Zigorren beharra onartzen bada ere, zigor fisikoa ez da ezarri behar (bere ordeztu beste zigor mota batzuk erabili daitezke, modu eraginkorragoan), eta zigor fisikoarekin tratu umiliagarriaren, tratu txarraren... eremuan sartzen garenez, horren erabilera debekatu egin behar da, gure kasuan, adimen urritasuna duten pertsonekin izan behar ditugun harreman hezitzaileetan. Batzuen iritziz, adibidez, urritasuna duen pertsona batek bere familiako beste kide bat erasotzen badu, belarrondoko bat emanez, ez da txarra berari ere

gauza bera egitea, zer den jakin dezan. Baina hori zigor fisikoaren dinamikan sartzea da, eta baztertu egin behar da.

- Zigorraren motibazio errealak argitu eta purifikatu. Zigorra ezartzeko positibotzat har daitezkeen arrazoiak jartzen badira ere, ez da arraroa, era nolabait inkonszientean beste dinamika batzuek ere funtzionatzea. Hori gertatzen da jokaera bat zigortzen dugunean ez horrenbeste gaizki dagoelako, guri gustatzen ez zai-gulako baizik. Edo zigorra gure erreakzio emozional espontaneoaren adierazpena denean: zigorra ezartzeko orduan ez dute zerikusirik izan behar norberaren interesek edo jokaera jakin batek zigorra ezartzen duen pertsonarengan eragiten dituen hase-rra eta sumindura emozioek, ezta guk agintzen dugula erakus-teko dugun gogoak ere.
- Zigorraren justifikazioak aztertu, tratu txarrarekin erlazionatuz. Ikusten dugun bezala, irizpide etiko horiek justifikaturiko zigorraren eremu posiblea murrizten doaz. Egin dezagun aurrera zigorraren bost justifikazioak aztertuz. Ez alor zibila bezalakoetan pentsatuz (bere isunekin, bere zigor sistemarekin, etab.), baizik eta hezkuntza alorrean, esanahi zabalean ulertuta (familia beza-lako espazioak eta beste espazio informalagoak barne hartuz). Justifikaziozko zigor eredu-garria baztertu behar da, zigorra jasotzen duen pertsona baliabide gisa tratatzea eragiten duelako, tratu txarra eragiten diogulako. Aldi berean, prebentziozko justifikaziozko zigorrarekin gauza bera gertatzen da, gertatu ez dena zigortzea ez delako zuzena eta, ondorioz, tratu txarra delako: jokaera desegokia prebenitzeko ekimenak beste bide batzuetatik joan behar dira. Ordainketa legitimazioko zigorrari dagokio-nez, eremu zibilean neurrizko espazio gisa ulertu badaiteke ere, duen dinamika dela eta hezkuntza alorrerako ez dela egokia uste dugu. Beraz, bi justifikazio posible geratzen zaizkigu zigorrerako: ikastearena eta konpontzailea edo zuzentzailea, eta oso loturik daude elkarren artean (zigor zuzentzaile edo konpontzaile oro zigor hezitzailea da; eta zigor hezitzailean konpontzeko edo zuzentzeko beharra ikasten da). Gara ditzagun labor.
- Profesionalaren dinamika fintzea, honelako irizpideak kontuan izanik:
  - Zigor horren helburu nagusia, zigorra jasotzen duen pertsonaren autonomiaren ariketa morala helduago bilakatzea da. Zehatzago esanez, bestearenganako errespetua eta errespetu hori araupetzen duten bizikidetzak arauak heltzea lortu behar da, frustrazioa era positiboan norbereganatzea, etab.

- Zigorra proposatzean, zigorra jasotzen duen pertsonari errespetua eta abegikortasuna adierazi behar zaio.
- Oso garrantzitsua da, urritasuna duten pertsonen autonomia gaitasunaren garapenak horretarako aukera ematen duen heinean, denen artean elkarrizketa egitea, zigorraren esanahiari buruz, zer zigortu behar den eta nola, akordioak lortzen saiatuz; horrela, jarraibide horiek ondoren inpartzialtasunez aplikatu beharko dira. Hau da, ahal den neurrian aurretik adostu behar da zein jokaera hartuko den desegokitzat eta horiek egiten dituenak jasoko duen zehapen posiblea.
- Horrek asko lagunduko du helburu hezitzailea duen zigorrean oso garrantzitsua den zerbaitetan: zigorra jasaten duenak, hasierako haserrealdia igaro ondoren, zerbait zuzen gisa ulertzean, bere onspena ematean.
- Onspenaren gai horretan pixka bat gehiago sakonduz. Zigor batek zigorra jasan duenaren eskubideren bat nabarmen mugatzea eragiten duenean, aurretik horren onspena lortu behar da: ahal bada, zigorra jasotzen duenarena; eta hori ezinezkoa bada, bere legezko arduradunarena.
- Heziketaren aldetik kontuan izan beharreko beste alderdi bat intentzioaren arreta da, jokaera desegokia izan duenaren kontzientzia maila eta abaguneak, litekeena baita ikuspegi moraletik barkatua izatea.
- Azken hori posible egiteko, eta justiziaren mesedetan, beharrezkoa da zigorra jasan behar duenari azalpenak ematen uztea, zigorra gauzatu aurretik.
- Eta, jakina, oso garrantzitsua da, baita ere, erakunde osoak zigorrari buruzko irizpide berberak izatea, zigorra jasotzen duena nahastu ez dadin, dinamika desberdinak eta batzuetan kontrajarriak direla eta.
- Azkenik, argi eta garbi positiboa izango den proportzioa eman behar da zigorrarekin lortuko den hobekuntzaren mesedetan, zigor horrek eragingo duen sufrimenduarekin alderatuz.

M.<sup>a</sup> Carmenek behin eta berriro adierazi zuen Aliciaren, abegikortasun berezia zion begiralearen, mahaijan nahi zuela. Baina arazo bat zegoen, mahai horretan Luisek jaten zuela. Luisek probokatu egiten zuen, «M.<sup>a</sup> Carmeeeeen» esanez, bere arreta deitzeko, eta M.<sup>a</sup> Carmenek irainekin erantzuten zion. Luisek laguntza behar zuen jateko, eta Aliciak eman behar zion laguntza hori. Hasiera batean M.<sup>a</sup> Carmenek ahaleginak egin zituen Luisen probokazioei ez erantzuteko, mahai berean egoteko, baina aste batzuk igaro ondoren, bien



arteko gatazkak ia egunerokoak ziren. Une honetan zerikusirik ez duten zenbait arrazoi direla eta, eta egoera bideratzeko zenbait estrategia martxan jarri eta gero, emaitza positiborik lortu gabe, ikusi zen hoberena M.<sup>a</sup> Carmen beste mahai batera eramatea zela, baina horrela planteatzen bazen, profesionalen erabaki gisa, M.<sup>a</sup> Carmenek zigor bidegabe gisa ikusiko zuela ulertuz. Hori dela eta, mahaian jaten genuenak elkartu ginen, egoera aztertzeko eta konponbidea bilatzeko, eta M.<sup>a</sup> Carmen bera izan zen beste mahai batera joatea erabaki zuena. Bera izan zen mahaiak aukeratu zuena, eta mahai hartako kideei ea norbaitek aldaketa egin nahi zuen galdetu zien. Kide batek onartu zuen eta egoera konponduta geratu zen.

Horrelako erreferentziak ikusita, ohikoena, zigorra, errepikapenik ez dagoenean behintzat, hasiera batean jokaera desegokia dela adierazteko eta aldaketa bultzatzeko planteatzea da. Errepikapenek edo jokaera negatibo azpimarragarriek zigor indartsuagoak ezartzea eska dezakete, baina aurretik aipatutako baldintzen arabera orientatu beharko lirake; horrela, beti ere neurrizko zigorrak izango dira, beraien formei eta indarrari dagokienez. Hasiera batean, ezintasunaren abaguneak arindu egiten ditu zigorra jasotzearen aukerak, irizpide horiek guztiak kontuan izanik. Baina egia da, baita ere, autodeterminazioaren aintzatespena eta indartzea errebindikatzeko ari garela, eta horrek erantzukizuna eskatzen du, eta erantzukizun horrek zigorra jasotzeko aukera izateko jarraibidea ere ematen du.

- Zigor konpontzailearen edo zuzentzailearen dinamika fintzea. Puntu honetako erreferente nagusia justiziarena da. Laguntza ematea, zigorraren bitartez, beste pertsona batzuei edo denon ondasunetan eragindako kalteak konpontzeko. Horrek erantzukizuna adierazten du, besteei eta talde osoari zor zaionaren alorrean. Argi dago laguntza hori bakoitzaren aukeretara egokitu beharko dela. Eta, gainera, zigor hezitzaileako adierazi diren jarraibide guztiak jarraitu beharko ditu.
- Zigorraren eraginkortasun irizpidea kontuan izatea. Aurreko aipamen guztiak kontuan izan eta gero, beharrezkoa da, baita ere, eraginkorrak izango diren zigorrak planteatzea. Zigorrari buruzko literaturan, helburu horrek lehen tokia hartzen du batzuetan. Baina ez da horrela izan behar. Helburua ez da eraginkortasuna bilatzea beste gauza guztien gainetik. Helburua, zigorra jasaten duen pertsonaren eta hark mintu dituen pertsonen duintasuna bermatzea da; eta hori, aipatu ditugun irizpideak norberegantuz bermatzea. Horren ondoren, era positiboan, zigorrak jasaten dituztenei, zigorraren helburu hezitzaile eta zuzentzaile horie-

tan aurrera egiten lagunduko dizkieten zigorretan baino ez dugu pentsatu beharko, eta, era negatiboan, ondorio kaltegarriak ez izatean (erasokortasuna indartzea, alde batetik edo depresioak eta erruduntasun konplexuak, bestetik). Hemen ez ditugu eraginkortasun aholku horiek adieraziko, horietako batzuek adierazi dugun horretan inplikaturik badaude ere.

# Bibliografía

## Eremu etikoa

- ETXEBERRIA, Xabier (2005): *Aproximación ética a la discapacidad*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- ETXEBERRIA, Xabier (2009): *El valor de las personas con discapacidad intelectual*, FEVAS-ek Bilbon antolatutako «Lo urgente y lo emergente: la sexualidad, el valor de la persona y el maltrato» jardunaldiko hitzaldia.
- ETXEBERRIA, Xabier (2008): *La condición de la ciudadanía de las personas con discapacidad intelectual*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- ETXEBERRIA, Xabier (2011): «La Convención de la ONU sobre los derechos de las personas con discapacidad: la perspectiva ética», *Siglo Cero. Revista Española sobre Discapacidad Intelectual*, . 42 lib., 237 zk., 33-46 orr..

## Tratu txarrak

- AA.VV. (2000): *Código de buenas prácticas para la prevención de la violencia y los abusos hacia las personas con autismo*, IMSERSO/Confederación Autismo España/Fundación Congost-Autisme, Madril.
- AA.VV. (2004): *Infancia, discapacidad y violencia. Facilitar el desarrollo de estrategias de prevención en las Asociaciones de Discapacitados*, AIAS Bologna Onlus, Bologna.
- AA.VV. (2012): «Prevalence and risk of violence against children with disabilities: a systematic review and meta-analysis of observational studies», *The Lancet*, 380 lib., 9845 zk., 899-907 orr..
- BERASTEGUI PEDRO-VIEJO, Ana, GÓMEZ-BENGOECHEA, Blanca (2006): «Los menores con discapacidad como víctimas de maltrato infantil: una revisión», *Intervención Psicosocial*-ean. 15 lib., 3 zk.
- BRONFENBRENNER, Urie (1987): *Ecología del desarrollo humano*, Paidós, Bartzelona.

- CASADO GÓMEZ, Gaspar (2002): «Protección contra los abusos», *Minusval*, 136 zk., 38-43 orr.
- FEAPS (2006): *Código Ético FEAPS*, FEAPS, Madril.
- FEAPS Madrid (2010): *Violencia de género y mujeres con discapacidad intelectual*, FEAPS Madrid/Madrilgo Erkidegoko Emakume eta Enplegu Saila, Madril.
- FRUTOS, María José., RODRÍGUEZ, Olga. (2006): *Manual de prevención y detección del maltrato para mujeres con discapacidad psíquica*, Fundown/ Fadis, Murztzia.
- GRACIA, Diego (2001): «La deliberación moral: el método de la ética clínica», *Med Clin*, 117 lib., 18-23 orr., Bartzelona.
- HORNER-JOHNSON, W. (2006): «Prevalence of maltreatment of people with intellectual disabilities: A review of recently published research», *Mental Retardation and Developmental Disabilities Research Reviews*, 12 zk., 57-69 orr.
- KEATING, J. (2001): *Behind closed doors: Preventing sexual abuse against adults with a learning disability*, UK Voice/ Respond/ MENCAP, London.
- MOYA, Antonio, BARBERO, Javier (2005): *Malos tratos a personas mayores: Guía de actuación*, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales/IMSERSO, Madril.
- ONU (2006): *Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad*, Nazio Batuak Enable.
- SANCHO, Mayte (2011): *Estudio de prevalencia de malos tratos a personas mayores en la Comunidad Autónoma del País Vasco*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- SULLIVAN, P., KNUSTON, J. (2000): «Maltreatment and disabilities: a population-based epidemiological study», *Child Abuse Neglect*, 24 lib., zk. 10, 1275-88 orr.
- VERDUGO, Miguel Ángel, BERMEJO, Belén (1993): «El maltrato en niños y adolescentes con discapacidad intelectual», *El autismo 50 años después de Kanner*, 303-315 orr., Amaru Ediciones, Salamanca.
- VERDUGO, Miguel Ángel, BERMEJO, Belén (1999): «Qué se sabe del maltrato en la población con discapacidad intelectual», *Siglo Cero. Revista Española sobre Discapacidad Intelectual*, 30 lib., 6 zk., 5-11 orr., FEAPS, Madril.
- VERDUGO, Miguel Ángel (2004): «Maltrato y violencia de género en personas con discapacidad intelectual. Estrategias de prevención», *Seminario Violencia de Género y Discapacidades*.

## Beste dokumentu eta argitalpen interesgarri batzuk

- CORCOY, Mirentxu, GALLEGRO, José Ignacio (2012): *Consentimiento por representación*, Fundació Víctor Grífols i Lucas, 22 zk., Bartzelona.
- FEVAS (2006): *Catálogo de servicios para la calidad de vida de las personas con discapacidad intelectual y sus familias*.

# Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak, 72 zenb.

Tratu txar oro pertsonaren duintasunerako aintzatespen eta errespetu falta da, eta pertsona horren integritateari kaltea eragiten dio. Urritasuna duten pertsonen zaugarritasun berezia kontuan izanik, eta orientabide nagusi gisa etikaren ikuspegia hartuz, pertsona horien gaitasunen garapena eta hiritar gisa aintzatestea bultzatuko duten kontzeptu komunen eta tresnen eraikuntzan aurrera egitea bilatzen dugu. Egoera asko tratu txar gisa argi eta garbi kontzeptualizatzen ez direnez, eta tratu txar hori modu anitzetan eta testuinguru desberdinetan adierazten denez, batzuetan zaila da hautematea eta prebenitzea. FEVAS-ek, Etorbizirekin-Berrikuntza Sozio-sanitariorako Euskal Fundazioarekin elkarlanean, bultzatutako elkarlan honek, tratu txararen inguruko kontzeptualizazio orokorra, kasuen azterketa eta praxia hobetzera bideratutako aholkuak eskaintzen ditu.

**Xabier Etxeberria** Deustuko Unibertsitatea  
**Marije Goikoetxea** Deustuko Unibertsitatea  
**Natxo Martínez** Deustuko Unibertsitatea  
**Tania Pereda** Gorabide  
**Asun Jauregi** Fundación Goyeneche  
**Jimmy Brosa** Gautena  
**Gerardo Posada** ANFAS  
**Valeria García-Landarte** FEVAS

**HURI-AGE**  
Consolider-Ingenio 2010

  
ADIMEN EZINTASUNA  
DUTENEN ALDEKO  
ELKARTEEN  
EUSKAL FEDERAZIOA  
  
FEDERACION VASCA DE  
ASOCIACIONES EN FAVOR  
DE LAS PERSONAS CON  
DISCAPACIDAD  
INTELLECTUAL  
**FEVAS**

  
**Deusto**  
Argitalpenak  
Deustuko Unibertsitatea

**( ETORBIZI )**

BERRIKUNTZA SOZIOSANITARIORAKO EUSKAL FUNDAZIOA  
FUNDACIÓN VASCA PARA LA INNOVACIÓN SOCIO-SANITARIA  
BASQUE FOUNDATION FOR SOCIAL AND HEALTH CARE INNOVATION